



Hezkidetza eta
Pedagogia Feministen
II. kongresua

2023

Begiradak

Esperientziak

Saretzeak

SOR
GIN
LORE

IKERTZE

Aurkibidea

Creative Commons



CC BY-NC-SA 4.0 CÓDIGO LEGAL

Atribución-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional

Koordinatzailea: Zaira García Dafonte. Sorginlore Gizarte Elkartea.

Lan-taldea: Mainer Sagredo Escudero, Leire de Miguel Martínez, Assumpta Ayerdi Olaizola, Nuria Fernández Sánchez, Lore Etxebarria Etxaburu eta Oriana Sujeý Ortiz Vindas.

Itzulpena: Irakurketa Erraza.

Diseinua eta maketazioa: TaPuntu.

Antolatzaileak



Erakunde laguntzaileak



| | | | |
|---|----|--|-----|
| 1. SARRERA..... | 4 | 4. SARETZE TXOKOAK..... | 90 |
| 2. HITZALDIAK ETA MAHAIA INGURUAK..... | 8 | Udal agenda hezkidetzaillea..... | 91 |
| Pedagogia feminista baterako begirada | | Patioak eta eskolako espazioaren erabilera..... | 92 |
| intersekzionala..... | 10 | Hezkidetzaren diagnosiak eta planak..... | 94 |
| Sexu-hezkuntza integrala | 16 | Sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiagatiko jazarpenaren | |
| Bazterretako erotika..... | 17 | aurkako protokoloa..... | 96 |
| Arte hezkidetzaillea..... | 28 | Gazteak, kaleak eta aisialdia..... | 98 |
| Indarkeria(k) eta harreman osasuntsuak..... | 36 | Eskolako materialak berriz pentsatzen, | |
| Gizonek zer? | 37 | sortzen eta partekatzen..... | 100 |
| Lodifobia..... | 46 | Eskola-kirola hezkidetzaillea | 102 |
| Hetero araua plazerrez lehertu!..... | 50 | Ekintzak: M8, E28, A25..... | 103 |
| Herri hezkidetzailleak..... | 56 | Komunikazio feminista..... | 104 |
| Zaintza(k)..... | 57 | Gazte-talde feministak | 106 |
| Herritarrengandik herrietara..... | 70 | | |
| 3. TAILERRAK..... | 80 | 5. ONDORIOAK..... | 84 |
| Autoezagutzea eta kontsentimentua..... | 81 | | |
| Ahizpatasuna eta autodefentsa feminista | 84 | | |
| Egongela bat plazan | 86 | | |

Sarrera

2023ko ekainak 26 eta 27an burutu genuen **Sorginlore** Gizarte Elkartek eta **Ikertze** Kultur Elkartek antolatutako **Hezkidetzaz eta Pedagogia Feministen II Kongresua** Donostian. Ekimena, topagune senti-pentsalari bezala deskribatu genuen, eta baita tokian tokiko jakintzen eta jakintza globalen truke gune ere. Zertarako? Begirada hezkidetzazile eta emantzipatzaileez hausnartzeko, esperientzia feministak partekatzeko eta sarea sortzeko. Hau da, elkar ezagutzeko, irudimen kritikoa garatzeko, ekarpena egiteko bidezkoak eta jasagarriak diren errealitateei eta bizipen horietatik aukerak elikatzeke.

Kongresu hau 14 ekimen, elkarte eta erakundearen artean sortu, desiratu eta planifikatu zen. **Sorginlore**, **Ikertze**, **Emagin**, **Arremanitz**, **Imaginá**, **Alboan**, Donostiako Udala (**Lankidetzaz**, **Gazteria**, **Hezkuntza** eta **Berditasuna**), **Biltzen**, **Hiruki Larroxa**, **TBK Hezkuntza** Artaziak, Hezkuntza EJ **Iruneko Berritzegunea**, **EHU-HEFA**, **Gandere EHU Ikerketa taldea** eta **Eskura**. Jakina da hezkidetzaz eta pedagogia feministetan hamaika ekimen egiten direla. Baita honetan jarduten dugunok edo interesa dugunok, puntu, momentu eta eremu desberdinetan gaudela. Aniztasun hori benetako aberastasuna dela ulertuz eta horretaz elikatu nahian, hilabete luzez elkarlanean aritu ginen. Ondorioz, gure jardunean, hau da, maila lokalean topatzen ditugun, baina testuinguru globalean kokatu eta irakurri behar ditugun erronka, kezka, aukera eta beharrak biltzen dituen egitaraua osatu genuen.

II. Kongresuak, 2020an pandemiak erabat baldintzatu zuen I. Kongresuari jarraipena eman zion. Duela 3 urte, 150 pertsona gure ordenagailuetako pantailen bidez elkarrekin ginen hezkidetzazile lotutako edukietan sakontzeko asmoz. Entzuteko eta gogoeta egiteko espazio bat sortu zen aldi hartan, marko amankomun bat partekatzeko aukera eman ziguna. Oraingoan, Igeldon, aurrez aurre elkarrekin ginen 220 pertsona (hemendik aurrera parte hartzaile bezala izendatuko direnak). Gaiak berdina izaten jarraitzen zuten, baina naturaz inguratutako eremu hark, **saretzeko**, **ezagutzak trukatzeko**, **esperientzietatik ikasteko** eta **kolektibotasunak** ematen duen indarra sentitu eta bizitzeko testuinguru paregabea eta gozagarria eskaini zigun.

I. Kongresu hark mahai gainean ipini zituen egun haietan eta hurrengo orrietan bidailagun izango ditugun **eduki** batzuk: **intersektionalitatea**, **gorputza**, **plazera** eta **ez bitartasuna**. Lan taldeak oraingoan, argi ikusi zuen zeharkako moduan landu behar genituela eta txoko guztietan presente egon behar zutela.

Egitaraua, hiru eduki multzo nagusik gidatu zuten:



Sexuen hezkuntza integrala



Indarkeria(k) eta harreman osasuntsuak



Herri Hezkidetzazileak

Metodologiari dagokionez, goran aipatutako edukiak hitzaldi nagusi, mahai inguru, esperientzia txoko eta tailer bidez landu ziren (ikus 2. eta 3. atalak). Liburuan zehar, hizlariek aurkeztutako testuaren¹ ondoren, bakoitzari dagozkion errelatoriak eta laburpen bisualak aurkituko dituzue (tailerren kasuan izan ezik, bakarrik laburpen bisuala). Kongresuaren helburu nagusietako bat zen partaideen arteko saretzea eragitea eta hori sustatzeko saretze txokoak antolatu ziren (ikus 4. atala). Bertan hezkidetzan gaurkotasuna eta interesa pizten duten 10 gai proposatu ziren eta partaideek aukeratu zuten nora jo.

Ekimena gogotsu eta ilusioz beterik hasi genuen eta bertan

partekatutako eta bizitakoaren ondoren, pozarren bukatu genuen. Izan ere iruditzen zitzaigun eta zaigu, pedagogia feministei eta hezkidetzari ekarpena egin zitzaiola eta bide horretan aurrera pausoak ematen jarraitu genuela. Kongresuaren eraikuntza eta gauzatze prozesu guztian argi izan genuen, pedagogia feministak sustatu eta txertatu behar genituela eta plazeretik² lan egin nahi genuela. Lortu genuen hau bermatzea eta espero dugu zuetako bakoitzak hurrengo orrietan, edukiak jasotzeaz gain egiteko modu horiek ere **ikustea**. Esku artean duzuen liburuaren zergatia hain zuzen, honen guztiaren ildotik doa: Kongresuan partekatutako ikasketa eta baliabideak modu argi



eta praktikoan bildu, zabaldu eta guztion eskura ipintzea (bide batez esango dugu, edukiak prest daudela podcast moduan entzuteko ondorengo estekan: [Hezkidetzeta eta Pedagogia Feministen II Kongresuko Podcast-a](#)).

¹ Testuak hizlariek idatzitako moduan errespetatu eta mantendu dira.

² Prozesu honetan plazera horrela definitu dugu:

- Hezkidetzeta modu gozagarrian, bizigarrian lantzearen plazera, elkartasunetik elkartu eta lotzen gaituena, derrigortasunetik nahiz eredu formal edo instituzionaletatik aldentuta.
- Bizitza eta bizikidetzeta dinamiko, sortzaile eta osoak izatearen plazera, heteronormatibotasuna eraisten dugun artean.
- Gure ulermena eta gure praktikaren ahalmen eraldatzailea sendotzearen plazera, geure egin dugun begirada interseksionalak eta toki-ko-globala den ikuspegiak zabaltzen dizkigun aukerei esker.



Kongresua **eskerrak** ematen hasi genuen eta sarrera hau hitz berdinekin bukatuko dugu, hemen aipatzen diren pertsona eta eragileak ezinbestekoak izan direlako hau guztia gauzatzeko. **Eskerrik asko beraz:**

- Agendetan bi egunetako parentesi bat egin eta bertara gerturatutako pertsonari konpromisoa hartzeagatik, jakinda, ikasturte bukaera zela, nekatuak geundela, asko oporren bezperan zeudela, egun horietan San Juanak, San Pedroak, etab. ospatzen zirela...
- **Elankidetzeta - Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentzia** eta **Donostiako Udalako Lankidetzeta Bulegoari** eta **Hezkuntza atalari**, haien laguntza eta babesik gabe ezin izango genukeelako hau guztia egin.
- Hizlari eta tailerista guztiak.
- Konklusioak egiteaz arduratu ziren artistei: **Alaia Martin Etxebeste** eta **Maddi Ane Txoperena** bertsondorietan, **Oskar Estanga Ezkurdia** rap ondorioetan eta **Beatriz Egizabal** klownklusioetan.

- Interpreteteei: Izaskun Goienetxea Díez eta Leire Azkargorta Mintegi.
- Laburpen bisualak egiteaz arduratu ziren ilustratzaileei: **Birginia Pozo Gonzalez**, **Goretti Aranburu Epelde** eta **Femgarabat**.
- **Monte Iqueldo Hotelari**: honelako espazio batean ongi etorriak garelako erakutsi zigutelako.
- Bolondresei: Amaia Txueka Uria, Edurne Gallo Santamaría, Leire Orbegozo Borda, Ane Etxabe Isasmendi, Oihan Martirena Iruretagoiena eta Maria Landazuri Sierra.
- **Uhinako soinu teknikariei**.
- Komunikabideetan tarte bat eman ziguten kazetariei.



Hitzaldiak
eta mahaia
inguruak

Pedagogia feminista baterako begirada intersekzionala

Pastora Filigrana García

Sevillarra. Abokatua da, lan eta sindikatu zuzenbidean aditua, atzeritartasun zuzenbidean aditua. Giza eskubideak, kulturartekotasuna eta garapenaren Maisutza du. Andaluziako Gizarte Ekonomiako Eskolako Gizarte Ekonomiako Enpresen Zuzendaritzan aditua eta 2012tik kooperatibista da “Abogadas Sociedad Cooperativa Andaluza” erakundearen.

Hizaldia

Hitzaldi honen bidez, ikuspegi intersekzionalera gerturatu nahi dut. Hau analisi-tresna moduan hartuta, munduan eskubideak eta ondasunak eskuratzeko dagoen desberdintasunaren konplexutasuna ulertzeko. Desberdintasuna pairamen bezala ulertuta.

Desberdintasuna, ez nortasunen aniztasunarekin lotuta, baizik eta munduan eskubideak eta aberastasunak modu desberdinean banatzeko sistema moduan, pertsona bat den horretatik abiatuta: bizi den gorputza edo lurraldea.

Intersekzionalitatea¹ emakume afroamerikarren borroketan oinarritzen den kontzeptua da. Arraza-sistema baten eta genero-sistema baten elkargunetik sortutako sufrimendu zehatzak deskribatzen zituen kontzeptua. Ikuspegi hori gizarte-borroken eta eskubideen aldarrikapenen bidez sortu zen, nahiz eta kontzeptuaren hedapena pentsamendu teoriko eta akademikoaren sortzeari lotuta dagoen.

Hitzaldi honen bidez, ikuspegi intersekzionalera gerturatu nahi dut. Hau analisi-tresna moduan hartuta, munduan eskubideak eta ondasunak eskuratzeko dagoen desberdintasunaren konplexutasuna ulertzeko. Desberdintasuna pairamen bezala ulertuta.

Desberdintasuna, ez nortasunen aniztasunarekin lotuta, baizik eta munduan eskubideak eta aberastasunak modu desberdinean banatzeko sistema moduan, pertsona bat den horretatik abiatuta: bizi den gorputza edo lurraldea.

¹ **Intersekzionalitate kontzeptuan sakontzeko ikusi:** Rodó Zarate, María. Interseccionalidad. Desigualdades, Lugares y Emociones. Bellaterra 2021.

Interseksionalitatea² emakume afroamerikarren borroketan oinarritzen den kontzeptua da. Arraza-sistema baten eta genero-sistema baten elkargunetik sortutako sufrimendu zehatzak deskribatzen zituen kontzeptua. Ikuspegi hori gizarte-borroken eta eskubideen aldarrikapenen bidez sortu zen, nahiz eta kontzeptuaren hedapena pentsamendu teoriko eta akademikoaren sortzeari lotuta dagoen.

Errealitateari ikuspegi interseksional batetik heltzeko, beharrezkoa da patriarkatua zer den eta arrazakeria zer den jakiteko gutxieneko kontzeptu batzuk izatea.

Patriarkatua gaur egun sistema kapitalistaren barneko diren aberastasanaren eta lanaren banaketa-sistema bat da. Horrek esan nahi du, gaur egungo gizarteak genero nagusi edo ideal bat ezarri duela, gaur egun gizona dena eta emakumea gutxiagotasun-leku batean jartzen duena. Emakumeen bizitzeko energiak edo lan-indarrak gutxiago balio du gizartean eta merkatuan. Horrek esan nahi du, emakumeek zailtasun handiagoak dituztela munduan ondasunak eta eskubideak eskuratzeko. Munduko pobreen % 70 emakumeak dira.

Gizonen eta emakumeen arteko egiturazko eta munduko desberdintasun-egitura horri patriarkatua esaten diogu gaur egun. Balio desberdin horren ondorio nagusietako bat da historikoki emakumeei emandako zaintza- edo ugalketa-lana ez dagoela oraindik behar bezain aitortuta eta ordainduta, gizartean duen garrantziari dagokionez. Ez bakarrik etxeko langile diren emakumeena, baita zaintza-la-

nekin lotutako beste lan-sektore batzuen ere, hala nola hoteletako eta eraikinetako garbitzaileena, menpeko pertsonen etxez etxeko laguntzako langileena edo adinekoen zentroetako erizaintzako teknikari laguntzaileena. Gizartean eta soldatan aitormen txikiena duten lanak emakumeek egiten jarraitzen dute eta horien barruan emakume pobreenek, gaur egun emakume migratzaileek eta mendebaldekoak ez diren herrialdeetan edo Hego Globaleko herrialdeetan bizi direnek. Emakumeen bizitzeko energiaren edo lan-indarraren balio desberdin hori da munduan gertatzen diren indarkeria matxisten zergati nagusietako bat.

Arrazakeria praktika ekonomiko, politiko eta kulturalen multzo bat da. Horiek zurtasunaren edo *arraza zuriaren* ereduaren gehiagotasuna justifikatzen dute munduko beste arraza- edo etnia-forma guztien gainetik. Pertsona ez-zuriek edo arrazializatuek ondasunak eta eskubideak modu desberdinean eskuratzeko dakar.

Gaur egun, begiratzen dugun tokian, oraindik ere zuriak ez diren pertsonak egiten dituzte munduan okerren ordainduta eta aitortuta dauden lanak. Hori justifikatzeko pertsona horiek gutxiesten dituen diskurtso arrazista ere badago oraindik. Horren adibide ona da gaur egun, Espainiako estatuan batez ere langile migratzaileek sostengatzen duten landa-lanaren sektorea, lan-esplotazioko baldintza gogorak pairatuta. Landa-lana, zaintza-lana bezala, bizitzari eusteko behar ditugun funtsezko lan horietakoa da eta, aldi berean, gizartean eta soldatan aitormen txikia dute.

Egiturazko patriarkatua eta arrazakeria justifikatzen dira emakumeen eta zuriak ez diren pertsonen gutxiagotze-diskurtsoak errepikatzearen eta sostengatzearen bidez, estereotipo eta aurreiritzietatik abiatuta.

Azkenean, aberastasanaren banaketa desorekatu hori justifikatzen da, desberdintasun hori pairatzen duten pertsonen sorbaldetan pairatzeko erantzukizuna jarrita beren idiosinkrasia dela eta, munduan nagusi diren balioekin bat ez etortzeagatik edo munduan ez egoteagatik.

Ikuspegi interseksionala behar da arraza- edo genero-sistemen elkargunearen arabera pertsonak jasaten dituzten egiturazko indarkeria-egoerei heltzeko, zergatien zailtasunean eragiten duten konponbideetan asmatu nahi badugu. Premiazkoa da desberdintasuna etxekotzen duten eta gizateria maskulinitate, mendebaldetasun eta zurtasun irizpideen

Partekatutakoa

Parte-hartzaileen galderak

- Zilegi da arrazializatuak ez diren hezitzaileek arrazakeriari heltzea edo nolabait dituzten ikasle arrazializatuen diskurtsoaz edo bizipenez jabetzen ari dira?

Hezitzaileak diren heinean, zilegitasuna dute. Gainera, hori egiteko erantzukizuna dute. Horretarako, garrantzitsua da azterketa-eremuak zabaltzeaz arduratzea eta hainbat herri buruz duten iruditeria zein den eta nola eraikitzen den berrikustea. Era berean, komeni da, ikasle arrazializatuak eskatzea iritzia edo bizipena lehen pertsonan partekatze-ko, nahi badute.

- Nola sustatu kohesioa ustez abegikor diren herrietan (adibidez, herri-bazkariak), baina praktika arrazistak edo segregaziokoak dituztenetan (adibidez, eskolaz kanpoko jarduerak diru-sarreraren arabera)?

Zaila da kohesioa sortzea pertsonak eta gizataldeak urritasun-eremuetan lehiatzen jartzen dituzunean.

Udalek eta gizarte-erakundeek eskolaz kanpoko proiektuak bultzatzen dituzkete, bai partaidetza-sare zabala izateko, bai eskumenak indartzeko. Horrela, belaunaldiz belaunaldi pobreziaaren transmisioa saihestuko da.

Erronkak

- Interseksionalitatea sartzea bai zailtasunaren azterketan asmatzeko, bai aliantzak sortzeko eta gorabeherak bideratzeko. Hori guztia, ez aniztasunari, baizik eta desberdintasunari jaramon eginda.
- Azterketa eta ekimen interseksionala egunerokoan moldatzea.
- Bidegabekeria- eta zapalkuntza-ardatzak adieraztea, ez alderdi indibidual eta meritokratiko batean, baizik eta egitura-ildo bezala. Horri dagokionez, gure ekoizpen- eta kontsumo-eredua patriarkatuan, arrazakerian eta kolonialtasunean oinarritzen dela ulertzea.

² **Interseksionalitate kontzeptuan sakontzeko ikusi:** Rodó Zarate, María. Interseccionalidad. Desigualdades, Lugares y Emociones. Bellaterra 2021.

Tentsioak eta eztabaidak


- Azterketa interseksionala proposatzen badugu, ezinbestekoa al da behintzat, arraza eta generoa gurutzatzea? Edo beste interseksioak gurutzatu daitezke, hala nola, generoa eta klasea?
- Diskriminazio, indarkeria, gorroto-, genero- eta bestelako delituen kasuetan, justizia feministadun ikuspegi baten alde egingo al dugu? Zer zailtasun dakartza salaketak? Taldeko laguntzarekin? Administrazio legez kontrako egoeran dauden pertsonengandik eгина? Zergatik kostatzen da gorrotoaren larrigarria aitortzea? Gizarte heldutasun nahikoa dugu proposamen errestauratiboetarako?

Emozioak

- Entzumenerako eta proposatutako gaia tratatzeko motibazio handia.
- Gertutasun eta konfiantzazko giroa kontuzko gaiak ateratzeko.

Erreferentziak

- [María Rodó-Zárate: Interseccionalidad. Desigualdades, lugares y emociones. Ed. Bellaterra. 2021.](#)
- [Relief Maps, ikuspegi interseksionala duen gizarte-zientzietako ikerketarako tresna metodologikoa \(gaztelerez\).](#)



Sexu-hezkuntza integrala

Sozializazio prozesu LGBTI+foboak, matxistak, arrazistak, klasistak eta kapazitistak ematen diren testuinguru batetik abiatu gara. Nazioarteko agenda feministaren egungo erronka bati heldu diogu Sexuen Hezkuntza Integral egoki eta eraginkorra bilatzeko: Nola aurre egin erotika hegemonikoari? Periferiak askatasun eta eraldaketarako guneak al dira? Ba al ditugu beharrezko ezagutza, trebetasun eta gaitasun sozioafektiboak nork bere burua ezagutzeko eta adostasunezko harremanak izateko? Metodologia artistikoek ezagutza eta aldaketa esanguratsuak sortzen al dituzte? Zer erakusten digute Hegoaldeko bizipenek eta metodologiek?

Bazterretako erotika

- Eider Goiburu Moreno
- Mentxu Arrieta
- Elena Urko

Eider Goiburu Moreno

Feminista, pedagogian doktorea, gizarte psikologoa, sexu-hezitzailea, irakaslea, ikertzailea, formatzailea eta aholkularia sexu-heziketa, hezkidetza eta pedagogia feministen bueltan. Sexualitateak eta indarkeria matxisten prebentzioa landu ditu ikuspegi feministatik esku-hartze psikosozial, komunitario eta aholkularitza indibiduala eskainiz. Orain, esku-hartzearen eta arlo akademikoaren artean zubi lanak egiten ditu.

Hitzaldia

Erotika, desioa eta plazerarekin lotzen dut. Bakoitzak plazerarekin konektatzeko ditugun moduak direla esango nuke, etengabeko transformazioan dagoena, aldatzen doana.

Hezkuntzaren ikuspegitik, nik bi bide ikusten ditut **iruditegi erotikoak lantzeko**: sexu fantasien lanketa eta erreferentzialtasunaren eskaintza. Baina, zein leku dute fantasiek eta erotika anitzen erreferentzialtasunak sexu-heziketa programa edo ekimenetan? Ba oso gutxi.

Orain dela gutxi, sexualitate eta hezkidetzaren bueltan gauden eragile ezberdinak bildu ginen hausnarketa bat egiteko. Erdigunean jarritako gaiaz gain, gure esku-hartzetaz hitz egin genuen eta sentsazioak partekatu genituen. Sentsazio orokortuetako bat, "suhiltzaile" sentsazioa izan zen. Hau da, askotan egoera zehatz bati erantzuteko deitzen gaituzte-la eta lanketarako baldintza eskasak eskaintzen direla. Ez dago prozesuzko ikuspeirik, denbora gutxi eskaintzen da eta denbora gutxi horretan eduki zehatz batzuen lanketa lehenesten da. Eta noski, bazterreko erotikak ez daude eskaeren artean. Hortaz, zein leku dute bazterreko erotikak sexu-heziketa programetan? Ba oso bazterrekoa.

Gainera, garrantzitsua iruditzen zait aipatzea erotikak landu ahal izateko baldintza batzuk behar direla. Zehazki, pedagogia feministek proposatzen dituzten ezinbesteko baldintzak. Batetik, espazio seguruak sortu behar ditugu. Ez dut uste gaur egun ikasgela guztiak gorputz eta identitate guztientzako espazio seguruak direnik. Horrekin lotuta, garrantzitsua da interseksionalitateak kontuan hartzea. Hau da, ulertzea gure sistema patriarkal, kapitalista, arrazista, kapazitista, eta abar luzeak erotika batzuk zilegi moduan ulertzen dituela eta beste batzuk ez. Gure sistemaren begiradak zilegitasuna kentzen dien erotiketatik edan be-

har dugu. Eta guzti hau bete ahal izateko prozesuak behar ditugu. Baldintza hauek ez dira bakarrik sortzen, landu egiten dira.

Baldintza hauek ez badira betetzen, iruditegi sinbolikoa zabaltzeko dugun baliabide bakarra erreferentzialtasuna da. Erreferentzialtasuna ezinbestekoa da errealitate anitzei lekua emateko, bai mundu sinbolikoan bai mundu fisikoan. Baina garrantzitsua da ere bazterreko erotiken erreferenteak etengabe eskaintzea eta ez sexu-heziketa programen barruan bakarrik edo M17/E28aren bueltan. Horrela egiten badugu, erreferenteak salbuespen moduan aurkezten ditugu, ez dugu araua aldatzen. Beste errealitate bat dagoela esaten dugu baina ez dela ohikoa eta beraz ematen dugun mezua da ez dela egokia. Hortaz, garrantzitsua da hezkuntza (bai formal bai ez-formal) eremuetan bazterreko erotiken erreferenteak eskaintzea egunerokotasunean.

Jarraitzeko, niretzat **ezin da sexu-heziketa hezkidetzarik gabe ulertu** ezta hezkidetzaren sexualitateaz hitz egin gabe ere. Beraz, batak bestea derrigorrez. Baina gauza bat da nola ulertzen dugun guk sexu-heziketa eta hezkidetzaren eta beste bat da zein den dugun markoa batez ere hezkuntza-formalean. Hezkidetzaren plan edo programak irakurtzen baditugu, egia da ardatz garrantzitsu bat sexu-heziketa dela, baina praktikan hau ez da ematen. Eta orain sexu-heziketaz hitz egitean plazera, desioak, praktika sexualak... guzti honetaz ari naiz. Esango nuke, indarkeria matxisten identifikazioa eta hauei aurre egiteko estrategien lanketa dela ardatz nagusienetako bat eta sexualitate gaiak jorratzean, begi-

rada honetatik jorratzen dela. Hau da, onespina, pornografia, eta abar. Nik pertsonalki, indarkerien lan-ildoak jorratzea ezinbestekoa dela uste dut. Baina batak ez du bestea kentzen. Beharrezkoa da hegemonikotik at dauden erotikak lantzea sexualitate askeak bizi nahi baditugu.

Guzti hau, edukiei dagokionez. Baina niretzat garrantzitsua da ere hausnartzea **sexu-heziketa egiten dugunok, zer den irudikatzen duguna eta nola**. Eta honekin adierazi nahi dudana da gauza bat dela zein eduki lantzen ditugun eta beste bat zein mezu ematen dugun gure gorputzekin. Hau da, ez dut ezagutzen gure testuinguruan sexu-heziketa programak egitera joaten den ijitorik, ez dut ezagutzen itsua den sexu-hezitailerik. Eta honek nire pribilegioetan pentsatzera narama. Uste dudalako gorputz batzuk dugula denontzat sexu-heziketa egiteko aukera eta zilegitasuna eta beste gorputz batzuei ez zaie zilegitasun hori aitortzen.

Eta honekin lotuta eta batez ere haur eta gazteekin lan egiten dugunok adinkeriari buruz ere hausnartu beharko genukeela uste dut. Ikasturte honetan, unibertsitateko ikasle ziren gazte batzuekin egoteko aukera izan dut. Beraiek jasotako sexu-heziketari buruz hitz egin genuen. Gehienek sexu-heziketa saio batzuk izan zituztela esan zidaten baina bazeuden inoiz programa edo saiorik jaso ez zutenak. Hala ere, guztiek esan zidaten jasotakoa ez zela nahiko izan. Gainera, partaide batek oso esperientzia txarra izan zuela esan zidan. Izan zuen sexu-hezitzaileak, bere esperientzia eta identitatea epaitu zuela adierazi zidan. Hau ger-

tatzen da, hau da, hezitzaileen pribilegioen artean adina ere badago. Eta honen kontzientzia izatea ezinbestekoa iruditzen zait. Ez dugu haur eta nerabeen subjektu politiko izaera aitortzen. Helduok erabakitzen dugu zer den landu behar dena eta nola. Zein diren gai garrantzitsuak eta zein ez, noiz eta nola landu behar diren. Gure esku-hartzeetan entzute espazioak sortu behar ditugu, galdetu egin behar diegu, kritikak entzuteko eta horiengandik ikasteko prest egon behar gara. Gazteen bizitzaz gehienak dakitenak gazteak direlako.

Sexu-heziketan gorputzak duen lekua edo nola landu sexu-heziketa pedagogia feministetatik jorratzean, nire ustez orokorrean eta gure testuinguruan sexu-heziketak beti izan duela pedagogia feministekin lotura. Esate baterako, beti proposatu dira metodologia ludiko eta parte-hartzaileak. Baina azken urteetan pedagogia feministen gainean garatzen ari den marko teoriko guztiak askoz ere baliabide gehiago ematen dizkigu lanketa sakonak egiteko. Eta bide horretan gaude, baina pedagogia feministek ekartzen duten beste irizpide bat da ikaskuntza prozesuak eman ahal izateko pertsonak osotasunean irakurri behar ditugula, hau da, pertsonen alderdi fisikoak, kognitiboak, emozionalak eta sozialak kontuan izan behar dugula.

Uste dut, oraindik ere esku-hartze gehienak ikuspegi kognitibo baretatik diseinatzen ditugula. Hau da, batez ere ideietan eta diskurtsoetan oinarritzen garela. Eztabaidak proposatzen ditugula baina alderdi emozionalak eta gorputzak oraindik ere ez ditugula gure esku-hartzeen

erdigunean jartzen, nahiz eta gero eta esperientzia gehiago dauden. Gertatzen dena da, gorputzak lanketen erdigunean jartzeko baldintza batzuk eman behar direla. Burura datorkit hezkuntza ez-formalako adibide bat. Nerabe zerbitzu batetan hezitzaileekin hausnarketa prozesu baten barnean, adierazi zen bazeudela gazte batzuk gaztelekuan beraien genero identitatearen eraikuntzan eta eredu bitarretik kanpo kokatzen zirenak. Beraien genero adierazpenarekin esperimentatzen ari ziren eta horretarako, baliabideak eskatzen zizkieten hezitzaileei: makilajea, ispilua... ondorioa izan zen, “ze ondo gazte hauek espazio hau segurutzat jotzen dutela beraien identitate eta adierazpenekin esperimentatu ahal izateko” baina aldi berean, salbuespeneko tratua ematen zitzaizola adierazi zuten. Hau da, baliabide horiek gorde-ta zeuden eta jarrera ahaldundu eta aktibo bat eskatzen zuten gazteen aldetik esperientzia hau izateko. Hausnarketa baten ondoren, nerabe zerbitzuko hezitzaileek “gorputzen txoko” bat jartzea erabaki zuten. Hau da, txoko bat sortzea non segurtasun baldintzak ematen ziren gorputzarekin esperimentatzeko: bai makilajea, bai masajeak emateko olioak, arropa ezberdinak.... Baina kontuz, ez pentsa gorputzaren txoko bat jartzearekin bakarrik lanketa sakon bat egin daitekeenik. Nik gorputza erdigunean jartzen den esperientzia bat adierazi nahi nuen baina esperientzia hau askoz ere zabalagoa den lanketaren baitan kokatzen da.

Mentxu Arrieta

Kriminologian diplomaduna. EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuan Gizarte Psikologian doktoratua, EHUko Psikologia Fakultatean Elbarritasun fisikoari buruzko euskal gazteen jarrerak eta sinesmenak tesiarekin. Sexologiako masterra egin zuen INCISEXen, Alcalá de Henaresko Unibertsitatean. Clown aktorea, BAZEN BEHIN CLOWN taldeko kide. EL MÉTODO ARRIETA, Jorge Gil Munarriz zuzendariaren dokumentaleko koprotagonista.

Hitzaldia

Niretzat erotika da abentura pertsonal atsegina, bakarkakoa edo lagunartean. Bertan zentzumen guztiek parte har dezakete eta gorputzak desiragarriak dira, erabateko gozamenaren estasira iritsita. Pertsona bete-betean sentitzen da.

Eremu historikoan arreta jartzen badugu, dibertsitate funtzionala duten pertsonak estigmatizatutako gizataldea izan gara. Antzinate klasikoan, dibinitateak zigortzen zituen gorputz arrotzak bezala ikusten ziren. Ez genuen bizitza duin bat merezi eta komunitateetatik baztertzeko gintuzten. Dibinitatearen zigorra medikuntzak ordezkatu zuen, errehabilitazio-ahalegin batekin bitxikeriak markatutako gorputz horiek patologizatu ziren eta. Ondoren, gaixotasunetik talde arazo bezala ulertzeraz pasa zen, eta ez banakako arazo bezala.

2006an Espainian zehazki, gizarte-eredutik gizataldeak berak sortutako paradigma berri bat sortu zen. Vida Independiente y Diversidad Foroan zalantzan jartzen eta urardotzen hasi ziren normalaren eta arraroaren, gai eta ezgai izatearen binomioa.

Termino berri bat garatu zen gizartean normalizat jotzen diren gaitasun desberdinak dituzten pertsonak izendatzeko eta Dibertsitate Funtzionala duten pertsonen kontzeptua sortu zen. Kontzeptu horrek agerian jartzen ditu pertsonen gorputzaren desberdintasunak eta gaitasun desberdinak, zerbait positibo eta ez-baztertzailerik bezala. Hortik aurrera, atzean utzi nahi izan da aniztasun funtzionala duten pertsonak izendatzeko gutxiespen-hiztegia erabiltzeak markatutako iragana.

Kontzeptu horrek desgaitasunak dakarren estigma aldentzen joateko abantaila ematen du, ezaugarri negatibotzat hartzen baita, gaitasun desberdinak izateagatik beste pertsona bat baino gutxiago. Eta funtsezkoa da, hitzak gizarteko eta taldeko iruditerian sortzen diren ideia eta kontzeptuei lotuta baitaude. Azkenean, hitz batzuek, narrazio-tresna bezala erabilia, kulturalki onartutako balioak adierazten dituzte. Ideia eta balio horiek aldatu nahi baditugu, terminologia aldatu behar dugu.

Ez da bakarrik garrantzitsua izendatzeko modua aldatzea, baita ikus-terko modua ere. Ikus-entzunezko baliabideetan, dibertsitatea duen pertsonaren irudikapena urria izaten da, eta, gehienbat, modu este-reotipatuan eta errukitik azaltzen da. Horren aurrean, garrantzitsua da askotariko errealitateak ikusaraztea eta erakustea, erreferente desberdinak eskaintzeko eta horiek osatuko dituen imajinario kolektibo bat garatzeko; izan ere, irudikari narratiboa eraldatuz gero, iruditeria soziala eraldatzen hasiko da.

Dibertsitate funtzionala dugun pertsonak gizartetik baztertuak, ezeztatuak izan gara. Baina, batez ere, infantilizatuak izan gara. Infantilizazio horren ondorioz, pertsonaren, gorputzen eta desiren asexualizazioa gertatu da. Ez gara pertsona asexuatuak. Gorputz eta desira legitimoak ditugu. Plazererako, sexualiterako, desiratzeko eta desiratuak izateko eskubidea dugu.

Edertasuna, desira, gustatzeko gaitasuna adrenalina-txute bat da, gutxi batzuentzat egina, filtro hori ez baita guztientzat egina. Maitasunik merezi ez dugula sinetsarazten digute. Hori gure autokontzeptuaren eta autoestimuaeren eratzailerik garrantzitsu bihurtzen da eta gure konfiantza gelditzen edo goratzen du.

Gutxiengo batek du gizarte legitimitate nahikoa maitasunean, haragikerian eta desiran parte hartzeko zein gorputz diren eder eta baliozkoak erabakitzeko. Sinetsarazten digute gorputz lodiak, orbain eta ildoak dituztenak, trans gorputzak, dibertsitate funtzionala duten gorputzak, ez direla sistema zisheteropatriarkala, binario eta sexista honetan sartzen.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen sexualitatea ertzean mantendu da, bai eremu pribatuan, bai publikoan, bai familia-nukleoaren intimitatean, bai gizarte- eta hezkuntza-erakundeetan. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen asexuazioa aspalditik zapaltzen dituen sistema kapazitistaren euskarrietako bat da. Sexualitatea, desira eta plazera behingo kontutzat ezabatu edo murriztearekin, errazagoa da dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi-aukerak biziraupen hutsera mugatzea.

Esaten ez dena, erakusten ez dena, ezkutatu eta ukatu nahi dena, gizarteak zapaltzen eta kontrolatzen duena. Desira hori, sexualitate ukatu hori.

Izendatzen ez dena, definitzen ez dena, aditzen eta ulertzen ez dena. Gizarteko ordena arduratzen da beste gorputz horiek ertzen ertzetan gera daitezen zaintzeaz. Gure desioak, gure sexualitatea, gure generoa, gure gorputza, gure gizarte klasea kontrolatzen dituen ordena da.

Zenbait gauza **nabarmendu behar dira desgaitasunari eta plazer sexualerako eskubideari buruz.** Lehenengo, derrigorrezko gorputz-gaitasuna edo -osotasuna eta derrigorrezko heterosexualitatea elkar indartu dira, dibertsitate funtzionala duten pertsonen sexu-eskubideak eta -plazerak ukatzeko. Bigarren, nolabait bazterkeria horien ondorioz, dibertsitate funtzionala duten pertsonak zoragarriki berritzaileak izan dira, sexu-plazer aukera zabalarekin. Hau esateko modu bat da: «sexualitatearen ulertze menperatzaileetatik kanpo utziko bagaituzue, sexualitatearen ulertze menperatzaileagoak asmatuko ditugu». Hirugarren, sexu-eskubideak beste giza eskubide guztiak bezain garrantzitsuak direla esatea garrantzitsua dela uste dut. Batzuetan esan izan digute gure sexu-askatasunaren nahiak beste borroka batzuk baino garrantzitsu gutxiago dutela. Baina sexualitatea gizakiaren zati garrantzitsua eta funtsezkoa da. Sexu-askatasunak adierazten du asmatzeko, sortzeko eta erabat gizakia izateko eskubidea eta beste borroka batzuk bezain garrantzitsua da. Ez da bigarren mailako eskubidea, sinetsarazi diguten bezala.

Interseksionalitate-egoerek zenbait **aliantza eragin dituzte LGBTQI gizataldeko pertsonen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen artean.** Izan ere, biek dituzte esperientziak ertzetan eta nagusi diren gizarte-arauekiko loturan, hala nola derrigorrezko heterosexualitatea edo derrigorrezko gorputz-kapazitismoa. Ondorioz, natural edo normal bezala agerrarazten dituzte desioaren, gorputzen eta egin ditzakegun edo egin ezin ditugun gauzen adierazpen jakin batzuk.

Queer eta Crip teoria agertu zenetik, hauek gorputz eta desio forma desberdinen bidez piztu dira. Ustekozko ahuleziak indargune bezala irakurri dituen eta ezkutatu beharreko gai izan beharrean, harrotasunez nabarmentzeko alderdi antzeman dituen aktibismo baten bidez areagotu dira.

Ikuspegi interseksionalaren helburua ez da, besterik gabe nabarmentzea pertsona guztiak desberdintasunen gurutzatze horrek zeharkatzen dituela, ondasun eta baliabide gutxiago eskuratzeko aukera izanik. Baizik eta, argitzen saiatzen da testuinguru eta une jakin batean pertsona jakin batzuei eragiten dieten desberdintasun-mekanismo interseksionalak zein diren, hala nola, generoa, dibertsitate funtzionala, klasea, etnia...

Elena Urko

Gorputzasun disidenteen irudipenaren inguruan lan egiten du. Bartzelonako eszena postporno eta transfeministaren parte izan zen. Post-Op sortu zuenetako bat da. Gizatalde hori izan zen Espainiako estatuan praktika pornografiko disidenteen inguruan lan egiten hasi zen lehen taldeetako bat, gorputzak, sexualitateak eta praktika ez normatiboak ikusaraztearen bidez. Elena Urkoren ibilbidean performanceak, tailerrak eta instalazioak, hitzaldiak, bideosormena eta zuzeneko ekintza daude. Nabarmentzeko da disidentzia sexualari lotutako sexualitate eta dibertsitate funtzionalari buruzko gaietan oinarrituta sortu duena. Gaur egun uztartzen ditu helduekin egiten duen lana BDSM eskolan eta zentzumen-laborategietan eta ikasgeletako sexu-hezitzaile lana.

Hitzaldia

Erotikaren kontzeptua ulertzen edo definitzen dudan moduari dagokionez, erotikoa eta pornografikoa denak zerikusia du irudi bat, testu bat, usain bat edo egoera bat izan daitekeen estimulu batekin. Gure gorputzean ustekabeko plazer/kitzikatze erreakzioa eragiten duen elkartzeko batekin¹.

Gorputzasun edo sexualitate disidenteen erotika taldeko iruditeria hegemonikoetan, historikoki, nazkagarri, doilor, erakutsi behar ez dena bezala ikusiak izan gara. Ez gintuzten erakusten edo sexualitate gaizto eta desbideratua zuten subjektu bezala erakusten gintuzten. Ez-desiragarritzat edo iseka eta barregarrikeriatzat hartzen gintuzten.

Hori argi eta garbi ikusten da ikus-entzunezko irudietan. Ez du zerikusirik duela 20 urteko pornoan nola ikusarazten ziren emakume transak, dibertsitate funtzionalak dituzten pertsonak eta gaur egun nola erakusten duten bere burua. Baita duela 20 urte ere gutxiengo zen gizon trans, pertsona E/b edo *bollera buch*-en sexualitatearen irudikapena, eta are gutxiago haiek lehen pertsonan egina.

Urteak behar izan dira gure irudikapenaren agintea hartzeko, gure gorputzak eta praktikak desiragarri bezala ikusarazteko.

Ikus-entzunezko edukien sortzaile moduan (pornografia eta beste batzuk) erantzukizun handia dugu. Guk erabakitzen dugu zer eta nor erakutsi nahi dugun eta nor uzten dugun kanpoan. Baita praktika jakin

batzuei zer zilegitasun ematen diegun ere sexu-praktika desiragarri bezala ikusarazteko, beste praktika batzuk kanpoan utzita².

Nabarmentzeko da nerabeek pornoa erabiltzeari buruzko alarmismoa. Nerabeek pornografia erabiltzen dute masturbatzeko eta baita jakin-mina asetzeko eta tresna pedagogiko moduan ere.

Haien bizitza sexuarean eragina izateak kezkatzen bagaitu, tresnak eman diezaiegun eduki hori kritikoki aztertze eta pertsona guztien gozameneari eta desioan oinarritutako bizitza sexuala ziurtatzeko.

Eta ez hori bakarrik, eman diezaiegun espezialistek egindako baliabideak jakin-mina ase dezaten, askotan industria pornografikoko pertsonak ere material hezitzailea sortzen ari dira. Pornoaren mundutik ateratzen den guztia ez da kaltegarria, jende asko dago postpornoaren, porno queer/feministaren eta abarren barruan, eta estereotipoak eten eta praktika eta gorputzasun anitzak erakutsiko dizkigun produktu bat eskaintzearen alde egiten ari dira.

Eta hori, gazteentzat ez ezik, helduek ere izan dezakegu sexuaz ulertzen dugunari buruzko oso ikuspegi mugatua. Zer sexu-heziketa mota jakinaraziko dugu, gure sexu-harremanetan komunikazio-tresna nahikoak ez baditugu ere askotan gure nahiak eta mugak hitzez adierazteko, eta ez bagara prozesu hori desiraren jolasaren parte bezala ikusteko gai?

Arazoa ez da nerabeek porno mota jakin bat kontsumitzea, baizik eta sexu-heziketarik ez izatea. Sexualitateari buruzko funtsezko ezagutzak

ematen badizkiegu, hau da, norberaren plazerarekin eta besteenarekin konektatzeko desioa, adostasuna eta komunikazio ona, behar beste tresna izango dituzte bizitza sexual osoaz gozatzeko.

Iruditeria hegemonikoak lantzeko, beharrezkoa da beste iruditeria batzuekin aurre egitea. Ez bazaizu nola irudikatzen zaituzten gustatzen, sor dezagun diskurtso alternatibo bat, har ditzagun ekoizpen-bideak eta sareak, eta espazio horiek gainezka jarri ditzagun, gure gorputzaren, gure jardunbideei buruz modu desiragarri eta ahalduntzailean hitz eginda. Topatzeko eta aliantzak osatzeko aukerak sor ditzagun gorputzeko normaltasun-parametro jakin batzuetan sartzen ez garen pertsonen artean, gure genero-adierazpenagatik, gure sexuagatik, gure desioengatik edo bizi garen gizarte kapazitista honek ezgai bezala ulertzen dituen gorputzekin lotutako gaiengatik. Entzuteko eta esperimentatzeko espazio hauek balio digute, hitzetik eta baita gorputzen plazeretik ere, gure berezitasunak pozteko eta ez huts egiteko arrazoi bezala ulertzeko.

Ikusarazteko, sentibilizatzeko edo hezteko aberasgarri izan daitezkeen baliabide pedagogikoei dagokionez, garrantzitsua da gure ikastetxeetan erreferentzia izatea, disidentzia sexuala osatzen dugun pertsonak bagara, gure testuinguruak nor garen ikusarazteko aukera ematen digun neurrian. Gure gaietan normatik kanpo dauden eta erreferentzia positiboak diren pertsonaiak ikusaraztea, dramaren narratibatik ateratzea. Disidentzia poztasunetik eta askatasunetik lotzea eta ez problematikotik edo dramatik.

¹ Kongresuko audioetan areagotzen da.

² Informazio gehiago jardunaldietako audioetan.

Partekatutakoa

Parte-hartzaileen galderak

• Hezkuntzari buruzko lege berria idazterakoan, Sexu Hezkuntza Integrala (SHI) azpimarratzen saiatu dira?

Legeak ezartzen du hezkidetzaren bizikidetzaren onaren helburuarekin lan egiteko beharrezko ardatz garrantzitsua dela. Era berean, SHI Hezkidetzaren planaren barruan kokatzen da. Hala ere, plan hori indarkeria matxistaren prebentzioari edo tratamenduari buruzkoa da batez ere. Horrek esan nahi du hortik proposatzen dela SHI neurri handi batean eta aler-tari erantzuteko. Horregatik, ez dira abordatze erotikoa sortzen.

• Nola landu erotika?

Irakasleen berezko gaitasunei eta iruditeriari buruzko lan-prozesuen beharra ohartu da, sexualitatearen bizipenari eta interseksionalitatearen praktikari buruzko hausnarketa intimoa, SHI nondik lantzen den jakiteko.

Borondate politikoa behar da prestatutako eta dedikazio-aukera duten pertsonen lan egin dezaten. Kredituak, orduak eta prestakuntza dituzten neurriak zehaztea. Ikasleekiko gune konfidentzialak barne hartzen dituzten prozesu luzeak ahalbidetzea.

Ez arreta hezkuntza formalean bakarrik jartzea. Izan ere, hezkuntza ez-formalak esku-hartze mota horretarako aukerak eskaintzen ditu, hain egituratuta ez dauden formatuak dituelako.

Erronkak

- Sexualitate periferikoei edo gorputz- eta sexu-disidentziei buruzko talde iruditeriak gainditzea. Hegemoniaren zilegitasuna haustea haragikerian, desiran, plazerean eta edertasunean nork parte har dezakeen erabakitzeko.
 - Iruditeriak eta praktikak zabalduko dituzten edukiak sortzea sortzaile moduan, gorputz periferikoak lehen pertsonan ikusarazteko. Baita eta batez ere, euskaraz.
 - Hezitzaile moduan, gorputz eta erotika ereduaren erreferentziak ekartzea, periferietatik positiboan eraikita.
- Gazteen porno-kontsumoari buruzko alerta-giroa gainditzea. Osasunetik eta prebentziotik arazoei erantzuteko lan batetik, erotikari eta fantasia sexualei buruzko lan batera igarotzea.
- Hezitzaileen adultismoa gainditzea, adingabeak gaitasunak, eskubideak eta ezagutza duten subjektu bezala aitortuta.

Tentsioak eta eztabaidak

EAEko III. Hezkidetzaren Plana, zer eragin-tarte dute eremu horretako tokiko gizarte- eta hezkuntza-eragile eraginkorrek?

Emozioak

Sexu-hezkuntza integralari dagokionez, tokiko testuinguruan krisi-une eta eraldaketa-aukera garrantzitsu batean gaudelako susmoa. Ikusmina eta ilusioa, sinergiak sortzen eta aukerak zabaltzen ari direlako periferietako erotiketatik, postpornotik eta pedagogia feministetatik.

Erreferentziak

Eider Goiburuk eskaini ditu

Nik euskaraz ditugun baliabide pedagogikoetan pentsatzen dut. Eta egia esan ez daude asko. Burura etortzen zaizkidan bi baliabide zehatz dira, batetik [Zinegoakek](#) eskaintzen dizkigun laburmetraia eta filmak eta bestetik Euskadiko Gazteria Kontseiluak ateratako [“Sexualitatearen Koloreak”](#) gida. Baina orokorrean, euskaratik baliabideak sortzeko beharra ikusten dut. Irudimena erabili behar dugu. Sexu-heziketari buruzko hainbat gida daude, batez ere hezkuntza-formalari zuzenduta baina ez dut uste zehazki bazterreko erotikak lantzen direnik.

Nik, euskarazko materialetan pentsatzen dudanean ez diot arreta hizkuntzari bakarrik jartzen, testuinguruari ere jartzen diot. Hau da, euskaratik sortzeak euskal kultura, balio, ikuspegi, espazio, harremanak izateko modu... hartzen ditu barne nire ikuspegitik. Horregatik iruditzen zait Zinegoakek eskaintzen duena oso baliotsua dela. Euskal komunitatea identifikatu daitekeen errealitateak ekartzen dituelako.

Mentxu Arrietak eskaini ditu

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen sexualitatea lantzen dugunean hainbat alderdi bereizgarri hartu behar dira kontuan. Honako hauek nabarmentzen dira:

- Informazioa: informazio gutxiago dute, sexualitateari buruz pertsona gutxiagok hitz egiten dietelako eta aniztasun funtzionala duten pertsonen sexualitatearen gizarte-eredu gutxiago. Oso garrantzitsua da adostasunaren eta adostasunik ezaren gaia argi uztea.

- **Norberaren garapena:** askotan ez da pertsonak beren erabakiak hartzea onartzen. Horregatik, batzuetan sentitzen dira ez desiragarri, ez maitatu eta horrek nolabaiteko bakardade emozionala eta autoestimu baxua eragiten ditu. Beste batzuegandik, normalean legezko tutore, familia edo erakundeetako profesionalengandik jasotzen duten gehiegizko babesak ere eragina izan dezake.
- **Gizarte-garapena:** batzuetan ez dute gizarte-sare sendo eta zabalik izaten eta horrek gizartean nolabaiteko bakardadea sortzen du. Askotan, harremanetarako gizarte-trebetasun falta dago edo ez dute harremanetarako espaziorik.
- **Sexualitatea:** intimitate espazioak sortzeko beharra dago, bakardade sensoriala eta plazer falta gutxitzeko. Beste heldu batzuek errespetu falta diote norberaren gorputzari eta intimitateari. Garrantzitsua da sexualitatea askatasunez eta adostasunez adierazteko eta gozatzeko behar dituzten sostenguak eskaintzea. Funtsezkoa da orientazio sexuala edo genero-identitatea askatasunez adierazi ahal izatea.

Autoerotikaren kontzeptua gehitu beharko diogu aurreko guztiari. Autoerotika norberaren gorputza eta plazerak esploratzeko bide moduan, unerik onena non eta noiz den ikasita, esplorazio liberako intimitate- eta segurtasun-espazioak eskainita. Jakiteko zer gustatzen zaigun eta zer ez, intimitate-une hori partekatu nahi dugun pertsonak edo pertsonak zer egitea gustatzen zaigun eta zer ez.

Elenak/Urkok eskaini ditu

Gazteentzako baliabide zehatzak (Sida Studiren Sexualitats programa):

- [Bye bye drama: nerabeek diseinatutako jokoa. Dramarik gabeko zaintza eta erlazio sexu-afektiboetarako buruzkoa.](#)
- [Plazeraren kit-a: gazteentzako sexualitateari buruzko bloga, galdera eta erantzunekin.](#)
- [Ikasgelan lantzeko sexualitateari buruzko bideoak.](#)
- [Ikasgelan lantzeko dinamikak.](#)
- [Gazteentzako sexu-heziketari buruzko informazio gehiago.](#)

Sexus: [Sex- Tresna-kutxa](#)


Cure iruditeria zabaltzea garrantzitsua da. Batzuetan zaila da ikusten ez dena desiratzea. Beraz, porno kontsumitzaileak bagara, porno etikoko web-orrietara sartzeaz gain, queer/feminista/sex positive ikuspegia dutenak izan daitezela ere. Sexuaz uste duguna eta desiragarritzat hartzen duguna zabalduko dutenak. **Helduentzako baliabideak.**

Pornoa:

- [X O Sex School Hub](#)
- [crash pad series](#), [four chambers](#), [Aorta films](#), [Virar films](#), [queerporn.tv](#)
- [Porno queer-crip alianzas tullidotrasmarikabollos:](#) (pasahitza: feminismopornopunk)

Postpornoari, BDSMari, tallerrei eta bestelakoei buruzko informazio gehiago:

- www.elenaurkopostop.com
- elenaurkopostop@gmail.com



Arte hezkidetzaila

- Oriana Sujey Ortiz
- Oihan Martirena
- Ana Revuelta e Irati Saijo

Oriana Sujey Ortiz (Imaginá - Arte terapia)

Gizarte-hezitzailea, Erdialdeko Amerikako landatasuna nabarmentzen duena, artista eta arte-terapeuta. Aditua da gaitasunak indartzeko, antolatze eta garapen soziokulturalerako tresna ludikoak, artistikoak eta pedagogikoak diseinatzen. Gaur egun, emakume migratzaileen kontrako indarkeria prebenitzeko arlo psikosozialean eta unibertsitateko irakasle lanetan ari da.

Hitzaldia

Lehenengo, **Sexu Hezkuntza Integrala metodologia sortzaile edo artistikoen bidez nola landu daitekeen** erakusten duen esperientzia bat aurkeztu nuen. Proposamena arte-terapiako ariketa bat zen. Gure gorputzaren egoera ezagutzearekin hasi zen eta txaloka agurtu genuen, eragile moduan esker ona hartuta. Ondoren, gehien gustatu zitzaigun koloreko orri batean, gure gorputzaren silueta marraztu eta hor idatzi genuen miatu nahi ditugun plazererako tokiak. Azkenik, paperezko hegazkin bat eraiki genuen eta taldean bota genituen plazera eskertzeko arrazoï gehiago izango genituelakoan. Tarte bat eman zitzaien eskerrak ozenki eman nahi zituztenei.

Hezkuntzan/hezkidetzan horrelako esperientziak edo baliabideak modu positiboan/estrategikoan/gomendagarrian erabiltzeari dagokionez, artea eta arte-terapia parte-hartzaileei gorputzaren eta bizitza historiatik gerturatzeko aukera ematen dieten hizkuntzak dira. Topagune bat eraikitzen dute eta defentsak eta segurtasunik ezak "jaitsi" egiten dira. Hau jolas egoeren antzekoa da, partekatutakoak edo azaldutakoak errealitate zehatzean eraginik ez duela pentsatzen da, "ez da ondoriorik izango gizartean dudaren eginkizunean" eta egia da neurri batean, esku-hartzea unibertso sinbolikoan egiten baita. Baina, argi eta garbi, barnekoan murgiltze horrek kanpoan adieraziko da.

Aurrekoaz gain, giza lanaz ari garenean, gizarte-justizia moduan aboratzeko psikosoziala ezinbestekoa da. Giza lanean parte-hartzaileek ahultasun egoera ugari bizi dituztelako edo, egiturazko indarkeriaren ondorioz, bizi-proiektuaren proiektzioa etengabe gutxiagotu zaielako (emakumeen edo norberaren gorputza aniztasunetik hartzen dituztenen kasuetan gertatzen den bezala).

Alderdi intelektualetik bakarrik gerturatuz gero, herritar horiek frustrazioaren eta biktimizazioaren eraginpean jar ditzakegu, beren burua zaintzeko eta autonomiarako tresnarik ez izatearen ondorio moduan. Ez baitago bizi-parametro berrietara igarotzeko baldintza egokien oinarriak, beren eskubideen defentsan, gizarte parte-hartzean eta osotasunaren eta askatasunaren bilatzean.

Aurkeztutako proposamenaren arrakastei dagokienez, pertsonak konfiantzazko toki batean sentitzen badira, normalean esperientziara irekitzen dira, norberaren erritmo eta bulkadetatik. Gainera, gozamenetik batzeko aukera ematen die. Jendaurrean hitz egitea zaila egiten zaien pertsona batzuentzat, **gorputzaren lanak askatasun handiagoz adierazteko aukera emango die**.

Aurkeztutako proposamenaren zailtasunak edo erronkak dira gehienetan ez dagoela horrelako jardueretarako denborarik edo baldintzarik, nahiz eta hainbat banakako eta gizarteko giza premien asebetetze sinergikoetan erabiltzen diren. Beraz, erronka da espazioak irekitzea eta erabakiak hartzen dituzten pertsonen aurrean baliozkotzea.

Oihan Martirena (Aise - Arte eszenikoak)

Gaur egun, talde prozesuen bideratzaile da AISE kooperatibaren, gizarte eragileen formazioan, gatazken eraldaketan eta hezkidetzaren prozesuetan aritua. Bere ibilbidean zehar antzerki pedagogiak eta, bereziki, Zapalduon Antzerkian oinarritutako metodologiak erabili izan ditu eraldaketa prozesuetan haur eta nerabeen protagonismoa bultzatzeko. Urteetan zehar Mugimundu Antzerki Taldearen eskutik Antzerki Foroaren bitartez ikastetxeetan elkarriketa esanguratsuek sustatzeko espazioak sortu eta dinamizatuz ikasi du. Horrekin batera Ikertzerekin Begirada Kontzientek hezkidetzaren programan aritu da antzerkia eta bestelako arteak erabiliz.

Hitzaldia

Augusto Boalek zioen bezala: "Edozein tokitan egin daiteke antzerkia, baita antzokietan ere. Edozeinek egin dezake antzerkia, baita antzezleek ere". Honi gehituko nioke, baita ikastetxeetan ere, baita ikasle eta irakasleek ere.

Ikuspegi honek arte eszenikoei buruz beste begirada bat eskaintzen digu: **Antzerkia oinarritzko giza jarduerak da**, geure buruak ulertu eta adierazteko, eta mundua hautematen laguntzeko laborategi bezala bizi dezakeguna. Izan ere, "antzerkia geure buruak eta ekintzak kanpotik ikusteko denok dugun giza gaitasuna da" eta modu honetan, geure ro-

lak, baita genero rola, modu kontzientean nola jokatzeko ditugun behatu, eztabaidatu, ulertu eta aldatzeko aukera ematen digu. Freirek zioen moduan esanahiak deskodifikatu eta berriz kodifikatzean ematen den jabeakunza prozesua gauzatzeko bide praktikoa, eraginkor eta ludikoa eskainiz. Ez gabiltza erantzun zuzenaren bila, galdera egokiak bilatzen baizik, zentzu honetan Zapalduon Antzerkian oinarritutako metodologiak, galderaren pedagogiak dira.

Antzerkiaren bitartez, bestelako arte eta ariketa estetikoetan gerta daitezkeen moduan, **gorputzak jartzen ditugu jardueraren erdigunean**, modu honetan geure emozioekin eta ingurukoekin konexioa ahalbidetuz. Gorputza, jolasa, sormena, ekintza eta errituala dira antzerkiaren funtsak. Jolasak, adostutako arau batzuen baitan askatasunez harremanak izateko eta orainean kokatzeko bidea irekitzen digu. Sormenerako eta elkarrizketa ekintzaren lengoaiaren bitartez gauzatzeko giro aproposa sortzen laguntzen du horrek, partekatutako erritual baten testuinguruan. Erritual bezala, artea, *“jendartea sendatzen den lekua”* dela esan dezakegu, bertan gertatzen dena esanguratsua den neurrian.

Honelako **esperientzia eta metodologiak praktikara eramateko orduan**, eraldatzaileak diren beste jarduerekin gertatzen den moduan, egiturazko zenbait zailtasun aurkitu ohi ditugu. Metodologia hauek oinarritutako esku hartze batek eragina izan dezan prozesuak zaindu behar ditugu, eta horrek denbora, espazio eta energiaren aldetik baliabideak eta konpromezua eskaintzea eskatzen du. Proiektuaren diseinuan, helburuen barneraketan, rolen kontzientzian, eragilearen arteko harremanetan, ikasleen protagonismoan,... maitasunez eta mimoekin eginez, egiten dugun horren benetako garrantziarekin konprometituz soilik lortu daitezke benetan eraldatzaileak diren prozesuak.

Ana Revuelta e Irati Saijo (Artaziak - Tabakalera Hezkuntza)

Tabakalerako (Donostiako arte garaikidearen nazioarte zentroa) hezkuntza taldeko kideak gara eta hemengo proiektu pedagogikoa garatzen daramatzagu 10 urte. Horrek, praktika artistiko garaikideen eremuan kokatzen gaitu. Gure esperientziatik abiatuta, ekoizpen artistikoak begiratzeko modu bat eta Soka-saltoan deitzen diogun performance lantegiaz hitz egin dugu kongresuan. Azken hau, ikastetxe eta elkarteentzako praktika artistiko ezberdinekin esperimentatzeko helburuarekin eskaintzen ditugun lantegietako bat da.

Hitzaldia

Artea ulertzeko paradigmatari dagokionez, gure esperientzia eta praktiketan bizitaketatik jendartean arteari eta artistari lotutako ikuspegi estereotipatu eta mugatzailea dagoela antzematen dugu. Sinesmen hegemoniko hauen ondorioz, bi fenomeno ematen dira: Lehenengoa, *artista genioaren mitoari* lotutako pentsaera da. Gaitasun bereziak dituen pertsona bezala ikusten da artista, zerbait birtuoso duena. Mito horren arabera, artistak barneko indar batek bultzatuta sortzen du, jendartean dauden problematiketatik kanpo dago eta jendartea orokorrean ez da “gai” ulertzeko barruan duen sen hori. Ondorioz, artearekiko ulermena honela ezaugarrituko litzateke: zerbait birtuoso, emozio intentsoen emaitza, azken helburu bezala edertasunaren bilaketa duena eta garatu edo ulertzeko zaila dena. Bigarren fenomeno, eskola testuinguruan arte hezkuntzaren edo heziketa artistikoaren ulermena zein den litzateke. Ezaugarri hauekin definitu genezake: apaingarriak, eskulanak, denbora pasa, espezializaziorik behar ez duena, ebaluatzeko

zailtasunak... Sarri “benetako ikasketa”ren amaieran txertatzen den zerbait izaten da, eta garrantzi handirik gabekoa.

Iruditzen zaigu bi ikuspegi hauek mugatzaileak direla eta etengabe erreproduzitzen dituztela kajoi eta emaitza berdina. Gainera, ikuspegi hezitzailetik, ez digu balio arte praktikak lanerako tresna bezala ulertzeko. Ez du aukerarik ematen ikasi eta landu daitezkeen zerbait bezala ulertzeko edota garrantzitsua den diziplina eta ezagutza eremutat hartzeko.

Iturri ezberdinak erreferente izanda (pedagogia kritikoak, konstruktibismoa, ikasketa kulturak...) ekoizpen artistikoei beste leku batetik begiratzeko saiateren gara eta artea ekoizpen soziala dela eta subjektibotasunetik abiatzen dela ulertzen dugu. Erabateko lotura du testuinguruarekin, hau da, “situatua” da eta ez unibertuala. Honenbestez, ekoizpen artistikoak artefaktu polisemikoak dira eta esanahi asko izan ditzakete; bakoitzaren begiradatik eraikitzen dira esanahiak. Gainera, arteak, ezagutza sortzeko prozesuak izan daitezke ikertzeko eta ezagutza eraikitzeko metodologia edo iturri bezala ulertzen baditugu. Horretarako status hori aitortu behar zaie ezagutzen artean dagoen hierarkia irauliz.

Paradigma hau pedagogia feministetara ekartzen badugu, esan dezakegu ekoizpen artistikoak, gorputza eta identitatea bezala, ekoizpen sozialak direla. Ez dira inspirazioaren emaitza soil bat, sortzean zein interpretazio prozesuan jendartean dauden sinesmen, balio, botere harreman eta abarrek operatzen dute.

Praktika artistiko garaikideak pedagogia feministetan interesgarriak dira bi arrazoi azpimarragarrietatik. Lehenengoa, gure gorputz eta izaerak eraikitzerakoan ekoizpen eta praktika artistikoak inspirazio eta ideia iturri izan daitezke. Bigarrena, ezagutza sortzeko metodologia edo itu-

rri bezala ulertzen baditugu, begirada kritikoa garatzeko lan tresna izan daitezke hezkuntza testuinguruetan; errealitatearen azterketak egiteko, errealitatea zalantzan jartzeko, hausnarketarako, eztabaidarako...

Horregatik, hezitzaile feminista bezala, praktika artistikoak geureganatu, baliatu eta aktibatu ditzakegula diogu. Hala ere, tentuz ibili behar gara, erraza baita gure arreta artistaren intentzionalitate bakarrak mugatzea. Artefaktuarekin harremanetan jartzen garenean honako galderak egin diezazkiokegu geure buruei: *Artelan honek nola laguntzen digu zerbait berrikusten interpelatzen gaituen subjektu edo kolektibo bezala? Nola aktibatzen gaitu esperimentazio prozesu bat irekitzeko?*

Orain arte azaldutakoa praktikara eraman eta adibide bat emateko asmoz Soka-saltoan performance lantegia ekarri nahi izan dugu. Ikastetxe eta bestelako hezkuntza testuinguruetan egingarria izateaz gain, sexuen hezkuntzaz ari garen honetan, esanguratsua den jolas bat da.

Has gaitezen *performancea* edo *ekintza artearen* ideia orokor batzuk aipatetik: *Performancea* diziplina artistiko bat da, artelanak ekoizteko modu bat alegia. Artearen objektualtasunarekin apurtzen du, diziplina honetan ekoizpen artistikoak ez du beharrik objektua den zerbait izateko, ekintza bat izan daiteke. Honek artistaren nozioa aldatzen du; artelanaren egilea izatetik, artelanaren parte izatera pasatzen baita (artistak egiten duen ekintza). Beraz, diziplina honetan gorputza da ekoizpen artistikoaren euskarria: Gorputzean bizi eta esperimentatzen da eta gorputza bera da tresna eta “ekoizpena”.

Soka-salto performance lantegia azaltzeko ezinbestean *performan- ce-a* soka-saltoarekin zergatik lotu dugun argitzea behar da. Aurreko lerroetan artea ulertzeko paradigma ezberdinez hitz egin dugu, hauen

arteko talkarekin jardutea egunerokoa da gurean eta etengabe ari gara talka horrekin nola lan egin pentsatzen eta proba ezberdinetan erantzunak bilatzen. Sarri gertatu izan zaigu lantegia jasotzera datozenen espektatibak ez asetzea edota elkar blokeatzeko jarrerak hartzea. Honen aurrean, elkarrizketarako eta elkarren ikuspegiak elikatzeke aukerak sortzen saiatu nahi dugu. Horregatik, azkenaldian apustu egin dugu lantegiaren abiapuntua denontzako ezaguna den ekintza batean konkretatzen; kasu honetan *Soka saltoa*. Ezaguna zaigun ekintza bat izateak denok lantegia egiteko oinarri edo abiapuntu berean kokatzen gaitu. Parte hartzaile guztiok sokan saltoka hasten dugu lantegia eta soka saltoko jolas edo abestiak aktibatzea sustatzen dugu. Ezaguna den lekuan kokatzeak ezezagunak sortzen duen noraez sentsazioa baretu egiten duela uste dugu eta irekita uzten du elkarrizketak aktibatzeke aukera.

Soka-saltoan gailentzen den elementuetako bat errepikapena da. Errepikatzen den ekintza bat da (sokari eragitea eta salto egitea). Sokak lurra- ren kontra egiten duen soinu erritmikoa errepikapena da. Soka-saltoko abestiak errepikatzen diren hitz eta egiturek osatzen dituzte. Gorputza errepikatzen diren mugimenduetan inplikatzeko du, izan sokari eragitean zein sokan saltoka ari garenean. Errepikapenaren ideiatik tiraka, gure eguneroko bizitzan zein leku duen eta nola operatzen duen hausnartzen dugu. Bestalde, esanguratsuak dira soka-saltoko jolas eta abestiak. Errepikatutako abestien bidez, *mantra* bat balitz bezala edukiari erreparatu gabe, entzunez eta erreproduzitzen barneratzen baititugu modu ia inkontzientean hegemonia sortzen duten mezu, balore eta sinesmenak. Zentzu honetan, soka-saltoko abestiak belaunaldiz belaunaldiko tramsmisioaren testigantza argiak dira.

Orain arte aipatutako elementuek aukera ematen digute *performance*-rekin alderaketa egiteko eta antzeko ezaugarriak dituzten artista ezber-

dinen proposamenak ikusi, aztertu eta geureganatzeko. Baina, zein izan daiteken guzti honek pedagogia feministei egin diezaieketen ekarpena?

*Performance*ari praktika artistiko bezala begiratzen badiogu, ekoizpen artistikoan gorputzak hartzen duen lekua aipatu dezakegu. Presentzia honek gorputzen eta identitateen inguruko bizipen, lekualdatze zein zalantzarako aukerak sortzen ditu. Horregatik, ez da kasualitatea diziplina honek historikoki mugimendu feministarekin izan duen lotura.

Lantegiaren abiapuntua den soka-salto ekintzari begira jartzen bagara ere interesgarriak izan daitezken lekualdatzeak planteatzen dituela esan dezakegu. Soka-saltoa taldean jolasten da, bestearen beharra dugu. Talde jolasa izanagatik ere, bazterreko jolasa da; espazialki bazterrekoa, futbolararen ordezkia. Beraz, gutxietsia, ez behar besteko garrantzitsua eta ez behar besteko dibertigarria. Baina, lantegiak beste leku bat ematen dio, denok sokan saltatzean datzalako. Ekintza disruptibo bezala ulertu dezakegu; “dagokion” bazterreko lekutik mugitu eta erdigunerago dagoen beste leku bat ematen zaiolako. Hau *performance* praktiketan ematen den estrategia bat ere bada; ekintza bat testuinguruz aldatzean esanahi berriak sortzen dira. Lekualdatze honek erresistentzia eta deserosotasun ezberdinak aktibatzen ditu. Izan ere, talde guztiaren egiteko nagusia soka-saltoan aritzea izateak boterea lekuz aldatzea eragiten du; normalean leku pribilegiatu eta komodoan daudenak (futboleko onak izan ohi diren mutilak) ez diote bere buruari sokan jolastea permititzen edo ez dira behar besteko trebeak ez baitute aurretik jolastu.

Azkenik, soka-saltoko jolas eta abestiak aipatu ditzakegu. Hauek denboraren distantziarekin beste era batera ulertzen direnez, aspaldi ikasita ditugun abestietan arreta jartzea sustatzen dugu. Kontzientzia hartu, aztertu eta zalantzan jartzen ditugu lantegiaren amaieran esanahi berriak sortu eta barneratuta ditugun abesti eta jolasak hackeatzeko.

Partekatutakoa

Parte-hartzaileen galderak

Parte-hartzaileei galdetu zaienean ea ozen esan nahi duten “gorputzeke zein atali eskertzen dioten zer bait”, burua, sabela, hankak... bezalako erantzunak ematen dituzte.

- Parte-hartzaileei galdetu zaienean antzerkia zein hitzekin lotzen den, gorputzak/lotsa gutxi/eszenatokia/gidoia... bezalako erantzunak ematen dituzte.
- Parte-hartzaileekin antzerki foroan ikusi dutena aztertzen denean, iruzkin hauek egiten dituzte: desberdintasuna, pertsona normatiboa dena moldatzen saiatzea, ahots disidenteak.
- Parte-hartzaileei galdetu zaienean, nola ematen diogu protagonistari historia aldatzeko behar duen laguntza? Publikotik norbaitek esaten du: “jende gehiago batu daitezela”. Oihanek boluntarioak eskatu ditu, baina ez da inor ateratzen. Oihanek berriro galdetu du: “zer egin dezakegu?” Esaten dute: abestu, musika jarri... Azkenean boluntario bat ateratzen da, dantzari lanak ere egiten dituen.

Emozioak

Saioan zehar emozio nagusia jakin-mina izan da. Parte-hartzaileek baieztatu, irribarre egin eta dinamiketan parte hartzen zuten (hasierako lotsa pixka batekin). Pixka bat kostatu zaie irekitzea eta erlaxatzea, urduri baitzeuden boluntarioak edo iritzia eskatzen zitzaizenean. Giroa lasaitzen joan zen eta ikusleek txalo jo zuten saioaren amaieran.

Erronkak

- Gizarteko iruditerian eragiten duen artistei buruzko (gizonak, bertutetsuak, “arraroak”...) arau-paradigma gainditzea.
- Eskolako curriculumean arteari garrantzi handiagoa ematea. Hondar eta osagarri bezala tratatzeari uztea.
- Artea gizarte-kritikarako baliagarria den gizarteko “ekoizle” bezala onartzea.
- Hezkuntzan (arautua) artea eta artelan artistikoak beste modu batean ikas daitezke, ez artisten datuak buruz ikastea bezala. Bizipenetik eta esperimenez ikas daitezke, ez derrigorrez objektu edo material bat sortuta, performance bat ere izan daiteke.
- Artea eta sorkuntza “leku seguru” bezala onartzea. Bertatik landu ahal izateko bizi-esperientzia asko, gaitasunak, trebetasunak, blokeoak...
- Artea eta kultura “oinarriko beharizan” bezala aldarrikatzea, autonomia, askatasuna eta errespetua lortzen laguntzen baitu. Tradizionalki “oinarriko behar” bezala (elikagaia, etxebizitza, babesak...) hartu izan denetik harago.

Erreferentziak

- **Itziar Okarizen "Orinar en espacios públicos"** obra, gizarteko kritika moduan.
- **"Soka-salto"** tailerra TBK-n: sokarekin egindako jokoak erabiltzen dira eduki feministak lantzeko (adibidez: abestien analisia, balio hegemonikoen transmisioa, "nesken jolasa" delako estereotipoa...). Parte-hartzaileei jolasteko eskatzen zaie. TBK-ko plazaren erdian toki bat okupatzen da, modu kooperatiboan egiten da eta gorputzetik esperimentatzen da, ez derrigorrez material bat sortuta.
- **Esther Ferrer**, performance ezberdinak egiten dituen artista.
- **Oriana Ortizen dinamika**: dinamika hasi da gure gorputzei izateagatik eskerrak emanda. Koloretako paperak banatu dira. Bertan, parte-hartzaileek beren silueta marraztu, plazer-puntuak adierazi eta plazer puntu horri eskerrak adierazteko arrazoi bat idatzi behar dute. Gero, paperezko hegazkinak egin eta hegan egiteko bota dira.
- **Manfred Max-Neef** Txilen, arteak biziraupenaz harago beharrak ere asetzen dituela eta giza garapena osatzen duela aldarrikatzeko.
- **Hezkidetzari aplikatutako arte eszenikoa**. Oihan Martirenak zuzentzen du: *Teatro de las oprimidxs*-en baliabidea.



Indarkeria (k) eta harreman osasuntsuak

Sistema heteropatriarkalaren, arrazistaren eta kolonialaren auzitan, eraldaketaren aurkako erresistentzia globalei lotutako gaiak landu ditugu. Bortizkeria matxistak lehen lerroan daude gure egunerokoa. Horiei aurre egiteko eta bizirauteko erantzunak eta estrategiak garatzen gabiltza etengabe, askotan eraso-erantzuna dinamika gailentzen delarik. Nola eman hauspoa indarkeriarik gabeko bizitzan eta harreman osasuntsuen desiragarritasunari? Nola sortu eta indartu hori, gure solasaldietan gai nagusi bilaka dadin? Nola jarri fokoa gizonek daukaten arduran eta nola landu gizonengan sortzen diren erresistentziak? Nola sustatu autodefentsa feminista eta ahizpatasuna? Zer egin lodifobiari aurre egiteko?

Gizonek zer?

- **Jose txu Riviere Aranda**
- **Joseba Gabilondo Marques**
- **Miguel Ángel Arconada**

Jose txu Riviere Aranda (Gizonduz)

EHUko Magisteritzan diplomatua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunean Masterra. Berdintasunaren, gizonen eta maskulinitateen aldeko lanean espezializatua. Estatuko Berdintasunaren aldeko Gizonen Sareko kidea naiz eta Red MenEngage Iberian kolaboratzen dut. 2007az geroztik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatutako Gizonduz ekimenaren idazkaritza teknikoa koordinatzen dut. Ekimen horren helburua da gizonen emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko kontzientziazioa, parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea. Baita emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka sentsibilizatuta, prestatuta eta konprometituta dauden gizonen kopurua handitzea eta gizonen erantzunkidetasuna areagotzea etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan.

Hitzaldia

Gizonen egungo egoerari dagokionez, gaur egun, gizon gazteak, euren artean aniztasuna dagoelako ideiatik abiatuta, berdintasunaren, feminismoaren eta matxismoaren aurrean desberdin kokatzen dira, iraganean ez bezala. Positiboki, aldaketek berdintasunarekiko eta feminismoarekiko identifikazio handiagoa adierazten dute. Espainiako estatuan, oro har, % 33,6 feministatzat hartzen dira. Adibidez, maskulinitate-eredu tradizionalagotik urrunago gaude, maskulinitate-kutxari buruzko 2022ko ikerlan baten arabera, Espainiako estatuan % 14 bakarrik identifikatzen da eredu horrekin, indarkeria matxista mota batzuk gehiago identifikatzen dira eta zainketa-lan batzuekiko konpromiso handiagoa dute...

Hala ere, aldaketa positibo horiekin batera, azken aldian, gizonek berdintasunerako aldaketen aurrean dituzten erresistentzietako batzuk indartu egin dira. Desberdintasuna eta diskriminazio sexista identifikatzeko zailtasuna eta aldaketen “biktima” izatearen sentimendu orokortuagoa dago. % 16k ukatu egiten dute 2022an genero-indarkeria dagoenik.

Azken finean, nire ustez, aldaketa gehienak positiboak badira ere, erresistentzietan eutsi egiten zaie eta indartu egiten dira. Erresistentzia horiek berdintasunaren alde egiten ditugun ekintzei buruz hausnartarazi behar digute, eragile berriek eragiten duten errealitatera egokitzeke, hala nola sare sozialek edo ultraeskuinaren zamak.

Egoerari aurre egiteko gure ikuspegiaren abiapuntua da emakumeen eta gizonen berdintasuna funtsezko giza eskubidea dela eta genero-identitateak desagertu egin behar direla, gizarte desberdin eta sexista baten egituratzaile moduan.

Ikuspegi feministarekin bat gatoz: analisiaren eta ideologiaren erreferentzia feminismoa izan behar da. Garrantzitsua iruditzen zaigu aniztasuna modu interseksionalean kontuan hartzea: gizonak askotarikoak dira, baita haiengana gerturatzeko moduak ere. Maskulinitate guztiak ez dira gorputz beretan bizi, ez dituzte genero-adierazpen, sexu-orientazio... berak. Gizon gayak, gizon transak, maskulinitate horiek nola erakitzen ari diren... Gizon guztiak ez dira boteretsuak eta ez dute pribilegio maskulinoen onurarik lortzen neurri berean. Beraz, ez dute estatus sozial bera.

Gure lana bideratzean kontuan daukagu gizonak berdintasunera gerturatzeko bideak identifikatzea eta ezagutzea garrantzitsua dela: beren ongizatean edo harreman pertsonaletan duten interesagatik, harreman-interesagatik, printzipio etiko, politiko edo erlijiosoengatik, gertu dituzten emakumeen presioagatik, emakumeen diskriminazioarekiko sentikorrago egiten dituzten bestelako diskriminazio- edo marjinalizazio-egoerak jasateagatik.

Gizonok desberdintasunei eta horien abantailei eusteko erantzukizuna eskatzearen alde egiten saiatzen gara. Modu aktiboan parte hartzea era askotako desberdintasunak antzematean eta aldaketan zeregin aktiboa onartzean, konponbidearen eragile izatera igarotzeko. Errutik, deserosotasuna helburu duenetik eta gaitzespenetik urrun, ez zaizkigulako batere erabilgarriak.

Era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu maskulinitate tradizionalaren genero-aginduen ondorioz sexismoak gizon askorengan sortzen dituen arazoak lantzea. Agindu horiek gizon askorentzat ondorio negatiboak

dituztelako. Horri dagokionez, nabarmendu behar dugu berdintasunezko gizarte feminista batera aldatzeak patriarkatuaren ondorio diren desberdintasunak eta bidegabekeriak desagerrarazteaz gain, pertsona guztientzako bizitza hobea lortzen lagunduko duela.

Gaur egun, **gizonen rolari eta zereginari dagokionez**, gero eta nabarmenagoa da berdintasuna lortzea ez dela emakumeen zeregina bakarrik eta gizonok sartzea lortu behar dugula. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zait maskulinitateak zehazki lantzea, ez bakarrik gizonekin eta bakarka egina, baizik eta taldeko eta egiturazko eraikuntza bezala. Eraikuntza horrek oraindik ere hein handi batean boterea eta desberdintasuna antolatzen ditu. Nahitaez, lan-ildo horretan gizonentzako berariazko programak egon behar dira, bai hezkuntzan, bai politika publikoetan. Halaber, interesgarria iruditzen zait gunee feministak irekitzen joatea ere gizonen parte-hartzea integrazteko eta bultzatzeko.

Joseba Gabilondo Marques (Hiruki Larroxa Kooperatiba)

Hiruki Larroxa Kooperatiba: jendarte eraldaketarako pentsamendu kritikoa sustatzea bilatzen duen kooperatiba bat da, gaur egungo jendarte ereduan ematen diren botere harreman asimetrietan eta zapalkuntza sistemetan fokua jarriz. Parekidetasun eta LGBT+ gaietan formazioa, aholkularitza, ikerketa, bidelaguntza, dokumentazioa, sorkuntza eta herri proiektu integralak garatzen dituzte eta taldeen bideratzea ere lantzen dute.

Joseba Gabilondo Marques: Hiruki Larroxa kooperatibako kidea eta sexu askapenerako mugimenduko militantea, Ehgam-en. Ikasketaz, gizarte hezitzailea. Azkeneko urteetan gizontasunaren gaian murgiltzen aritu da eta bere egitekoa Talde Bideratzearen eta “Prozesuen Lanketa” (Trabajo de Procesos) begiradatik burutzen du.

Hitzaldia

Kanpo eragile moduan, mutilak parekidetasunaren gaiarekiko, orokorrean, urrunduta, are gehiago, erreazioan daudela esango genuke. Orokorrean, ez daude prest gaia lantzeko eta jarrera eta diskurtso anti-feministak izaten dituzte. Defentsibara jartzen dira parekidetasun gaia ikasgelan lantzerantz sartzen garenean. Erasotzailer bezala seinalatuak sentitzen dira eta posizio horretatik erreakzionatzen dute eta askotan biktima papera hartzen dute.

Ikasgeletan, orokorrean, bi bando ikusten ditugu, nolabaiteko sexuen gerran. Bestalde, indarkeria (mota guztietakoa) eta tratu txarrak oso normalizatuak daudela ikusten ditugu, LGBTifobia oso agerikoa da. Alderdi positibo moduan, neskak indartuta eta ahaldunduta ikusten ditugu.

Eskola mailan, hezkidetza arduradunak beraien egitekoa aurrera eramateko ordu gutxirekin ikusten ditugu, irakasle asko gaiarekin aspertuta ikusten ditugu eta ardura ez bat nabaritzen dugu (“adituak zuek zarete”). Dena dela, irakasleak gaiarekiko aurrerapausoak emateko prest daude, baina askok ez dakite nola egin.

Egoera honen arrazoiak asko izango badira ere, gure ustez garrantzitsuenak hauek dira. Alde batetik, feminismoaren lorpen gisa, ikasgeletan neskak ahaldunduta ikusten ditugu, baina mutilei alternatibarik ez dela eskaini esango genuke. Nolabait neskekin lan handia egin da, baina mutilak ahaztu ditugu. Honek, mutilak galduta eta deseroso egotea ekarri du, eta jendarte mailan ultra-eskuina bere diskurtso eta dauden youtuber eta tiktoker anti-feministekin, deserosotasun hori kapitalizatzen ari dira. Gainera erabiltzen duten estrategia, mutil gazteengana emoziotik heltzea da. Bestalde, kanpo eragileen lana “parakaidista” bezala burutzeak ere aipatutako egoeran eragiten duela uste dugu. Izan ere, askotan modu puntualean egiten dugu lan ikastetxeetan edota gatazka bat eman denean. Azkenik, feminismoaren diskurtsoak ikastetxeetan gordinki sartu direla ere uste dugu eta askotan ez dela eskoletarako egokitu edo modu pedagogiko baten egin. Nolabait, kalerako hain beharrezkoak diren feminismoaren modu eta diskurtso “konbatiboak” eskolan sartu dira eta ez dira eskolaren testuingurura moldatu, feminismoa pedagogikoki eramanez.

Esango genuke beraz, momentu delikatuari gaudela gaiarekiko eta estrategia birpentsatu beharrean gaudela, jarrerak, diskurtsoak eta metodologia birpentsatu beharrean gaude.

Gure esperientziatik abiatuta, egoerari aurre egiteko estrategiei dagokionez, uste dugu mutil gazteengana diskurtsotik hurbildu beharrean, emoziotik hurbildu behar garela. Hau da, ondo dago parekidetasuna balio moduan lantzea eta justizia sozialaren ideia zabaltzea, baina gaiarekin mutilengan emozionalki ematen dena zer den jakin eta hori entzun beharrean gaude. Beraz, mutilak entzun behar ditugu. Deseroso daude eta horrekin zerbait esaten dabiltzala uste dugu.

Patriarkatuak eta kultura matxistak mutilentzat negatiboa denaren ideiatik eta bell hooks-en “El deseo de cambiar” liburuaren tesitik, zis-heteropatriarkatuak mutilak ere mugatu eta estutzen dutela zabaldu behar dugu. Begirada horretatik, mutilen deserosotasuna ulertzen saiatu eta konfrontazioa ekidin behar dugu.

Bestalde, mutilen anaitasuna apurtzen saiatu behar gara. Uste dugu zinez zaila dela, gehien bat nerabezaroan taldearen parte izateak daukan garrantzia kontutan izanda. Uste dugu gutxiengo bat direla indarkeriazko jarrera matxistak benetan gorpuztu eta barnerratuak dituzten mutilak, gainontzekoak maskulinitatearen presioagatik, lider negatibo horiek jarraitzen dituztenak dira. Beraz, azkeneko mutil hauek gakoak direla uste dugu. Baina mutilen anaitasun hori apurtzeko, beraiek jasotzeko norbait egongo dela jakin beharra daukate. Horretan, neskak ere gako izan daitezke (nahiz eta beste behin, neskak izango diren zaintza lan hori egiten dutenak). Gainontzeko gutxiengoko mutil horiekin nola jokatu ere problematizatzearen beharra ikusten dugu, izan ere askotan zigorrera jotzen dugu jarrera punitibistetatik. Uste dugu jarrera horietatik urrundu eta mutil horiekin, banakako lanketa sakona egin behar dela.

Azkenik, transbertsalitatearen ideia presente izan behar dugu. Uste dugu tailer puntualak (“txanpiñonadak”, “parakaidismoa”) zalantzan jarri behar

ditugula eta proiektu integralak hobetsi. Honetarako, hezkuntzatik baliabideak jarri beharko dira. Proiektu integral horietan, ikasleekin ikasturte osoan zehar saioak egiteaz gain (nolabait harreman parekideetarako erreferentzia bat izan dezaten, aukera bat izan daiteke ikasturte guztian zehar hilean behin ikasgela bakoitzarekin saio bat egitea beraien arteko harremanen inguruan aritzeko), irakasleen formazioa (formazioa diogunean ez da soilik ezagutza teorikoen planoan. Uste dugu bakoitzak gaia gorputzetik pasa eta bakoitza nola zeharkatzen duen barneko mailan eta kolektiboan prozesatzea ere beharrezkoa dela) ere ezinbestekoa da eta honi, kanpo-aholkularitzaren aukera ere gehituko genioke. Azkenik, ikasgaietan parekidetasunaren gaia eta pedagogia feministak transbertsalki txertatzea ere ezinbestekoa da.

Momentu honetan, hezkuntzaren eta ikastetxeen **testuinguruan gizonezkoek gaiarekiko berebiziko papera daukagu**. Gizonok posizionatu posizionatu beharra daukagu eta despatriarkalizazio prozesuetan sartu behar gara. Zalantzan jarri behar dugu irakaslearen autoritatea, bestelako lidergoak gorpuzten hasi behar gara eta horretarako feminis-mora hurbildu.

Patriarkatuak ematen dizkigun pribilegioen kontzientzia izan behar dugu, pribilegio horretatik eragiten ditugun min eta indarkerien kontzientzia hartu eta hauen ardura hartu behar dugu, eragindako minak erreparatu eta berriz ez emateko. Horretarako, gure harremanak izateko modu patriarkalak, patrioiak, dinamikak, sinesmenak... zalantzan jarri eta eraldatu behar ditugu, izan ere, guzti horiek mugatu eta itsutu egiten gaituzte, dauzkagun pribilegioak eta honek ekartzen digun boterearen kontzientzia hartzeko. Bestalde, patriarkatuak gizonengan sortzen dituen zauriak (ezintasun emozionala, gizontasun eredu bateari menpekotasuna, azaleko harremanak eraikitze joera...) ere landu

behar ditugu gizonon artean (hau garrantzitsua da, izan ere, ez litzateke justua izango emakumeekin lanketa hau egitea, beraiek direnean patriarkatutik indarkeria bortitzena jasaten dutena), bestela erreakzioan eta biktimizazioan erori gaitezke eta.

Azkenik, ikastetxe moduan ere, ezinbestean galdetu behar dute ikastetxean nola ematen diren balore eta egiteko modu maskulinoak (zigorra, autoritatea, produktibitatea, zaintzaren ikusgarritasun eza...).

Miguel Ángel Arconada

Jorge Manrique Institutuko (Palentzia) Hizkuntza eta Literaturako katedraduna. Irismen handiko proiektu bat garatu du Espainian, Portugalen, Perun eta Hispanoamerikarako online formatuan, irakasleak eta gizarte-taldeak prestatzeko, gai hauetan arreta jarrita: komunikabideen azterketa kritikoa, genero-indarkeriaren hezkuntza-prebentzioa, hezkidetzaren erantzunkidetasuna eta berdintasunarekin konprometitutako maskulinitateen sustapena. 2019ko Nesken eta Emakumeen Hezkuntzaren UNESCO Saria, SKOLAE programagatik. Programa horren egilekidea, aholkulari teknikoa eta prestatzailea izan zen. Hezkidetzako Klaustro Birtualaren 2021eko saria, “hezkidetzaren hazia ereiten bizitza osoa emateagatik”. UNED, Salamancako Unibertsitatea eta UOnline unibertsitateetako hainbat masterretako irakaslea. Gaztela eta Leongo Eskola Kontseiluetako berdintasunaren arduradunentzako online prestakuntza-ikastaroen egilea. Berdintasunaren aldeko planen aholkularia eta “Codo a codo” (Palentzian kokatutako berdintasunaren aldeko gizonen taldea) taldearen sortzaileetako bat. Ikasgeletan maskulinitateekin lan egiteko strategiari buruzko hausnarketak dituzten materialak eta lanerako proposamen zehatzak egin ditu.

Hitzaldia

Ikastetxeetan gertatzen ari denari eta irakasleek mutilekin egiten den lanari buruz duten ikuspegiari dagokionez, ikastetxeetan maskulinitate mota bat erabiltzen da, saritzen, ikusezin bihurtzen edo lortu nahi denaren inguruko kultura ezkutu batekin. Baina nekez dago maskulinitateei eta horiek berdintasunarekin duten harremanari buruzko lan esplizitua egiteko plangintzarik.

Gai honetan, berandu goaz, gaizki goaz eta are okerrago egin dezakegu ikasgeletara iritsi den hezkidetzaren aurkaratzen ari garen une batean. Ikastetxeetara dagoeneko iritsi den nazioarteratutako eta hiperfinantzatutako estrategia baten barruan: nabarmendutako maskulinitate bat berrarmatzeko, konplexurik gabeko matxismo bat harro erakusteko estrategia. Ikastetxe horietan gizonezkoen biktimismoaren bolada berria ere sumatzen dugu dagoeneko. Gaur egun ez ditugu ikasle pasiboak bakarrik hezkidetzaren jardueretan; oinarrizko berdintasun-printzipioak eta maskulinitatearekiko edozein mezu kritikoa aurkaratzen, itauntzen eta kontrakoa esaten duten ikasleak ditugu.

Erronka bat dugu irakasle berriekin eta belaunaldiz belaunaldi partaide egin behar ditugu. Maskulinitateekin lan egiteko erantzuna ikastetxearena da edo ez da izango. Esperientzia zehatzak beti egon direlako edo ez direlako nahikoa izan: hezkidetzaren planek maskulinitateekin lan egiteko ildo zehatzak aurkeztu behar dituzte eta oraindik ez dago horren alde egiten duen politika instituzionalik. Hezkidetzan irakasleon zain daude gaur eta oraindik ez gaude horretan.

Gainera, erronka ikuspegiarekin asmatzea da, ikasleekin dauden lan-ildotzat batzuek defentsiban egonda erantzun garrantzitsuak sortzen baitituzte.

Ikasle batzuek esan digute hezkidetzeak errietak jasotzeko baino ez diela balio. Esan behar diegu mutil bat ez dela tratatu txarrak eman ditzakeen pertsona bat, ez dela arrisku bezala bakarrik tratatu behar den norbait, baizik eta prestatzen ari den pertsona bat dela eta erabaki behar duena berdintasunak bere identitatean betetzen duen zeregina, pertsonen arteko harremanetan eta gizartean eta munduaren aurrean duen tokian.

Emakumeen mina ez da nahikoa izan ikasleak aldaketaren eragile moduan motibatuzeko. Hain zuzen ere, ikasleak emakumeen aurkako indarkeria fisikoaren aurka agertzen dira, baina ez dira berdintasunean eta elkarrekotasunean oinarritutako harremanen eraikuntzaren partaide. Berdinzale izatea bortitza ez izatea baino zorrotzagoa da. Erdigunea izan behar da nork bere burua zalantzan jartzea: zenbat naiz berdinzalea, zergatik kostatzen zait berdinzale izatea eta hori lortzeko nola egin behar dut lan.

Ikastetxeetan mutilekin lan egiteko materialak soberan daude, baina apaletan daude. Mutilekin lantzen dugunarekin aurrera egitea sortzeko eta ikastetxeak jendaurrean erakutsi dezan zer lan egiten duen berdintasunarekin konprometitutako maskulinitateak indartzeko, honako hauek falta dira: helburuetan argitasuna, erakundeen laguntza ikastetxeetan benetako planak egon daitezten eta eskola-plangintza.

Gure esperientziatik abiatuta, hainbat estrategia erabiltzen ditugu egoerari aurre egiteko. Maskulinitate *bakarra, handia, askea eta* taldean bertan bere burua hornitzen duen maskulinitatearen aurrean, honako hau ezarri behar dugu: gizon izatea ez dela matxista izatea, bere burua kritikoki ulertu behar duten hainbat maskulinitate daudela, eta klase-taldea espazio pribilegiatua dela gizon guztiak berdina direla dioen ideia hausteko. Gainera bertan zuzendu daiteke mutilek oso gizon izateko edo benetako gizon izateko mezua lehenago jasotzen duten errealitatea, berdintasunerantz aldatzen ari den gizona izateko erronka baino.

Errietako baino erronka gehiago proposatzeko toki bat, etsaia ez direla feminismoa eta emakumeak, desberdintasunak baizik. Emakumeek ez dutela gizonengan agindu nahi, beren buruarengan baizik. Erdiguneak barne hartu behar du ikasleak ez direla egin ez dutenaren errudun, baina bai egingo dutenaren errudun. Eta gizartearen eta norberaren erai-kuntzan erronka izan behar da nork bere buruari eskatzea *tratu onak berdinkide batekin hitzartzea*.

Ikuspegian ondo egiteko, berrikusi behar dira maskulinitate berekoi berrietatik gertu dauden proposamen batzuk, benetan feministak ez direnak. Izan ere, mutilei proposatzen diete oraindik hobeto egotearen ideia maskulinitatearen agindu eta kostuetatik libratzen badira, baina pribilegioei uko egin gabe. Benetan hezkidetzaille den ikuspegiak zalantzan jarriko du mutilok non ikasten dugun ondo tratatzen eta geure burua izatez izaki zaingarriztat (eta zaintzailatzat) hartzen.

Berdintasunean bizitzeak merezi duela adierazi behar diegu, hausnarketa teorikoa bizipen-jarduerekin elkartuta. Horrela mundua berdintasunezkoa denean munduan hobeto egoteko gaitasun hori identifikatu ahal izango dute.

Ikasleekin egindako lan horren barruan, garrantzitsua da neska ikasleen ahotsa zuzenean har dadin bultzatzea, gizon helduek emakumezko kideen eskaerak entzun behar izan dituzten bezala. Ikasleek gutxienez lau eskaerekin lotutako jarduerak garatu behar dituzte:

- 1) Nor zara ez bazara onena?
- 2) Zer ikasten ari zara berdintasunean elkarrekin bizitzeko?
- 3) Nola moldatzen zara zure pribilegioekin?
- 4) Nola kudeatzen duzu emakume baten EZEZKOA?

Gizonen rolerako eta zereginerako une erabakigarrian gaude. Aldi berean, aldaketa adierazgarri argiak eta aldaketarekiko erresistentzia sakonak identifikatzen ditugu. Gizon helduek, irakasleek ere bai, erabaki behar dute beste alde batera begiratu nahi duten edo hezkidetzako betebeharrak profesionala bete nahi duten. Espazio seguruak sortu behar ditugu manosferaren zigorgabetasuna aurkaratzeko, mezu hori ikasgelara eramateko eta taldeak horri buruz kritikoki hitz egiteko. Eta edozein jardura beti bukatuko da bi aukera identifikatzearekin: zer egingo luke gizon matxista batek egoera horren aurrean eta kasu beraren aurrean, zein izango litzateke berdintasuna lortzeko bidean dagoen gizon baten erantzuna.

Jakin behar dugu jokoan dagoena ez dela bakarrik gizon mota desberdinek munduan duten zeregina, baizik eta emakumeekin dugun erreferentziazko lekua, baliokidetasunaren, elkarrekikotasun erreferentzialaren eta tratatu onen pertzepzioa bermatuta. Horretarako, ikasleekin lan egitean, garrantzitsua da elkarrizketan aritzea neska ikasleekin jada badituzten lau ebidentzia hauekin:

- Emakumeek bizitza berdintasunean partekatu nahi dute.
- Gizonok gonbidatuak izan gaitzeko emakumeen bizitzan. Ez gara ezinbestekoak eta harreman guztiak izango dira baldintzapeko ituna, ez mirari emozionala, hau da, eraikuntza erantzunkidea.
- Emakumeek ez dute gizonezkoen aldaketa babestu behar.
- Emakumeen sexualitatea ez da gizonen sexualitatearen jaso-tzaile bat.

Partekatutakoa

Parte-hartzaileen galderak

- Hezkidetzaren planean ez dago maskulinitate zutabea, III. Hezkidetzaren planean Emakundeak kontutan izango al du? Ez parakaidista, baizik eta egiturazko zerbait.

• Zer egin dezakegu indarkeria egoerak gertatzen edo antzematen ditugunean? Zentroan gelditzen den pertsona horrekin zer egin dezakegu?

- » Ez daukagu ikastetxera eramanda.
- » Apurtzen den konfiantza eta integritatea ez da soilik eraso jaso duen pertsonarena, baizik eta komunitatearena ere bai. Beste aldearekin zer egin erabakitzerakoan ala baloratzekoan debatea dago. Ulertzea ez dela bere kontua bakarrik, berak eragin duen hori kultura patriarkal baten baitan dagoen zerbait dela. Beste mutilekin lan egitea, hau ez da bere arazoa bakarrik: 'matxista' etiketa jarri eta gainontzeko mutilek ardura kentzen dute baina eurekin ere landu beharko litzateke pasatakoa.
- » Katalunian adibidez badago Bizikidetzaren planean horrelako adibiderik, indarkeria matxistaren protokoloaren adibidez.
- » Bestelako zerbitzuekin esperimintatu: indarkeria matxista kasu bat gertatzean ez dadila izan bakarrik biren kontua.

- Zer da aniztasuna? Zein sartzen gara aniztasunaren baitan?
- Egun bereziak ospatzen jarraitzeak merezi al du? Ze eragiten du egun bereziak ospatzeak?
- Agian feminismoa gordinki sartu dugu eskolan? Kontestu pedagogiko batera moldatzea falta izan zaigu? Kanean aldarrikapena, eskolan azalduago eta adinaren arabera edukiekin jorratuta azaltzea komeni da. Gauza abstraktuak azaltzen saiatu gara eta batzuek era pertsonalean hartu dituzte, kideak seinalatuz eta eurek erasotzaile bezala sentituz.

Erronkak

- Gizonen eta gazteen indarkeria normalizatuak eta desberdintasunak antzematea. Era berean, ematen diren pribilegioak garatzen den maskulinitate motaren araberakoak dira.
- Maskulinitate ez-zisheteronormatiboak ikusaraztea, espazioak eta balioa ematea, bai ikasgeletan, bai taldeetan, bai irakasleen materialetan eta roletan.
- Maskulinitateak osotasunez eta egituran lantzea eta integrazioa zentroetan, une jakin batzuetan edo larrialdietan egin beharrean.

Tentsioak eta eztabaidak

- Gazteen deserosotasuna, aukera bat al da? Tresna bat? Helburu bat? Ala hobe da deserosotasun hori ez sortzea?
- Tratu ona ikasi eta irakatsi egiten da? Eta ikasleen artean? Eta irakasleen artean? Eta ikastetxean?

Emozioak

- Barreak
- Deserosotasuna
- Interesa/ikasteko eta entzuteko gogoak

Erreferentziak

- [La caja de la masculinidad: Construcción, actitudes e impacto en la juventud española](#). FAD 2022
- [Ser de Vox es guay](#). ¿Por qué algunos adolescentes asumen posiciones antifeministas públicamente? ¿Cómo responder? [Nuria Alabao-ren artikulua](#).
- Ref: [bell hooks](#) eta [Clara Serra](#).

INDARKERIA(K) ETA HARREMAN OSASUNTSUAK MAHAI INGURUA: GIZONEK ZER?

REFERENTES
 Encuesta entre 12.000 jóvenes ¿A quién te quieres parecer de mayor?
 Los 10 primeros puestos, hombres relacionados con la economía y deportes. Las chicas si incluyeron en su lista a hombres.
 En la lista de los hombres no aparecen sus madres. No mujeres.

RESISTENCIAS
 72,5% de los jóvenes de EH piensan que no hay ventajas por género.
 La **BIOLOGÍA** sigue teniendo mucho peso.
 Diferencias físicas vs. cuidado vinculado a lo biológico.

REALIDADES DIVERSAS
 con personas que se identifican como hombres.
 LA CAJA DE LA MASCULINIDAD estudio Centro Reina Sofía.
 Dentro: masculinidades hegemónicas. Fuera: la mayoría de los chicos se sitúan aquí.

PROGRAMAS DE LARGO RECORRIDO
 que sean transversales a otros.
 Recursos y estructura organizativa para la COEDUCACIÓN. Intervenir desde el PASARSELO BIEN.

ACTITUD DEFENSIVA
 Reciben muchos DISCURSOS DE ODIO.
 Discursos de ultraderecha. Aluden a las emociones y los chavales repiten sus palabras.
 AUTOCRÍTICA: nosotros vamos con un discurso muy racional. Hay que hablarles desde la emoción y escucharles.
 LGTBifobia. Los "maritxus" se sienten solos y reciben violencias.

INCOMODIDAD
 Se sienten señalados ¿somos agresores?
 Gracias al feminismo las chicas están empoderadas y los chicos sienten que pierden el PODER.
 Estamos hartos de tanto feminismo.

TRABAJO COLECTIVO
 Pero sin "monstrualizar" al individuo.
 Evitar la confrontación. Romper con la hermandad de los chicos.
 Formación para los centros/profesorado. Llevar el feminismo de una forma comprensible, no perdersen en tecnicismos.

¿DÓNDE APRENDEMOS LOS CHICOS A BIEN TRATAR?
 Las chicas expresan que quieren la mitad de todo que somos los invitados en sus vidas, a los hombres nos cuesta que nos den relaciones condicionadas, que ellas no tienen que hacer nuestro trabajo que "Mi cuerpo de mujer no es el recipiente de tu sexualidad".
 En los centros se trabaja la igualdad pero no las masculinidades.
 No podemos estar solo en la contra, debemos rivenciar que bien estamos cuando estamos en igualdad.
 Debemos responder a la machosfera.
 Tenemos más claro qué es un hombre machista que qué es un hombre que va hacia la igualdad.

FEM GARA BAT.
 VAMOS TARDE CON LOS CHICOS, LA MASCULINIDAD DE SIEMPRE SE ESTÁ REARMANDO.
 Necesitamos planes escolares de coeducación, no profesores individuales excepcionales.
 Para los chicos, coeducar es sentir que siempre los están echando la bronca.
 Hay que llegar a los chicos con retos, no con broncas.
 Intentar quebrar el pacto de la masculinidad hegemónica.
 No es lo mismo ser no violento que igualitario.
 ¿qué es NUEVA MASCULINIDAD?
 UN NIÑO NO ES UN MALTRATADOR EN POTENCIA, ES UNA PERSONA EN CONSTRUCCIÓN.
 Revisar nuestros privilegios. Buenos tratos con nuestras iguales.
 El motor del cambio en los roles son sus amigos empoderados.

Lodifobia

- **Laura Ré eta Sara del Río**
- **Mijo Lizarzaburu**

Laura Ré eta Sara del Río

Sara del Río Loyarte eta Laura Ré Lozanok osatzen duten podkasta da Bertikala, euren eguneroko esperientzia eta gogoetak elkarbanatzen dituzte bertan. Gai guzti hauek umoretik heltzen dituzten arren egun pil-pilean dauden gai eta hausnarketa politikoz betetzen dituzte euren saioak.

Mijo Lizarzaburu

Militante transfeminista, filosofian graduatua eta Ezin kabitu! Euskal Herriko jardunaldi lodien antolatzaile den taldeko kidea.

Hitzaldia

Lodifobiaren inguruko problematikak ikuspegi berritzaile batetik lan-tzea izan da gure helburua Kongresu honetan, bestetasunaren kuotak betetzetik haratago, esperientziak eta teoria militantea nahastu nahi izan ditugu.

Nola/noiz enteratu ginen lodiak ginela galderari erantzunez, gizarteak izendatzen zaitu lodi, matxiruloen oihuak, zure amaren iruzki-nak. Bizitzen ditugun biolentzien zerrendan daude lan-diskriminazioa (“buena presencia” etiketaren bidez esaterako), ikusezintasuna eta burla produkzio-kulturalean, diskriminazioa osasun-sisteman, bazterketa afektibo-sexuala, autoestimua murriztua, norbere burua-rikiko gorrotoa etab. Indarkeria horien ondorioz enteratu ginen lodiak ginela, eta horri erantzuteko politikoki antolatu ginenean ulertu genuen lodi politikoak garela.

Iruditegiari dagokionez: desfasatua, gehiago-gehiago, alperrak, zikinak, kontrolatik-kanpo, bere onetik aterata eta abar bezala irudikatzen gaitu. «**No es la delgadez lo que está erotizado. Lo que está erotizado es la sumisión que la delgadez supone dentro de nuestra cultura.** La delgadez es una característica secundaria. La auténtica mercancía es la voluntad de las mujeres de someterse al control cultural». Virgie Tova-

rren zita horrek argi erakusten du nola lodiekiko sortzen den iruditegia kontrol sozialaren logika ez betetzearen ondorioz jasotzen dugun zigorra dela. Gure helburua ez da gizarteak gugandik nahi duena betetzea, baizik eta gorputz normaltasun eredua apurtu eta lodifobiarik gabeko gizarte anitzagoak indartzea.

Kontrol/otzantze erraminta ezberdinak daude: IMC, “osasuna”, dieta-kultura, gimnasio-kultura, realfood, talla-única... Erraz ikus daiteke aipatutako kontrol estrategia gero eta ohikoagoak diren gailu digitaletako aparatu biometrikoekin. Smartphoneek edo smartwatchek zure bihotz-taupadak eta pauso-kopurua neur dezakete jada. Ondorioak aurrean ditugu, gorputz otzana ikusten dugu egunean 10000 pauso egitearekin obsesionatuta eta farmazia-enpresak enpresak big data biomedikoa erosten adibidez. Hau hasi besterik ez da egin, gure gorputza algoritmo-kodera itzultzeko gailu sofistikatuagoak etorriko dira, gero eta kontrol teknika zehatzagoak aplikatuko dituzte eta guk ni-aren zaintzarako arau berri gisa biziko ditugu. Bitartean osasungintza publikoa baliabidez husten ari dira, pribatua indartu eta *zaindu zure burua*-ren estiloko esloganak errepikatuz.

Erregimen heterosexualaren baitan, erotizazio eza konstante bat da loditasunean, horren aurrean munstroen erotika aldarrikatzen dugu, gorputz lodi, itsusi, ez gaitu, friki eta arraroen arteko orgia.

Argaltasunarekin harremana gatazkatsua da, gure gizartean argaldu daitekeenak argaldu beharra daukalako, norabide horretan bideratzen gaituzte slogan eta marketingeko praktika guztiak, familiaren mezuak eta lagunen arteko giroetako hierarkiak. Transformatu behar dugu gure desira eta argi esan loditasuna bizigarria dela eta ez dugula zertan argalak izan, hare gehiago, ez dugula argalak izan nahi.

INORK EZ DU LODIA IZAN NAHI: lodia izatea bizitzan gertatu daiteken txarrena bezala irudikatzen da. Gizartea kontziente da lodiengan eragiten duen biolentziaz, horregatik inork ez du nahi lodi izan, inork ez duelako nahi guk bizi dugun biolentzia jaso. Baina guk argi dugu, hobe da munstro lodi bat izatea hetero baten printzesa den tipa guapa baino.

Etorkizuneko promesa eternoa: Lasai, (zure lana egiten baduzu) argalduko zara. Promesa honek gure oraina hipotekatzen du, ez jan orain, gimnasia joan orain, ez edan alkoholik orain etorkizunean argala eta zorionsua izateko. Baina zer uste dugu, 4-5 urte egon eta gero zure burua gorrotatzen egun baten esnatu eta dena zoragarria izango dela?

Partekatutakoa

Erronkak

- Hezitzaileoi ahaztu egiten zaigu lodifobia ez dela gazteen kontu bat bakarrik.
- Zalantzan jarri desira. Nola?
- Nola egin gordoaktibismo argalekin aliatuz? Konektatzearen beharra.

Tentsioak eta eztabaidak


- Nola sartu gordoaktibismoa mugimendu sozialetan edo espazio alternatiboetan? Zentzua du eskaera horrek?

Emozioak

- Barreak
- Bajoia
- Haserrea

Erreferentziak

- [Itsaso Blázquez Rodríguez](#) (Emakumeen Mundu Martxan egindako mahai-ingurua).
- [Nagore Iturrioz](#) eta [Lucrecia Masón](#).
- [Gordimalas](#) (Estatuko Lodien I. Jardunaldiak. Madrilen).
- [Magda Piñeiro](#).
- [My mad fat diary](#) seriea



Hetero araua plazerrez lehertu!

Mireia Delgado

Pedagogo Feminista. Helduentzako eta haurrentzako ipuin-kontalaria. Irakasleen formatuetan aritua eta gaur egun ere jarraitzen duena. Bitartekaritza literarioan ibiltzen da irakurketa bitartekaritzaren bidez. Askotariko irakurketa taldeak dinamizatzen ditu: euskaraz astiro dabiltzan helduekin, ikuspegi feminista zorrotzu nahi dutenekin, irakurtzen hasi berriekin eta nerabeekin ere bai. Euskal Herriko Bilgune Feministako kidea. Bere lana gehien ezaugarritzen duena: hari guzti horien arteko gurutzaketak egitea da, mixtura.

Hitzaldia

Egun seinalatueterako sortu eta integratu ditugun ekintza sortak ZER-TARAKO ote diren galdetu beharko genioke maizago gure buruari. Zertan eragiten duten baloratzeaz eta neurtzeaz gain, zentzua ote duten, koherenteak diren, aztertu beharko genuke. Zuhaitzaren eguna hamai-ka mila folio zuriekin egindako muralak pintatzen ospatu dezakeen jendartea gara, eta zenbaitetan ekintzek, helburuak difuminatu dizkigute.

Askotan, erreibindikatzeko zein salatzen dugun horri loturiko lelo eta sloganen errepikapen hutsa besterik ez dugu egiten. Txarrena ez da soilik eraldatzeko (hori zen asmoa, ezta?) balio ez dutela. Txarrena eta arriskutsuena zera da, diskurtso politikoki zuzenak helaraztean, zerbait aldatzen ari garenaren irudipena sortu dezakegula, denak berdin jarraitzen duen bitartean. Gure praktika sakonean ezer aldatu ez, eta haurrak eta gazteak diskurtso feministetan trebatzen ditugunean, are zailagoa bihurtzen da hetero-patriarkatuak sorturiko bereizkeria eta biolentzia egoerak ikusaraztea. Diskurtso, lelo zein kontzeptuetan, adituen maila izan dezaketen gazte horiek; jarreretan, bizitza estiloan, espektatibetan, hautuetan, begiradetan... bestelako zerbait izan daitezke. Berdintasun formalaren leloak bereganatu dituzte (guk erakutsi dizkiegu) eta erramintak dituzte berdinzaleak izango balira itxurak egiteko.

Gauzak horrela, estrategia aldatu beharra dago. Klabea XIRIMIRIA izan daiteke. Bai, eskolako aspektu oro, zirimiria balitz, feminismoaz bustitzea. Gutxinaka-gutxinaka. Kasik nabaritu gabe. Bustitzen egongo ez bagina bezala. Baina benetan etengabe eta etenik barik; tiki-taka, tiki-taka... Dena blai egon arte. Plazerez denak eztanda egin arte.

Hala ere, ez gaizki ulertu faborez. Ukaezina baita LGTBI praktiken eta bizitzen kontrako gorrotoa salatu beharra dagoela eskoletan zein toki guztietan. Gertakariei eta biolentziei izena jarri behar zaiela eta zenbaitetan, zirimiria, ekaitza edo trumoiekin lagundu beharra dagoela. Eta batzuetan egun seinalatuak eta kanpainak tresna baliagarria izan daitezke. Hori esanda, eguneroko eta etengabeko leherketa txiki-handietan jarri dezagun arreta. Zuzenekoak duen indarra baliatu dezagun.

Eguneroko dinamika sakon aztertu behar dugu. Izan ere, praktika feminista bat aurrera daramagula pentsatze hutsa, hori baino ez da, uste bat. Gogo edo desira bat (Esan gabe doa, desira eta gogoa ezinbesteko osagaiak direla. Beraiek gabe ezinezkoa litzateke). Praktika feminista bat gauzatzeko etengabeko hausnarketa kritikoaz baliatu behar gara. Iruditu dakiguke kontzientzia izateak berez, praktika feminista dakarrela berarekin. Baina ez da horrela. Ez da nahikoa egiten ari naizela pentsatzea. Egiten dudana hori deskribatzeko gai izan behar naiz. Konkretuki. Horretarako, egiten dudana horretan arreta jartzea ezinbestekoa da. Hortxe topatuko dut benetan eraldaketarako aukera. Izan ere, nik pentsa dezaket nire jarrerak, espektatibak, adibideak, iruditegia... ez direla hetero-zentristak, ez dudalako izaterik nahi, baina, ZER DA ZEHAZKI EGITEN DUDANA HORI HORRELA IZATEKO? Etengabeko behaketa eta hausnarketa eskatzen du honek. Eta azterketa horrek, lerroen artekoa ere hartu behar du. Izan ere, askotan, inkontzienteki egiten dugun horretan daude zenbait gako. Esaten dudana, esaten ez dudana, mugitzeko modua, kontatzen diedana, kontatzen ez dudana, iradokitzen dudana, isiltzen naizena, ikasle honi nola erantzuten diodan, beste harentzat dudana exigentzia, normalizatzen dudana, kuestionatzen dudana, nola erantzuten dut egoera honetan edo beste hartan... eta noski, zenbat, nola eta noiz hitz egiten dudana honetaz edo hartaz hausnartu beharko

dut: kasurako bolleren existentziaz hitz egitea, ez aipatzea baino askoz ere hobea izango da, noski, baino kontuz! Kontuz eranskin bat balitz bezala aurkeztearekin.

Esan nahi dudana zera da: Sakona, integrala eta etenik gabekoa dela egin beharreko errebisioa. Horregatik teknika edo ekintza konkretuak momentu puntualetan egitea baino, gai izan behar gara egiten dugun guztia zirimiria horrekin bustitzeko. Eta hori bakarrik egin daiteke borondatez, kontzienteki eta urratsez-urrats.

Beraz, gure eguneroko hezkuntza-praktika hori, ekintzez, keinuz, adibidez... josi dezagun! Atmosfera izan dadila eraldatzen ari garena eta ez gelako hormaren kolorea soilik. Zirimiria. Ez dadila nabaritu. Aukerarik ez eman politikoki zuzenak diren diskurtso hutsei. Horretarako “hezki-detzako maletinaren ordua” saihestu, eta eguneroko hezkuntza-praktikan integratu dezagun. Zirrikitu guztietatik erein dezagun. Plazerez.

Ezin ahaztu, biolentzia hor dagoela. Hetero-araua ez betetzean zigorraren arriskua hor dago. Etengabe. Mehatxuka. Umek eta gazteek badakite. Eta beraien burua babestu egiten dute. Genero-arauegia ez betetzeak zigorra dakar, horregatik, gu geu hasi beharko gara bidea zabaltzen. Eguneroko borroka txiki-handiengan fokoa jartzen. Eta borroka horren plazeraz ere bustitzen.

Burura datorkit, Gorputzak hala eskatua liburuan, Empar Pinedak parte batean dionean Madrileran joan zenean eta unibertsitatean horman ikusi zuenean: “ez dakit nor puta, komunista ta ez dakit zenbat gauza gehiago”, Emparrek berak, pintadako hura bai ala bai ezagutzeko gogoia besterik ez zuela sentitu.

Agian, hori sentiarazteko, hori sentitu beharra dago eta horregatik, guk helduok, gure biografien motxiletan daramagun karga guztia mahai gainean jarri behar dugu. Izan ere, helduok kapa berezi batek babestuko bagintu jokatzen dugu maiz. Guk “ikasgai” hau gaindituta izango bagenu eta haurrak eta gazteak hetero-arautik askatu beharko bagenu bezala. Batzuetan, astindu ederra behar dugunok, gu garenean!

Beraz, ekuazioan sar gaitzen eta beldurrik gabe gure biografiari eman diezaiozun errebaso sakona. Nola heldu naiz ni honaino? Zer daramat begien atzeko aldean? Ez da nahikoa ekintza hau edo beste programa hura abian jartzea ez bada GUGANDIK ere pasatzen.

Eta ez ahaztu, kontrakorik zehazten ez badugu, eskola-komunitate osoa heteroa dela transmititzen ari garela! Beraz, “gure hitzak, esan, berriz esan, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal”.

Partekatutakoa

Parte-hartzaileen galderak

• **Nola egin aurre ikasleek esplizitatzen dituzten erresistentziei: feminismo hitzaren aurrean defentsiban jartzea? “Maricón el que entre” jolasa...**

Batzuetan aurre egitea modu zorrotz eta sendo batean beharrezkoa da, eta hori zirimiriarekin uztartu beharko dugu.

• Ikasleek eskola batean, Nafarroan, Hezkidetzaren aurkako diskurtsoa zuena, hizkuntza lausotua eta lelorik gabekoa erabiltzea izan zen metodo arrakastatsuen, dinamika dibertigarriak eta abar barne.

Erronkak

- Irakasleek, irakaskuntzaren momentuan, leloetatik aldentzea ezinbestekoa da. Feminismoa zeharka landu beharko genuke, zirimiria bezala (“Que no se nota pero te cala”). Beraz, horrela landu eta ez leloen bitartez. Praktika txikiak, une orokoak eta eraldatzaileak sortuz.
- Errespetua zer den azaldu baino azalean bizitzeko erronka dugu.
- Ez konturatzea hezitzaileok genero-transmisoreak garela arrisku bat da. Bakarrik hezkidetzaren programetan lantzen dela usteari aurre egitea eta gure burua zalantzan jartzeko erresistentziei aurre egin.
- Egiten ditugun ekintzen une oroko errebisioa egitea, sistemak uneoro “beste aldera” eramaten gaituelako.
- Hezitzaileok balioan jartzea bidean egindako ikaspenak eta horiek kolektibizatu.
- Ikasleei eskatzea X hausnarketak edo ariketak egitea, hezitzaileok egiten ez ditugunean. Deserosotasunak praktikatu behar izatea.
- Gauza txikietan arrakasta ikustea.
- Ohitze prozesuak zalantzan jartzea, adibidez, “Putra” iraina komunetan idatzita ikustea.
- Ikasleek guztia heterosexuala dela suposatzeari aurre egitea. Heteroaraua erreproduzitzeari aurre egin.
- Heteroarauari aurre egiteko, paisaiak eta testuinguruak sortu, ekintza konkretuak egin beharrean. Ikasleek usaindu behar dute LGTBifobiaren kontra gaudela, kontzeptua ikasteaz gain.
- Metodologia eta teknikan fokoa jartzea gainditzea. Tokian tokiko eta momentuan momentuko erantzunak sortzeko espazioen sorkuntza.
- Umorearen txertatzea.



Herri hezkidetzailleak

Herri hezkidetzailleak irudikatzeko eta sortzeko ildoak jarri ditugu mahai gainean, hezkuntza formaletik eta indarkeriaren prebentziotik haratago doazenak. Ildo horiek bizikidetzaren osasuntsua sortzea izango dute helburu, oinarri hartuta diskriminazio zein desparekotasunei aurre egitea eta, jatorria edozein dela ere, guztiok herrikide izatea. Horretara hurbilpen bat egin nahi dugu, espazio fisikoak, zaintza, partaidetza eta festak hizpide hartuta. Hau guztia, Hegoaldeko adituek proposatutako galdera sortzaileen bidez.

Zaintza(k)

- Marina Sagastizabal Emilio Yus
- 12Nubes
- Zabalduz eta Maitelan Kooperatibak

Marina Sagastizabal Emilio Yus

EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea da. AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko kidea da. Horrez gain, Matxalen Legarreta, Maider Barañano eta Alaitz Uriarterekin batera "Zaintza-lanak: abiapuntu eta ortz-muga baten bila" lana idatzi du, Alboan elkartearekin kolaborazioan, hezkuntza eremuan gai hau lantzeko helburuarekin.

Hitzaldia

Askotarikoak dira gure egunerokoan erabiltzen ditugun erak zaintzari buruz hitz egiteko. Askotariko moduek pentsatzera garamatzate oso gauza ezberdinez aritu gaitezkeela zaintzaz ari garenean. Hortaz, lehenbiziko eginkizuna zaintzari esanahi konkretua ematea izango da.

Zaintza definitzea ez da kontu erraza, izan ere, zaintzak jarduera asko hartzen ditu bere baitan eta modu eta momentu ezberdinetan gertatzen da. Horregatik zaigu hain zaila denerako erabilgarria izango den definizio baten mugetan sartzea. Arropa esekitzea, triste dagoen lagun batekin kafe bat hartzea, ospitale bateko ohe ondoan gaua pasatzea, ezin duena dutzatzea eta janzteia, telefonoari adi egotea, jolastea, garbitzea eta abar luze bat delako zaintzea.

Gainera, hamaika testuingurutan garatzen da zaintza, ondorioz, zaintza-lanak jarduera ezberdinak diren eran, zaintza horiek egiteko baldintzak ere oso ezberdinak izan litezke. Hala, nahiz eta ipar globalean ur bila joatea zaintza-lan kontsideratzen ez dugun, beste eremu geografiko batzuetan zaintza-lanak egin ahal izateko aurre baldintza da ur bila joatea, egurra batzea edo bizibidea lortzeko beste zenbait jarduera egitea. Horregatik, zaintza testuinguruari zuzenean loturiko jarduera da, momentu historiko eta espazio geografiko anitzetan ezberdin garatzen dena. Horrez gain, zaintzak zerikusia du, gizakiez gain, animalia eta landareen bizitzak eusteko egiten ditugun jarduerekin.

Beraz, zaintza kontzeptu oso zabala da. Zaintzaren ikuspegi zabal horretara hurbildu nahian, definizio hau osatu zuten Berenice Fisherek eta Joan Trontok (1990:40): "Gure 'mundua' mantendu, jarraitu edo konpontzeko egiten dugun guztia, bertan ahalik eta hobekien bizi

ahal izateko". Zaintzaren ikuspegi honek aditzera ematen digu denok egiten dugunak eragina duela, hau da, elkarren mendeko gabela, baita planetarekiko ere, beraz, elkarrekiko mendekotasunaz eta ekomendekotasunaz ari gara. Gainera, zaintza etengabe egin beharreko zerbait da, egunean 24 orduz, astean zazpi egunez, zaintza ezin da geratu, bizitza bera ere geratzen ez delako.

Horrela konturatzen gara denok zaurgarriak gabela, elkarren beharra dugula eta bizitza ez dela berezkoa, egunero egin eta berregin beharrekoa dela. Zentzu horretan dakigu denok behar ditugula zaintzak, bizitzaren ziklo osoan zehar, nahiz eta momentu batzuetan (haurrak edo zaharrak garenean, gaixorik gaudenean...) zaintza horiek intentsitate handiagokoak izan beharko diren. Baina zaintza ikuspegi horren zabaletik begiratzeak arazoak ere sor ditzake: Non hasi eta bukatzen da zaintza?

Horregatik, zaintzaren alderdiak aztertu ahal izateko, dimentsio ezberdinak identifika ditzakegu. Zehazki, hiru dimentsio dauzka zaintzak: dimentsio materiala, dimentsio subjektiboa eta dimentsio soziala. Hala, zaintza, haren dimentsio materialean, zerbait konkretua da, ohe bat egitea adibidez, argi dago noiz hasi eta bukatzen den ekintza, esan genezake noiz dagoen ohe bat eginda eta noiz ez. Zaintzari dimentsio honetatik begiratzea interesgarria da, izan ere, ikuspegi honek posible egiten baitu zaintza-lanak zenbatu ahal izatea eta posible egiten du esatea zaintza lan bat dela eta denbora eta energia gastuak suposatzen dituela.

Zaintzak besteekin harremanetan jartzen gaituenez gero, ekintza erlazionala ere bada, subjektibotasunarekin zerikusi zuzena du, hori da zaintzaren bigarren dimentsioa, neur ezin daitekeenari estuki loturik

dagoena. Zaintzaren dimentsio hau neurgaitza zaigu, izan ere, noiz da pertsona bat pazientzia nahikoz tratatua? Nola zenbatu dezakegu zein aditasun mailarekin entzuten dugun pertsona bat? Edo zenbaterainoko goxotasunez tratatzen dugun? Dimentsio honek zaintzaren etikari ere egiten dio erreferentzia, besteekiko begirunean eta arduran oinarritzen baita. Tradizionalki, zaintzaren alderdi subjektibo hau emakumetasunari estuki lotu izan zaio, emakumeek jaiotzatik izan duten abilezia bat bailitzan tratatu da, maitasunarekin, goxotasunarekin, ardurarekin, pazientziarekin, eta orokorrean, alderdi emozionalarekin lotutako jarduerak emakumeon esentzia direla esateraino. Honek zerikusia du zaintzaren alderdi moralarekin, hau da, zaintza genero-arauek markatutako betebeharra bilakatzea.

Hori zaintzaren hirugarren dimentsioarekin, zaintzaren dimentsio sozialarekin, lotu dezakegu. Lehenago ere esan dugun eran, zaintza testuinguru historiko eta geografiko guztietan ez da berdin definitu, ez da berdin antolatu eta beraz, XXI. Mendean, Euskal Herrian dugun zaintzaren antolaketa testuinguru zehatz honetara dago lotuta, ez da unibertsala, ez da bakarra, eta jakina, alda daiteke. Dimentsio honetan pribilegioez eta zapalkuntzez ariko gara, zaintza-lanak ez baitaude gure gizartean era orekatuan banaturik. Zaintza-lanek ez dute aitortzarik gure gizartean eta horregatik, zapalkuntzarekin daude zuzenean konektatuta. Hala konturatzen gara zaintza-lanak inork egin nahi ez dituen lanak direla askotan, gero eta pribilegio gehiago orduan eta zaintza-lan gutxiago egiten saiatzen gabela.

Zaintza-lan guztiak ez dira berdinak, batzuek aitortza sozial handiagoa daukate, beste batzuek txikiagoa, batzuk ez dira ikusi ere egiten. Hala, ezinbestekoa da ohartzea ez dela berdina haur batekin jolastea edo harrikoa egitea, ez dela berdina bazkaria prestatzea edo dependentzia

maila handia duen pertsona bat dutzatzea. Zaintza-lan batzuek beste batzuek baino aitortza txikiagoa daukate, batzuk nazkagarri kontsideratzen ditugu eta beste batzuk erromantizatu egiten ditugu. Kontua da denak direla beharrezkoak bizitzari eusteko, eta ez hori bakarrik, zaintzaren antolaketa desorekatua izatea ez dela kasualitate hutsa.

Imajina dezagun iceberg bat. Zaintza-lanak ur azpian ezkutuan dauden horiek liriteke. Gainean, agerian, legoke lan ordaindua, lan produktibo kontsideratutako hori, balioa eta aitortza duena. Hala ere, azpikorririk gabe, gainekoa ondoratu egiten da. Zaintza-lanak ur azpian daude, eta ur gainean dauden lanak baino askoz bolumen handiagoa hartzen dute. Ez ditugu ikusten, baina ezinbestekoak dira sistema osoari eutsi ahal izateko, icebergaren gaineko zatiak behekoa behar duen bezala flotatzen jarraitzeko.

Zaintza eta herri hezkidetzailleak nola elkartzen diren galderari erantzunez, zaintza lanak, esan dugun moduan, badauka dimentsio soziala, ekonomikoa eta politikoa (ezinbesteko lanak dira baina ez dira aitortuak, ez dira ekonomia ofizialean zenbatzen, ekonomia informaldaren baitan burutzen dira sarri, edo etxean musutruk, edo gizarte-zerbitzuen bidez baina lan baldintza prekarioetan). Hortaz, ezinbestekoa da jendarte mailan lan hauei balioa ematea eta banatzea. Zaintza eskubide kolektiboa beharko luke izan (guztiok eskubidea izan beharko genuke zainduak izateko, baina baita ardura hartu beharko genuke zaintzaren eremuan). Ez da kontu pribatua, soziala baizik eta zentzu horretan gizarte osoaren inplikazioa ezinbestekoa da (baita gizonena eta emakume pribilegiatuen ere). Zentzu horretan, bat egin dezake hezkidetzako udalerrien ideiarekin. Ezinbestekoa da zaintza modu transbersalean lantzea: hezkuntza, osasungintzan, enpleguaren arloan, eta abar.

12Nubes

12Nubes gizarte- eta hezkuntza-berrikuntza inklusibo baterako proposamena da. Hezkuntza-ekintza formala espazio ez-formalarekin lotzen du, sareko hausnarketa eta herritarren parte-hartzea sustatzearen bidez. Gazteen aktibazioa, parte-hartzea eta sorkuntza funtsezko estrategia bezala erabiltzen ditu, eta gazteak dira protagonista nagusiak.

12Nubes taldea gazte arduradun askok osatzen dute eta gazte horien ezaugarri nagusiak honako hauek dira: aniztasunaren garrantzia azpimarratzea zentzu zabalenean, elkarri laguntzeko sareak sortzea, komunitatearen egituraren parte hartzea eta aktibatzea, norberaren eta besteen sentimenduak eta emozioak ezagutzea eta aitortzea,... Hori guztia enpatia, belaunaldiartekoa, inklusioa, elkarrekiko laguntza, erantzukidetasuna, berdintasuna eta beste asko gizarte- eta talde-balio bihurtzearen bitartez.

Esperientzia pedagogiko oso bezala ulertzen da, hezkuntza-ekintza integratu nahi duelako mundu birtualean mundu errealeko ekintzarekin, hezkuntza formala ez-formalarekin. Eta hori gertuko pertsonen sare gero eta handiago batetik abiatuta (profesionalak, gizarte-eragileak, bizilagunak...) eta esperientzia komunitatean parte hartzera irekita. Horrela egituraren aldaketa txikiak sortuko dira, ongi-bititze orokorrean eragina izanik.

12Nubes proiektua Kaleko Heziketarako Udal Programaren (Kalez kale) barruan kokatzen da. Irse-Arabak kudeatzen du eta Gasteizko El Pilar eremuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren barruan dago. Gaur egun 12Nubes El Pilar KHPren hezkuntza-bitartekotza nagusia bihurtu da.

Hitzaldia

Ekimenean eta auzoan parte hartzen duten pertsonen zaintza-praktikak sartzean komunitatearen parte hartzeak zer ekartzen duen gaiari dagokionez, 12Nubes proiektuan nerabeak eta gazteak sartzeak hiru esku-hartze eremu errazten eta integratzen ditu: banakakoa, taldekoa eta komunitarioa. Eta hausnarketa, autokritika eta aldaketa ahalbidetzen ditu. Hasieratik, proiektuaren helburu nagusietako bat izan da gazte taldeak espazio komunitarioetan parte har dezaten sustatzea. Gainera, “zaintza” kontzeptua banaka eta taldean lantzea ere helburu izan da.

12 Nubes proiektuaz gero, parte-hartze komunitarioa dagoeneko berez zaintza-praktika bat dela ulertzen dugu. Baita talde-nortasuna eta proiektuko eta auzoko kide izatearen sentimendua indartzeko balio duela ere. Orokorrean, parte-hartzea toki libre eta irekietan egiten da eta balio dute genero-ikuspegitik eta belaunaldien arteko ikuspegitik autozaintza- eta zaintza-prozesuetan sakontzeko. Hori funtsezkoa da El Pilar auzoaren ezaugarriak kontuan hartuta.

Beste ekarpen bat auzoan bizi garen belaunaldien artean esperientziak eta bizipenak partekatzearen garrantzia da, bertan bizi garelako edo hainbat arrazoirengatik parte garelako (bertan ikasi edo lan egiten dugu, bertan bizi ginen, gertu gaude...). Horri esker, gure egoeraz eta zainketei buruzko norberaren eta taldeko premiez ohartu ahal izango gara. Horrela auzoko gainerako gizarte-eragileekin (zentro okupazionala, ikastetxeak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, adinekoen zentro soziokulturala...) batera hautematen diren premiak ikusarazi ditzakegu eta ekin diezaiekegu.

Sareko lanaren garrantziaz eta garatzen ditugun zereginenez jabetzea eta horien garrantzia azpimarratzea, gertuko ingurune komunitarioetan (auzoan, ikastetxeetan...) egitearen bidez. Baita haien eragina handitzearen bidez ere mundu-mailako ingurune komunitariora eramanda: sare sozialak eta ingurune birtualak.

Pertsonen parte hartzeko eta parte sentitzeko egiten dugunari dagokionez, 12 Nubes proiektutik badakigu **herritarren parte-hartzea** tresna bat gehiago dela gizarte bidezkoagoa, berdinzaleagoa, solidarioagoa eta bateratuagoa lortzeko. Ondorioz, gure iritziz herritarren parte-hartzea eta gure konpromisoa funtsezkoak dira gizartea osatzen dugun guztion ongizatea lortzeko. Horregatik da hori proiektuaren helburu nagusietako bat.

Gure inguruan egiten ditugun hainbat ekintzen bidez, komunitate osoaren parte-hartzea sustatzen saiatzen gara: norbanakoena, hezkuntza-komunitatearena, elkarteena... Baina, bereziki, beren kabuz parte hartzeko zailtasun handienak dituztenena: adinagatik, hizkuntzarekin zailtasuna izateagatik, baliabide faltagatik...

Badakigu parte hartzen duten pertsonak jardueren parte sentitzen direla, baina baita pertsona bakoitzaren denborak eta prozesuak errespetatu behar direla ere. Horrela, proiektuan eta jardueretan parte hartzea librea eta askotarikoa da. Pertsona bakoitza horretarako prest eta motibatuta sentitzen denean da partaide eta beti utz diezaioke parte hartzeari, erabakia baloratzen eta zalantzan jartzen hasi gabe.

Egindako galderari erantzuteko hausnarketa eginez, burura datorkigu parte hartzen duten pertsonak eroso sentitzen ote diren hori eginez.

Begiratu batean, erantzuna baiezkoa da. Eta horrela dela uste dugu, nagusiki giro eroso eta lasaia nagusi den espazio seguruak sortzen saiatzen garelako. Baina, nola egiten dugu? Zer lantzen dugu jendeak parte har dezaten? Zer eskaini dezakegu?

- Proiektuak banakako eta taldeko nortasuna ematen digu. Horrek gure autokontzeptua indartzen du, gure zailtasunez eta aldaketak eragiteko talde bezala ditugun gaitasunez jabetzen gara. “Somos 12Nubes”.
- Segurtasuna eskaintzea, epaitu edo barregarri utzi gabe argudioak edo ideiak azaltzeko libre senti daitezen.
- Parte-hartze proaktiboa eta horizontala lantzea. Adina, generoa... bezalako alderdiek ez dute zailtasunik ekarri behar, aukera bat baizik.
- Komunitatea erabakiak hartzen inplikatzeko, batez ere auzoko dinamikekin zerikusia dutenetan, eta beti etorkizuna eta aldaketa kontuan hartuta.
- Gizarteko ahalduntzea lantzea.
- Gure auzoaren historia ezagutzea, dauden beharrak antzematea, zailtasunen aurrean sentsibilizatzea eta auzoaren eta biztanleriaren ahalmenei garrantzia ematea.
- Komunitatearen premiei erantzutea, norbanakoen onuretatik harago.
- Zeharkako ekintzak egitea halako kontzeptuak lantzeko: “tratu ona”, “generoaren eta sexuaren ikuspegia”, “zainketak”, “belaunaldien artekoa”...

Azken finean, espazio seguru, eroso eta gertukoak eskaintzen jarraituko dugu, pertsonen parte hartzen jarrai dezaten. Halaber, jende berriaren parte-hartzea erraztuko dugu, proiektuaren eta bizi garen komunitatearen parte senti daitezen.

Auzozaintza sare publiko-komunitarioa (Zabalduz eta Maitelan Kooperatibak)

Zabalduz Kooperatiba

Urteak daramate babesgabetasun eta gizarte bazterketa egoeran dauden nerabe eta gazteekin esku hartze sozialaren esparruan lanean eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Babes eta Inklusio sareko hainbat egoitza-baliabide (larrialdiko egoitza, emantzipazio eta inklusio pisuak, egoitzak...) kudeatzen. Horrez gain, esku hartze komunitarioaren eta inklusio soziolaboralaren esparruan ere, beste hainbat proiektu berritzaile dituzte eskuartean. Aktiboki dihardute sareetan eta beraien balioak partekatzen dituzten hurbileko erakundeekin lankidetzak berriak sortzen.

Hitzaldia

Auzozaintza programaren aurkezpen laburrari dagokionez, askotariko beharrei erantzuteko sortzen da.

Auzozaintza programak, alde batetik, baliabide gutxi dituzten eta hurbileko senideen konpainiarik ez duten edota inguruko pertsonen laguntza edo zaintza jasotzen ez duten (bakardade ez hautatua) hirugarren adineko pertsonen behar sozial eta psikikoei erantzuteko akonpainamendu sozio hezitzaile eta komunitarioko esku hartze eredu espezifiko bat proposatzen du.

Aldi berean, zaintza lanetan aritzen diren, eta zerbitzu honetan lan egingo duten emakume migratzaileen lan baldintzak duintzea eta hauen prozesu sozio-laborala bultzatzea bilatzen da.

Azkenik, komunitatea aktibatzea bilatzen da komunitate zaintzaileak sortu eta eraikitzeko.

Zaintzaren merkantilizazioari dagokionez, irabazi asmorik gabeko bi kooperatiba gabiltza elkarlanean: Zabalduz kooperatiba eta Maitelan kooperatiba.

Hernanin, Auzozaintza bezalako programa bat ahalbidetzen duten zenbait kasuistika eman dira.

2016. urtean abiatu zen prozesua, tokiko garapenerako agentzia sortzeko prozesuarekin batera, enplegu sozialeko egitura berria sortzean. Guneak helburu gisa zituen bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzea, zein menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta eta ongizatea handitzea. Egitura hori enplegu sailaren eta gizarte zerbitzuen artean artikulatu zen eta asmoa gune iraunkorra sortzea izan zen. Bi helburu horiek betetzeko hainbat egitura proposatu ziren, eta tartean sektorerako foroak betetzeko proposamena egin zen. Foroak tresna gisa irudikatu ziren bazterkeria egoeran dauden pertsonak eta gaiaren bueltan lan egiten duten eragileak subjektu bilakatzeko. Foroen lehen egitekoa, beraz, gai zehatzei lotuta norbanako eta eragile/elkarleen ezagutzak, beharrak, gaitasunak zein desioak jasotzea izan zen, horien arabera politika publikoen diseinua bideratzeko eta exekuzioa aldatzeko. Laburbilduz, administrazio publikoa eta arlo komunitarioa elkar lotzen zituzten guneak irudikatu ziren.

Zaintzaren arloan sakontzen hasteko, **Beterri-Buruntza eskualdeko zaintza zerbitzuen beharrak eta mendekotasunaren gaineko erradiografia soziodemografikoa egin zen** eta honako ondorioak atera: Hernaniko populazioak zahartze tasa altua du (% 24,4), bakarrik bizi diren pertsona asko daude (horien artean emakumeak dira gehiengoa), eta eskaintzen diren zerbitzuek ez dituzte zaintza intentsiboko behar guztiak asetzen, eta, ondorioz, etxeko langileen kontratazio pribatua altua da.

Horiek horrela, eta ikusita etxeko langileen egoera guztiz prekarizatua dagoela eta horietako emakume asko egoera irregularrean daudela, beste ekimen bat jarri zen martxan: Zaintza Kooperatiba integrala (Maitelan) sortzeko prozesua.

Bestetik, **Beterri-Buruntzaldean zaintzaileen diagnostikoa** egin zen, non zaintzaile profesionalen beharrak zein ziren agerian geratu ziren.

Aurretik aipatu ditugun ekimen eta aldagai horiek guztiak kontuan hartuta, eta Covid-19ak azaleratu dituen behar guzti horiei erantzun berri eta berritzaileak eman nahian, Hernanin udaletxeak adin nagusikoei bideratutako zerbitzu berri bat jarri nahi izan zuen, **Zaintza lanak demokratizatzeke ekintza plana** osoa egin aurretik.

Horrela, Auzozaintza programa Hernani Burujabe egitasmoaren barne kokatzen da herriko beste eragile batzuekin batera, zainketen krisia artatu eta hauen demokratizazioa egi bihurtzeko helburuarekin.

Elementu guztiak kontutan hartuta, Auzozaintza Sare Publiko Komunitarioa diseinatu da eta hurrengo lan lerroak garatzen ditu:

- **INFORMAZIO SISTEMA (Teknologia)**

Plataforma teknologiko bat da, aukera ematen diguna bakardade egoera hauskorren detekzio goiztiarrerako, hauskortasun mailaren arabeko profilen sailkapenerako eta hauen jarraipenerako.

Udalak eskuragarri dituen informazio iturri ezberdinak gurutzatzen ditu (errola, katastroa, gizarte zerbitzuetako informazioa...) hauskortasun neurtzeko *ad-hoc* sortutako adierazle multzo batekin. Honez gain, komunitatearen begirada (dendariak, farmaziak, adinekoen elkarteak...) eta profesionalen (gizarte laguntzaileak, erizainak, udaltzainak...) pertzepzioak txertatzeko aukera eskaintzen du. Era horretara, udaleko Gizarte zerbitzuei herriko errealitatearen gaineko informazio eguneratua izatea ahalbidetuz.

- **AKTIBAZIO KOMUNITARIOA (Auzozainak)**

Sentsibilizazioaren bidez (begirada soziala), komunitateko boluntario eta eragile komunitarioen (Auzozainak) aktibazioa eta konpromezua bilatzen du, bakardade egoera hauskorrean dauden pertsonen bizi kalitatea hobetzeko.

Zaintza sare publiko-komunitarioa artikulatuz, Komunitatearen konpromiso anitzei bide emango zaie, parte hartze mota ezberdinak (Auzozainak) bermatuz:

- Auzozain profesionalak: egunerokotasunean pertsona hauekin harreman zuzena duten profesionalak (medikua, farmaziako langilea, udaltzaingoa...).
- Auzozain pertsonalak: programako onuradun baten zaintza eta akonpainamendu prozesuan konprometitzen diren pertsonak. Boluntario hauek, APP bidez Gizarte zerbitzuekin konektatuak egongo dira.
- Auzozain dinamizatzaileak: ekimen komunitarioak (asteroko elkarguneak, aisialdi eta kultur jarduerak, elkar ezagutzeko espazioak...) dinamizatzen laguntzen duten boluntario eta eragile komunitarioak.

- **AKONPAINAMENDU SOZIO-HEZITZAILE ETA KOMUNITARIOA**

(Esku-hartze soziala)

Bakardade egoera hauskorrean edo zaugarrian dagoen pertsonaren errealitate, motibazio eta beharrak esku hartzearen zentroan jarriz, bakardadetik komunitatean bere bizitza modu autonomoan garatzeko akonpainamendu zerbitzu bat eskainiko dion esku hartze zerbitzu izango da. Zerbitzu honek bakardade ez hautatuak azkartu ditzakeen narriadura prozesuak (osasun fisiko eta psikologikoa, harreman sozialak...) eta gizarte bazterketa eta mendekotasun egoerak ekiditea edo atzeratzea du helburu, zahartzaro aktiboa, parte hartze soziala eta inklusio komunitarioa sustatuz.

- **INKLUSIO SOZIO-LABORALA**

Inklusio soziolaboralaren bidez zaintza eta mendekotasunaren esparruan lan egiten duten eta gizarte bazterketa arriskuan -edo egoeran- dauden emakume migranteei beraien bizi eta lan baldintzak hobetzen laguntzea du xede zerbitzu honek. Akonpainamendu sozio hezitzaile eta komunitarioaz arduratuko diren profesionalak profil honetako pertsonak izan dira eta beraien lanaldiaren % 15 formazioa eta euskara ikastera bideratuko dute. Kalitatezko enpleguaren bidez beraien arteko elkar laguntza, ahalduntzea eta formazioa sustatuz.

Auzozaintza programatik, **erresistentzia ugariarekin egin dugu topo** programa garatzerako garaian. Erresistentziak bakardadearen errealitatearekiko, erakundearen arteko lankidetzarekiko, prozesuak eta proiektua garatzeko behar dugun denborarekiko, edota lortutako emaitzak modu kuantitatiboan kuantifikatzeko behararekin identifikatu ditugu besteak beste. Hona hemen, identifikatzen ditugun erresistentziak:

1. Bakardadearekiko erresistentziak.

- Bakardadea ikusezina eta subjektiboa da, pertsona adina bakardade daude.
- Pertsonak eta familiak bakardadea onartzeko zailtasuna egoten da. Gizarte mailan, gai tabua da bakardadeari buruz hitz egitea. Errua adierazten du, eta estereotipoek zahartzaroan bakardadea izatea sustatzen dute, bakardadean egotea egoera naturala baita.
- Bakardadearen pertzepzioa edonork sentitu dezake edozein adinetan, baina adineko pertsonetan, hauskortasuna areagotu dezake ten egoerak elkartzen dira. Fenomeno soziala da.
- Erakunde publikoek edo baliabide komunitarioek nekez identifikatu dezakete bakardadea, bakardadea dagoen lekuraino joan behar baita, eta, normalean, isolatuta eta espazio pribatuetan ematen dira.
- Adinekoentzako sozializazio-espazioen beharra aldarrikatzea. Askotan, familiak (seme-alabek batez ere) behar instrumentalak asetzen dituzte, baina ez dituzte berdinen arteko sozializazio-beharrak asetzen (eta ez dituzte asebeteko). Familiatik haratago harremanak izateko espazioak beharrezkoak dira.
- Bakardadea porrot pertsonal gisa bizi da (pertsona urdea) edo familia gisa (abandonatzen duen familia) eta ez gizarte-fenomeno gisa.
- Adineko pertsonen infantilizazioa edo tutoretza instituzionala sor daiteke beharra egon gabe.
- Logika kapitalista eta teknokrata batetik abiatuta, bakardadea, bakardadea arintzen duten jardueren “kontsumo” batetik lantzea planteatzen da. “Azken produkturik” edo “emaitzak ikusgarriak” (erakusketa, jaialdi, artisautza,...) ez baldin badira lortzen Instituzioek erresistentziak jartzen dituzte.

- Komunitate bat izatea beharrezkoa da bakardade ez hautatuan bizi diren pertsonekin gizarte-hezkuntza esku-hartzeak garatzeko.

2. Erakundeen arteko lankidetzaren buruzko erresistentziak.

- Lankidetzaren lanak borondatea eta konfiantza eskatzen ditu hainbat lanbideren (gizarte-hezitzaileak, gizarte-langileak, erizainak, medikuak, udaleko teknikari edo figura politikoak...) eta hainbat erakunderen artean. Bidezko harremanetatik erantzukizuna partekatu behar da.

3. Denborarekiko erresistentziak.

- Denbora behar da auzoetan gertuko eta esanguratsu eragile bihurtu ahal izateko.
- Denbora behar da auzoko laguntza eta ekintza komunitarioko sareak sortzeko.
- Bakardade ez hautatua -egoeran dauden pertsonen ohituretan eragiteko denbora behar da eta prozesu baten barne ematen dira aldaketa hauek.
- Askotan, proiektuek ez dute behar adina denbora lurralde batean, eta ez dute ahalbidetzen pertsonengan benetan eragitea. “Denbora galtzeak” ez zaio garrantzia ematen eta ez da baloratzen “denbora inbertsio bat” bezala.

4. Erresistentziak, gizarte produktibista edo pentsamendu zientifikoko gizarte batean emaitzak kuantifikatzeari dagokionez.

- Zaila da lorpenak kuantifikatzea, garrantzi handiagoa ematen bazaio nola eta zertarako baino. Neurtu ezin izan diren esku-hartzeak justifikatzeko zailtasunak egoten dira.

Ondorengo lerroetan, bakardadea sentitzen duten pertsonekin **lantzen ditugun estrategiak**, eta hauekin esku-hartzerako garaian kontuan hartzen ditugun gakoak aipatuko dira.

Bakardadeari aurre egiteko estrategiak:

- Beharrezkoa da gizartea sentsibilizatzea sozializazio-espazioen beharraz eta zainketa-lanen beharraz.
- Erantzukizun komunitarioa eta konpromiso soziala bultzatzea. (adibidez: administrazio publikoak konpromisoa eta apustua egin behar ditu, baina ez dute “baliabiderik” jarriko bizilagunak egunero zuri “egun on” esateko).
- Pertsonengana jo, ez itxaron iritsi arte.
- Gizartean estigma haustea eta bakardadea eragiten duten gizarte-faktoreak identifikatzea. (irisgarritasuna, komunitate-bizitzarik eza, merkataritza txiki eta hurbileko falta, zainketen eredu familiarista, gizarte-profil batzuen isolamendua, hiri-diseinua, masifikazioa).
- Pertsonen agentzian pentsatuz lan egitea, subjektu aktibo eta eraldatzaile gisa. Ekintza paternalistak ekiditea edo adinekoak pasiboak eta zerbitzu hartzaileak direla pentsatzea saihestea. Adinekoek zainketak behar dituzte, baina, aldi berean, auzoko beste pertsona batzuk zaintzeko aukera dute.

- Auzo bakoitzeko dinamiken ezagutza izatea. Horretarako, inguruko bakardadearen gaineko diagnostiko kualitatibo bat eta baliabide errekurtsuen mapatze bat egitea ezinbesteko premisa da.
- Teknoadineko informazio sistema erabili eta elikatzea ezinbestekoa da, egoera zaurgarrian aurki daitezken adinekoen detekzio, sailkapen eta jarraipenerako.
- Ikuspegi prebentibotik lan egitea.
- Elkarlan publiko-komunitarioa ahalbidetzeko espazio (koordinazio espazioak) eta tresnak (Teknoadineko APPa) izatea.
- Agente komunitarioen inplikazioa (administrazio publikoa, herriko eragileak, bizilagunak...).
- Egoera zaurgarrian egon daitezken pertsonetara iristeko estrategia pertsonalizatuen beharra.

Esku hartzeko gakoak:

- Adinekoen arteko elkarguneak sortzea, haien parte-hartzea sustatuz. Gehienetan, taldeko espazioetan parte hartzeko aukera gutxi izan dituzten emakumeak dira. Funtsezko lana egin behar da parte-hartzaile bakoitzarekin, parte hartzeko trebetasunak barneratuz.
- Denbora galduz “egon” kontzeptutik denbora “inbertitzera” pasatzea. “Produktibitate ezaren” garrantzia, beti modu planifikatu eta antolatuan eginez gero.
- Komunitatean dagoenarekin lan egitea eta haratago ez itxarotea. Auzo bakoitzean funtzionatzen duenari balioa ematea eta haien elkartasun harremanak ezagutzea. Komunitatea kontzeptua erromantizatu gabe.
- Pertsonalizazioa oinarri dute esku hartze eredu berritzaile bat oinarri izatea, ikuspegi asistentziala gainditzeko.

Maitelan Kooperatiba

Maitelan gizarte-ekimeneko kooperatiba integrala da, erakunde berean antolatu nahi ditu langileak eta erabiltzaileak. Helburua da pertsonen zainketa- eta arreta-zerbitzuak eskaintzea. Langileek eta erabiltzaileek zerbitzuaren zer, nola, noiz eta nola erabakiko dute. Enpresa bat baino zerbait gehiago izan nahi du, zainketak guztioi interesatzen zaizkigula uste duten pertsona eta erakunde guztientzat topaleku izan nahi du.

Egoera horri erantzuteko Maitelan bezalako proiektu gehiago behar dira. Zaintzan aritzen diren emakume migratzaileen kooperatiba bat da. Irabazi askorik gabeko gizarte-ekimena eta helburu du zaintzen ditugun erabiltzaileen eta emakume langileen zaintzak duin egitea.

Horren bidez, hau da, zainketa-lanak profesionalizatzearen bidez lortu nahi dira bai emakume migratzaileak gizarteratzea eta laneratzea, bai komunitateari ongizate-egoera sortzea ere. Horrela, komunitate migratzaileari buruz mantentzen diren aurreiritziak aldatu ahal izango ditugu, aurreiritzi horiengatik gizarte eta lan mailan integratzea zaila egiten baitzaigu. Lan horiek, batez ere, emakume arrazializatuak egiten dituztela ulertzen da, gizonak ez baitira lan horietan parte hartzen ari.

Emakume horiek beharrezkoak, erabilgarriak eta ezinbestekoak dira gizarte osoaren ongizate-egoera lortzeko.

Maitelan bezalako proiektuak hainbat partaide elkartzean sortzen dira: lankidetzak eta borondate publikoak, AMHER (Hernaniko Elkarte Multikulturala). Hori da osagai bultzatzailea, kontzientzia soziala eta feminista eta lan egiteko gogoak duten emakumeen indarra. Lan-baldintzak hobetzea eta beste emakumezko lankide batzuentzat bultzada eta eredu izatea bilatzen duten eta gure lan-egoera aldatu daitekeela erakutsi nahi duten emakumeak.

Zaintza sortzeko moduari dagokionez, Margaret Meadek esan zuen ezagutzen den lehen gizakien aztarna femur sendatu bat dela. Horrek esan nahi baitu beste gizaki batek zaindu, sendatu, elikatu eta babestu zuela pazientziaz eta itxaropenez.

Programa bezala dugun ikuspegitik, baloratzen dugu ematen ari garen zainketek balioa ematen diotela, alderdi guztietatik egiten baita: eguneroko bizitzako oinarrizko premiak asetzeaz gain, gizarte-premiak ere bete behar dira.

Laguntzen diegu bizi-proiektuak egin ditzaten eta norberaren **historiaren subjektu proaktibo senti daitezen, horrela bizi-kalitatea eskainita**.

Partekatuakoa

Parte-hartzaileen galderak

• **(Ber)esentzializazioarako arriskua dago boluntario eta langile guztiak emakumeak baldin badira?**¹

• **Auzo zaintza programaren finantzazioa nondik dator?**

Foru Aldundia, Hernaniko Udaletxea eta Josefina Rubio-ren herentzia. Lau urteetarako finantzazioa da.

• **Beste mota bateko erabiltzaileak hartzen al dira kontuan Auzozaintza programan?**

Haurtzaroei, ludopatiei, gaixotasun mentalei, ezintasunei eta abarri lotutako ideiak proposatu dira. Baina ez dira martxan jarri.

• **Zerk piztu zuen Auzozaintza programa?**

Hainbat faktoreen batura: pandemiaren ondoren sortutako kezka, herentzian (2016koa) oso argi jartzea...

• **Eskolak eta ikasleak ere auzo zaintzaileak izatea planteatu da, hots, komunitatearen parte bezala lotu dira?**

Oraindik ez da ezer planteatu zentzu honetan. Orain arte egindakoa oso puntuala izan da, zehazki *chapa-chapa* jolasean haru-eman bat.

• **Nola sostengatuko dute Auzo-zaintza programa 4 urte hauen ondoren?**

Oraindik ez dute pentsatu baina baloratu beharreko zerbait da.

Hitzaldia

Emakume migratzaileak izanik, zaintza-lanetan lan egiteak gizarteratzea dakarrela edo bazterrean mantentzen gaituela pentsatzeari dagokionez, gaur egun emakume migratzaileen ohiko egoera Etxeko Zerbitzuaren erregimen berezi batean lan egitea da, edo ezkutuko ekonomian, bateragarriak ez diren ordutegietan eta atzerriartasan lege baztertzailerik batekin.

Beraz, lan eremuan gizarte-bazterketatik gertu gaude. Batzuek gure jatorrizko herrialdeetan lanbide-heziketa izanda ere, etxeko zerbitzuan bakarrik lan egiten uzten digute, nahiz eta gehienetan hemen gutxietsita dauden zaintza-lanak egiten ditugun, babestuko gaituzten ziurtasun askorik gabe.

¹ Galdera hau ez zen erantzun.

Erronkak

- Zaintza zer den definitzea ezinbestekoa da baina ez da erraza, oso eremu zabala baita, nahiz eta modu zabal batean ulertzea interesgarria izan daitekeen ere bai.
- Apustu politikoaz gain, komunitatearen ardura egotea.
- Prozesu luzeak beharrezkoak dira eta hauek bultzatzea oso zaila da.

Erreferentziak

- [Berenice Fisherek](#) eta [Joan Tronto](#).
- [Margaret Mead](#): aurkitu den zaintzaren lehen aztarna sendatu zen femur hautsi batena izan da.

Tentsioak eta eztabaidak

Zabalduz-ek plazaratutako tentsio bat erabiltzaileen aurreiritziak lantzearen beharra izan zen. Emakume latinoak ez ikusteko paseora eramaten dituztenak bezala, baizik eta irakurketa askoz zabalagoa egiteko eta bidelagunaren kontzeptua barnebiltzeko egunerokotasunean, hau da, utilitarismotik urruntzearen tentsioa.

Emozioak

Gustura egotea bilatzea.

HERRI HEZKIDETZAILEAK MAHAI INGURUA: ZAINZA(K)

12 nubes
Es más una familia que un grupo.

La mayoría nos conocemos del instituto y la gente va llegando por el boca a boca.

Antes el grupo era más mixto ahora la mayoría de las personas que formamos el grupo somos chicas.

Gran parte del grupo somos jóvenes racializados y migrantes, **ESO SE NOTA EN NUESTRO PROCESO**. Casi todo el mundo que participa en nuestras actividades y proyectos son mujeres.

GASTEIZ
El centro de salud. Tenemos muchos proyectos en el barrio.

LA PARTICIPACIÓN ESTÁ RELACIONADA CON EL CUIDADO. El grupo es un apoyo tanto para formarnos como para seguir adelante.

Priorizamos cuidarnos a nosotras mismas y al grupo. No creemos tanto en la productividad. Sentirte parte de un grupo te hace sentir bien.

INTERDEPENDENCIA

trabajo pedagógico para escuelas Junto con Alboan

Vengo de la academia. He realizado un estudio sobre cuidados y trabajos domésticos en la UPV/EHU

Lo 1º es buscar una definición: **¿QUE ES CUIDAR?** Se entiende de una forma amplia en la que se interconectan muchas cosas

ECODEPENDENCIA

flora animales Lugar geográfico momento histórico

3 DIMENSIONES Todo el mundo necesitamos cuidados en nuestro ciclo vital

SUBJETIVA no es algo aislado

MATERIAL tiempo energía

SOCIAL La organización de los cuidados es VARIABLE

ÉTICA DE LOS CUIDADOS Roles de género

El trabajo reproductivo No tiene valor

MUNICIPIOS COEDUCADORES ámbito local

VISION TRANSVERSAL de los cuidados: sanidad educación empleo

ENTORNO CERCANO El cuidado tiene que ser un DERECHO COLECTIVO pero también tenemos la responsabilidad de IMPLICARNOS

INDIVIDUO SISTEMA PUBLICO DE CUIDADOS

COMUNIDAD ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

ES UNA RED DE CUIDADO VECINAL

Tenemos relación con el centro de salud, las trabajadoras del hogar, servicios sociales... Intentamos ver cómo coordinarnos entre todas.

En 2020, tras el confinamiento y con la pandemia, se hizo un diagnóstico en Hernani desde el ayuntamiento.

Se crea la cooperativa **MATELAN** para a la vez promover la inclusión sociolaboral de las mujeres migrantes que trabajan en el ámbito del cuidado y la dependencia.

La cooperativa busca dignificar los cuidados y a las personas que los hacemos.

En Hernani creemos en la soberanía de los cuidados

Esta figura te ayuda a conectar con el barrio, pero no hace otros labores de cuidado como la limpieza.

Hay una figura que son los **ACOMPANANTES** que son claves para nuestros objetivos. Son personas voluntarias, personas del barrio.

Los recursos públicos deben ser para todos y desde la comunidad debemos responsabilizarnos también de los cuidados.

Organizamos pasos vecinales para charlar, fomentar espacios de relación.

Es difícil cuantificar nuestros avances, no somos un producto, pero se está estudiando el impacto positivo en la salud de las personas del programa.

Hay que invertir TIEMPO en estas personas.

FEM GARA BAI

Herriarregandik herrietara

Miren Aranguren
Jone Urionaguena
Miren Beitia eta Alazne Goñi

Miren Aranguren (MEFSST Musika Errebolta Feminista)

Punk eta hardcore kontzertuetan emakumeek presentzia eskasa ikusita, eragiteko gogoak elkartu zituen jaialdiaren antolatzaileak. Zarautzen kokatuta eta gehienbat emakume, bollera eta transez osatutako taldeekin antolatuta. Musikarekin batera, hainbat gai lantzen ditu tailer, mahai-inguru eta film emanaldien bitartez. Musikaren hainbat arlotan emakumeak ahalduntzeko bideak sortzen saiatzeaz gain, eztabaida pizten ahalegindu dira, musikaren arloko sexu eta genero bereizketa erdigunean jarritz. Ikuspegi integrala baita MEFSST!-ena.

Hitzaldia

Musika errebolta feminista Putzuzulon: Mefsst jaialdiaren kronika

Erosoa, konprometitua baina ez konprometigarria, plazera, festa, eragilea, lagunak egiteko gunea, espazio segurua, ametsak egikaritzeko gunea. Topagunea, jarrera, ahalduntze kolektiboa, dantza, sormena, esperientziak elkarrekin, ilusioa eta amorruek partekatze gune, elkarregandik ikasi, esperientziak ikusgai egitea, zaintza, EH-ko eszena, eszena oholtza baina gehiago da, iruditeria berriak, kodigo berriak, aliantza feministak, udalekuak.

***Punk eta hardcore musika eszenan emakumeen absentiak ikusita sortu zen** jaialdi txiki eta xume bati buruzko kronika duzue jarraian. Gure gorputzetatik abiatuta, gure gorputzetan betirako iltzatuta gelditu diren gau eta egunak. Errebeldiarako marrua, elkarren arteko dantza, feminismoaren akordeek bustitako kantua.*

Putzuzulo Amets Fabrikan parte hartu dugun guztiontzat, edo gehienontzat behintzat, Zarauzko gaztetxea izan da gure burutazioak gauzatzeko gune. Aukerak eskaini dizkigu guk geuk egin nahi genuen hori egiteko, eta, azken batean, gutasun horretatik Gu izateko. Bertako kideez osatutako Ginger talde zarautzarrak dioen gisara “ oihal zaharren zaporeaz munduratzeko leihatila bat...”. Eta halaxe egin genuen Mefsst jaialdiarekin: pentsatu eta egin. Urte mordoxka zeramaten bertan hainbatek, punk eta hardcore musika eszena alternatiboa sortzen, eta 70eko hamarkadatik aurrera sortu zen punk mugimenduarekin saretzen. Askok ziren atzerrira jotzera joandako talde zarautzarrak, eta asko ere Zarautzik pasatuko gure mugaz gaindiko bandak. Edonola ere, nazioarteko hardcore eta punk eszenan bere tokitxo egin zuen

espazio garrantzitsu bilakatu zen Putzuzulo. Horrek, eta punkak arau sozialak puskatzeko eta orohar transgresiorako biltzen dituen aldarriek, eragiteko aukerak biderkatu zizkigun guri.

Jaialdia antolatzeke hainbat galdera egin genizkion gure buruei: zergatik musika transgresoreek ez dituzte sexu bereizkeriak (edo bestelakoak) gainditu? Zer gertatzen zen punkean emakumeen presentzia txikiagoa izateko? Emakume batzuk jotzen, antolatzen...ikusitako arren, zergatik mantentzen ziren genero rol hain markatuak? Eta garrantzitsuena, nola egin geniezaiokeen aurre horri? Elkarrekin pentsatzea, hausnartzea eta ekitea izan zen hautua, esan bezala. Bada, 2013ko maiatzaren 17rako antolatu genuen musika errebolta feminista sustatzeko lehen Mefsst! jaialdia.

Galdera potoloak ziren, baina guk tokiko zerbait egin nahi genuen, gure etxetik hasi nahi genuen. Horregatik egin genuen txikitetasunaren aldeko apustu, horregatik mugatu genuen Putzuzulora. Zarautzen eragin nahi genuen, askea izateko jaio zen eremuan, Putzuzulon alegia, eta ordurarte erabilitako lanerako erremintekin: autogestioa eta zuk zeuk egin filosofia. Guk egin nahi genuen dena, eta geure erara. Riot grrrl mugimendu aitzindariak AEBtan aldarrikatu zuena jarraitzeko asmotan ginen; feministok, feminismitik eragin nahi genuen eta feministengana nahi genuen lehentasunez zuzendu. Ez genuen beste pertsona edota erakunde batzuekiko dependentsiarik izan nahi, guk guretzako eta gure erara hasi nahi genuen abentura berria.

Guk egiteak ordea, ez du dena bakarrik egingo genuela esan nahi. Izan ere, autogestioak eta zuk zeuk egin filosofiak oinarrian baititu elkarlana eta saretzea. Eta Putzuzulok ere biltzen zituen honakoak: sare feminista zabala zegoen, Xakela asanblean (Putzuzulo kudeatzen zuen asteroko

asanblea) kontzientzia feminista goraka zihoan, eta geroz eta gehiago ginen urtero egiten ohi den “bersiyo gauean” edota astero-astero dauden “zarata kontzertuetan” oholtzara igotzen ari ginen emakumeak. Osagai asko izan genituen lagun, zalantzarik gabe.

Bost urtez jarraian antolatu genuen jaialdia, eta tartean taldeak ere beste hainbat kontzertu antolatu genituen inguruko gaztetxeetan, Getaiko gaztetxean bereziki. Horietan guztietan hausnartu dugu, esperientziak partekatu ditugu, musika zoragarria entzun dugu, ordu luzez dantzatu dugu, elkarrekin ikasi dugu, eta zoragarri pasa dugu.

Musika oholtza baino gehiago da. Lehen ikaspena izan zen, musika ez dela soilik oholtza gainean ikusten duguna; hots, eszenatoki gainean emakume batzuk egoteagatik ez dira genero harremanak iraultzen. Publikoan, kroketeoan, lehen lerroetan, soinu teknikari lanetan, antolaketan...ez badaude emakumeak, eta ez badago ikuspegi feminista, nekez lortzen dira aldaketak. Horregatik oholtzara emakumeak ekartzeaz gain, ikastaroak antolatu genituen, ikusleei begirako eskuorriak atera genituen (espazio segurua sortzeko), kontzertu gehiago antolatzen hasi ginen...

Geure buruak gaitzen. Gure gorputzetan betiko iltzatuta gelditu dela esaten dugunean, ahalduntze indibidual eta kolektiboaz ari gara: autokonfiantzaz, gai sentitzeaz, gaitasunak garatzeaz, boterea hartzeaz, autoritatea zein aitortza izateaz. Izan ere, Mefsst!-en parte hartu genuen guztiongan sekulako eragina izan zuen jaialdiak. Oraindik orain entzuten ditugun epaiketei aurre egiteko kolektibitatean topatu genuen indarra, eta sentitu gu ere baginela nor birtuosa izan gabe oholtzara igotzeko, lehen lerroan dantzatzeko, soinu lanak egiteko, edota jaialdi batek dituen askotariko lanetan gaitzeko.

Elkarren arteko zaintza ardatz. Bakarrik moldatzen gabela eta inoren beharrik ez dugula guztiz barneratu dugu, baina izaki erabat interdependenteak gara, eta besteak behar ditugu. Hori barneratzen saiatu ginen hasieratik, gure artean gogoak, aukerak, indarrak eta ahalmenak kontuan hartuz, batetik; gonbidatu genituen taldeen harrera eta erosotasuna lehenetsiz, bestetik; eta jaialdian parte hartu zuten guztientzat gune segurua sortuz, azkenik.

Askoek galdetu zuten zergatik ez genuen emakume, bollera eta transentzako bakarrik espazio bat sortu. Izan ere, horiek segurtasuna eta erosotasunerako espazio ederrak dira. Baina jaialdia errealitate gordinean ere txertatu nahi genuen, espazio misto batean segurtasuna eta askatasuna lantzeko erronka jarri genion gure buruari. Era berean, plazererako espazio aske bat izatea nahi genuen. Norbera lasai adierazi eta nahi zuen eran dantzatu, mugitu, mozkortu, *tonteatu*, ukitu, musukatu, jantzi edo ligatu ahal izateko eremuan bilakatu nahi genuen Putzuzulo. Ez, ezetz da! leloa errespetatuko zen eremua izatea nahi genuen, baina batik bat egin nahi dugun horri, baiezkoari, tarte zabal eta mugarik gabekoa irekiko ziona sortu nahi genuen. Gorputza eta plazera ardatz, izerdia botatzeko espazio baketsu bat izatea lortu genuen, dudarik gabe.

Eta zer gertatu da ordutik? Mefsst! Jaialdiak aurrera gehiagotan antolatu ez arren, izan dira emakumeen absentsien inguruan galdegiten jarraitu duten egitasmoak. Zarautzen ez ezik, Euskal Herriko beste herri batzuetan egin dira jaialdi feministak. Horrek, eta feminismoaren etengabeko indartzeak, ekarri du bai punk eszenan, bai beste batzuetan kontraesanak agerian gelditzea; hau da, eraldaketa sustatu nahi duten hainbat eta hainbat egitasmoetan ikuspegi feminista barneratzearen beharra mahaigaineratu da.

Esan genezake, lortu dugula, behintzat, gune alternatiboetan eta zenbati jaialdi handiagoetan programazioak baldintzatzea, eta egiteko moduen gainean hausnartzea. Emakumeen absentsia problematizatu da, eta jarrera matxistak identifikatzeko, eta horiei marra gorriak jartzeko jarrerak zabaldu dira.

Dena dela, emakumeen presentzia zerbait arraroa izaten jarraitzen du. Musika tresnak jotzen, estilo batzuetan jotzen, teknikari lanetan, antolakuntzan, publikoan...ez gara gehiengoa. Era berean, fikzio moduko bat sortu da. Zabaldua dago emakume izanagatik jotzeko aukera gehiago dugula, eta gizonek atzera egin dutela. Baina benetan hori horrela dela uste dugu? Zenbat aukera dituzte gizonek jotzeko? Eta horretara mugatuko al gara? Feminismoa, denok dakigu ez dela soilik zenbaki kontua. Izan ere, ikuspegi feminista barneratzea oso ariketa konplexua da, sakona, denbora eta esfortzu asko eskatzen duena.

Mefsst!-ek bide horretan ale txiki bat jarri zuen. Talde gisa jarraitzeko gogoak eta aukerak apaldu zitzaizkigun, baina hitz hauek idazten ari garen bitartean Mefsst! gosea hasi zaigu berriz, eta zerbait egiteko irrika piztu. Animatuko al zara gurekin errebolatara berriz?

Jone Urionaguen (Basoa Defendatzaileen Etxea)


Basoa proiektuak jatorria du migratzaile eta errefuxiatuekiko solidaritateari bereziki lotutako ekimen eta jardueretan. Pixkanaka gehitu dira hainbat gizarte-mugimendutatik etorritako ekintzaileak. Proiektu honek giza eskubideen ekintzaile eta defendatzaileen bizitza komunitarioa lotzen ditu eta laguntza humanitariotik solidaritatearen beste kontzeptu batera igarotzen da: behartutako desplazamenduen eta defendatzaileen kriminalizazioaren arrazoiak salatzen dituen solidaritatea. Azken finean, defendatzaileen eta aktibisten arteko komunitate solidarioa da, konspiratzeko, gozatzeko eta amestutako bizitza bizitzen hasteko gune askatua.

Hitzaldia

Basoa Arratiako bailaran kokatua dagoen **espazio eta proiektu bat da**, migratzaileekiko eta errefuxiatuekiko elkartasunari bereziki lotutako ekimen eta jardueretan jatorria duena eta hainbat gizarte-mugimendutako ekintzaileek eta norbanakoek osatzen duten asanblada batek kudeatzen duena.

Asanblada honetako kideok gogoeta egin dugu giza eskubideen defendatzaileen eta aktibisten bizitzak elkartzen dituen proposamen alternatiboa eraikitzeko beharraz, laguntza humanitariotik elkartasun

kontzeptu berrira igaroko den alternatiba, alegia. Behartutako migrazioak eta defendatzaileen kriminalizazioa eragiten dituzten arrazoiak salatuko dituen elkartasuna.



Era berean, uste dugu salaketak beste gizarte-mugimendu batzuekiko aliantzak eskatzen dituela, bai tokian toki, bai nazioarteko mailan. Horretarako, pertsonak, erakundeak, ideiak, estrategiak, desobedientzia-ekintzak eta gure etxean biziko diren defendatzaileen jatorrizko komunitateekiko harremanak bildu behar ditugu. Izan ere, haien kriminalizazioaren eta komunitateen suntsipenaren erantzuleak agerian utzi behar ditugu.

Eta, azkenik, ezinbestekotzat jotzen dugu kontuan hartzea komunitatea eraikitzeak autokudeaketa, autofinantzaketa, erakundeetatik bereiztea eta bizimodu erraz baten, agro-ekologiaren, harreman horizontalen eta gozamen kolektiboaren aldeko apustua egitea eskatzen dituela.

Basoak hainbat gizarte-mugimendutan, feminismitik ekologismora eta internazionalismitik igarota, konpromiso-ibilbide luzea duen giza taldea du. Proiektu honek mundua aldatzeko ilusioa eta gogoaz uztartzen ditu, erresistentziarako eta gure ustez bidezkoagoa dena praktikan jartzeko asmoz.

Korapiloak eta lorpenei dagokionez, halako proiektu autokudeatu eta anbiziotsu bat eraikitze bidean, ugariak eta askotarikoak dira eta harremanak, denborak, prekaritateak eta aurretikoak korapiloak bihurtzen dira sarritan, bidean taldea ahulduz edota jendea gelditzea eraginez.

Baina bide horretan, lorpenak ere ugariak izaten ari dira eta belaunaldi arteko asanblada eta oso anitza sortzea lortu dugu, autogestioan eraikitzea, auzolanez-auzolan eta elkarren ondoan lan eginez “etxea” eraikitzea eta afektibotasunean oinarrituriko harremanetatik eraikitzea.

Ikaspenak askotarikoak izan dira proiektu eta asanblada “gazte” honen ibilbidean baina prozesu guztiak, eta batez ere prozesu zailak, mimoz eta pazientziaz bizitzearen garrantzia eta harreman interpersonalak zaindu eta lantzearena funtsezkoak dira. Kide zapatistek dioten bezala, astiro baikoaz, urrutira goazelako.

Miren Beitia eta Alazne Goñi (Garai ON)

Euskaraz sortzeko sorkuntza espazioa bat da, sortzaileen sorkuntza lanak, ikerketak eta esperimenduzko berrien bizipenak bultzatzeko; eta horren bidez, komunitatean sormen gaitasuna piztu eta euskal kulturaren iruditeria aberasteko. Gasteiztik 15km-tara natur-gune paregabe batean kokatuta. Hiru oinarri ditu: sormena gizarteratzea, natura hobetzeko erantzukizuna bultzatzea eta ondare soziala balioan jartzea.

Hitzaldia

AuzolanArtetik – BIZI BIZIAra – 2010-2022 – 12 urte. Ibilbidea: Auzolana bidelagun beti!

Garaionen sorreratik, 2008tik auzolana izan da aurrera egiteko modua, gure espazioak hobetu, txukundu, erabilgarritasuna sortu eta **jarduerak sustatzeko oinarrizko metodologia bat**. Lanaren barruan kokatu dugun erraminta izan da. Baliabiderik aberatsena izan da. Dirurik izan edo ez, berdina da, bizpahiru lagun elkarrekin lana egiteko prest agertuz gero, aurrea egin dugu beti, ahal zena, ahal zeneraino. Eta beti emaitza bera eskaini izan digu, **bildu izana, elkarrekin lanean jardunean izandako guztia eta egindakoaren bizipozarekin etxera bueltan!**

Bestalde, Garaion **NaturARTE** abizenarekin jaio zen eta hiru sagarren ametsarekin: sormena gizarteratzea, naturarekin bat izatea eta ondare

soziala balioan jartzea. Eta guzti hori, egiteko modu gisa, euskaraz, feminismitik, eta partehartze zabalenean, ahal genuen guztietan.

Eta horrela, **naturarekin bat egin eta sormena lantzeko tresna gisa, Land-Art** mugimendua maite genuen. Irudi eta ekimen zoragarriak ezagutu genituen. 60. Hamarkada bukaeran, espazio publikoa edo paisaia natur elementuz sortutako artelan, eskultura edo naturaren arkitektura bezala erabili zen, museoen aurka jaiotako artista mugimendu hura guztiz inspiratzaile sortatu zitzaizkigun, eta gu bezala, efimeroa den zerbait sortzearen garrantziaz ere jabetu gintuen. Betirako garen gezur erraldoi horri lantzeko, egurra emateko eta deseraikitze aukera eskaini zigun.

Eta halaxe, Garaioneko lantaldearen bizi-modua aurkitzeko bidean, ideia guzti horiek batu genituen: AUZOLANA, NATURA eta ARTEA eta **AUZOLANARTEA proiektua** eskaintzen hasi ginen eskola, aisialdi talde eta erakunde publikoei. Debagoienan 4 urtetan, batxilergoko gazteekin (800 bat gaztekin urtero) 80 eskultura efimeroak eraiki genituen auzolanean, natur-elementuekin, gazteekin erabakitako herrietako espazioetan (udalekin negoziazioak izan ondoren), euren nahi, gogo edo aldarrikapen plazaratzeko.

Eskolaz eskola, gelaz gela, udaletxez-udaletxe, kalez kale ibili ginen. Partehartzea nola landu esperimendatu genuen, intuizioa zen bide-lagun, jolasak, musika, gorputza mugitzea pentsatu aurretik praktikatzeko, dena bihotzetik sortzen, metodologia propioarekin, etxean-pentsatua.

Eskoletara iritsi ahal izatea zen zailena. Bestalde, generorolak lana egiterako orduan zaindu egin behar izaten genituen. Gu berez lantaldean denak emakumeak ginen eta horrek asko laguntzen zigun, erreferentzia ginen, erraminta desberdinak lasai erabiltzen, pisuak hartzen, gustura zikintzen...

Kaleen jabetza hartzeak, gazteen aldarrikapenak hilabetez herrian protagonismoa izatea publikoki, herrian erabaki izateko gaitasuna, parte izatea, guk egin dugu harrotasunez lagunei esatea... bizipozaren txutea bidelagun genuen beti.

AUZOLANARTEAn esperientziak hobetu beharra eskatzen zigun, alde batetik, partehartze prozesuetan sakontzea, ikastea, erabakiak hartzeko bideak hobetzea; eta bestalde, makilekin lan egiteak teknika eskatzen zigun, ehuntzen ikastea, teknikan hobetzea eta horrek zume-gintza edo otarregintzara eraman gintuen eta hor zume-biziko eraikuntza eraikitzen ikasten hasi ginen eta bide horretatik BIZI-BIZIA proiektua sortu dugu.

BIZI-BIZIA proiektuarekin, zumea landatuz jolas-gune eta topaguneak eraikitzen ditugu, eskolako patio, jolas parke, lorategi, parke edo zelai edo lur-sailatan.

Eskultura efimeroak egitetik Zume bizia landatuz bizirik dauden topaguneak egitera pasatu gara. Gure helburua: herritarrek, herrian eta herritarrentzat sortzea da.

Espazio publikoak “okupatu” eta sortu. Jolasteko modu berriak sortu eta elkartzeko espazio ezberdinak sortzea.

Zume bizia landatzen denean, adar biluziak ikusten ditugu (neguan landatzen direnak) eta poliki-poliki ikusiko ez ditugun sustraiak sortzen joango dira. Lurraren gainazalean kimuak hasiko dira eta hauek bai ikusiko ditugula, egitura berdeak bihurtu arte. Naturaren zikloez jabetzeko aukera ematen digute.

Hau da guk bizi duguna, erakutsi eta transmititu nahi duguna. Gainera honen jabetzeak suposatzen duen jakituriari garrantzia ematea, eta ahalik eta gehien zabaltzea ideia. Plazera eta gorputza agertuko lirateke hemen. Plazera bizitzarekiko, eta zerbait bizia eraikitzeke, gainera oso ikusgarria dena. Eta denboraren nondik norakoek bizidun horretan duen eragina. Eta ez bakarrik denborak, zuzenki lotuta joango da pertsonetik harremanean eta guk harekiko dugun zaintzan.

Espazio berriak sortzerako orduan burutu izan ditugun partehartze prozesuetan hasten da lehenengo eragina. Partehartze prozesuetan ikusiko da: eskainiko zaion denbora, sortzeko nahia, zein den helburua, eta inplikazioa. Beste ezaugarri batzuen artean hauek baldintza batzuk ezarriak izango dituzte.

Eta jarraian sortutakoaren bizirautean haren zaintzak ere eragin handia dauka. “Egitura batean gertatzen denak testuinguru bateko ikerketa bat egitera eraman gaitzake” pentsatu dugu askotan.

Partehartze prozesuari eman beharreko denbora, zaintza, gogoa... oso garrantzitsua da eta hor agertu daiteke traba bat. Ondorengo jarraipenean mantenduko den **korapilo** bat. Azken finean partehartze prozesuak ohitura aldaketa bat suposatzen du egiteko moduan, eta oraindik emaitza batean itsutzearren arriskua dago. Gizartea bera horrela ohiturazita dago oraindik ere.

Urte hauetan prozesuek bere denbora behar dutela ikasten ari gara; konfiantza izaten gauzak aldatzen ari direla, pertsonengan konfiantza izaten, gure buruarengan konfiantza eta sinesmena izaten. Gure lana baloratu eta baliarazten saiatzen gara sistema zurrun honetan. Emakume, natura, ekonomia eta denboraren arteko oreka bilatu nahian.

Partekatutakoa

Parte-hartzaileen galderak

- **Herrian, jai batzordean eta jaien antolaketan elkarrizketarik ez dagoen egoera batean topatzen naiz: ez dago elkarrizketarik, boikota dago, etxetik/kuadrillatik hasita. Herriko jai batzordean bihurtzen naiz ‘emakumea’ den bakarra, rol hori hartzen duena. Zuen herrietan nola egiten duzue? Botere gutxi nuela sentitu dutenetan, boterea galdu dutela sentitu dut nire herrian. Agian errazagoa da talka hori zurea ez den herri batean sortzea? Beste herri batean eragitea? Nola ahaldundu izan zarete zeuen herrietan? Jada plazerik ez dagoenean, talka besterik ez da geratzen... eta hortik eragitea ez da jasangarria. Nola, nondik, orduan?**

Herritar moduan, ohitura batzuk horrela dira. Espazio batean eragitea oso zaila da sare bat ez badago. Mendi aldean genero disidentzia inguruko taldetxo bat sortu da. Pentsatu beharrean zerbait aldatu behar dela, bete toki batera joatea agian aukera errazagoa da? Umorea oso garrantzitsua da. 81 urteko gizon bat bada esaldi bakoitza ‘*ta punto*’ batekin amaitzen dituen, eta horrela bola egiten ari den gataska eteten du, zentzu onean. Elkarbizitza gataskatsua da, derrigor egin behar dugun zerbait da, eta era berean, egin nahi dugun. Ze ikuspuntutatik eragin nahi duzun kontutan hartuta, probokatzailleago da ala ez. Komunitate horretan eragiteko, ondo ateratzen zaizkigun beste toki horretatik eragitea garrantzitsua da. babes eta indar bat ematen dizun toki horretan. Elkarrizketa sustatzea garrantzitsua da, nahiz eta ez garen ados egongo. Giltza: komunitatea eta elkar zaintza.

- **Proiektu autokudeatuetan, 15 urteetan eman den bilakaera, gataskak ditut gauza askorekin, horietako bat da pentsatzea beti gure deserosotasunetik egiten duguna oso baliagarria dela.**

Duela 15 urte okupazio proiektu batean, eta gaur egun ikusten dut feminismoarekin lotutako gaiak gaur egun askoz errazago dela orain lantzea. Duela 15 urte ez zen hain erraza. Espazio mistoetan deseroso gaude, baina egon behar da gataska hori. Lehen ertzetako diskurtsoa zena, gaur egun beretu dituzte, ez osotasunean, baina askoz errazagoa da gauza batzuk lantzea, *ta punto*.

- **Hiru proiektuetatik bakarra da mistoa. Eraso matxistarik egon bada, nola egin den kudeaketa?**

Bai, izan denean, genero indarkeria kasu bat izan da. Geure proiektuan parte hartzen zuen emakume bati suertatua, eta etxean topatzen zuen babes espazioa. Asanblada baten bitartez hartzen diren erabakiak geldoak dira, beste erritmoa bat dute, zaila izan da, formatu gara, bitartekaritza eskatu dugu, protokoloa osatzen ari gara. Kudeaketa emozionala izan da zaila. Haur txiki bat duen emakume bat izanda, zaurgarritasuna areagotzen da. Alde positiboa izanda, ez zaigula berriro pasako.

- **Zein da gizonon papera? Kasu sotilagoak esaterako.**

Lan talde bat dugu horretarako espreski. Eta arrazakeria arazoak ere kontutan izateko. Txuriok nahi gabe egiten ditugu erasoak, modu sinbolikoan eta konturatu gabe. Ari gara...

- **Zerk funtzionatu dizue? Zer ikasi duzue ez dela egin behar?**

- Denon parte hartzea sustatzeko dinamikak, jolasak erabiltzen

ditugu, denon hitza egon dadin espazioa zaintzen dugu. Molde batzuk apurtzea.

- Gertukoak izaten saiatzen gara
- Nesken hitza aintzat hartzea eta entzutea
- Asanblada, bilera edo dena delakoa bukatzean, elkar banatzea gertutasunetik espazioa. Ez bereziki zerbait egiteko edo produzitzeko, baizik eta harremanetan sartzeko.

- **Lehenagokora itzulita. Mirenekin bat egiten dut. Urte asko daramat Zestoan kontzertuak antolatzen, emakumeak oholtza eta plaza hartzen. Zuen metodologia hori entzun dutenean... Arlo hori oso maskulinizatua dago eta ni oso bakarrik sentitu izan naiz. Zoriontzeko eta mirestekeo proiektu bat eta kopiatzeko zerbait iruditzen zait, formulak funtzionatzen duelako. Sareak herritik kanpo aurkitu ditut. Ekoizpenean ibili naiz, eta oholtza gainean, herriko festak erronka handia dira.**

Guk ere egitasmo hau kopiatu egin genuen... 90ko hamarkadako mugimenduaren hausnarketa hartu genuen eredu gisa. Errepikatzea mugimendu horri erreferentzia egiteko modu bat zen. Beste disidentzia batzuetatik, bereziki, emakume arrazializatuetatik hartutako eredu eta erreferentzia hartu genituen. Sakondu genuen zein beste mugimendu izan ziren. Oso maskulinizatua den eremua izaten jarraitzen duen eremua da musikarena. Beste dinamika batzuekin funtzionatzen hasi, mugimendu alternatiboetan ere zenbat sinesmen eta ohitura dauden errotuta... Herriaren izaeran nire buruari horrela autojustifikatzen diot. Pentsatu nahi dut herriaren tamainak zailtzen duela horrelako egitasmoek arrakasta izatea edo bakarrik ez egotea aldaketak eragiteko garaian. *Askoren mina, tontoen atsegina.*



Tailerrak



Autoezagutzea eta kontsentimentua

Pitu Aparicio

Gizarte-hezitzailea. Sexualitatean, generoan eta droga-mendekotasunean prestatzailea. Pitu gertuko gizarte-hezitzailea da, modu organikoan eta bokazioz, egoera deserosoak enpatiaz eta epaituak sentitu gabe ulertu nahi zituzten pertsona askoren bizi-kalitatea hobetzea lortu du tailerrekin. Nerabeen, familien, irakasleen, hezitzaileen eta baita kolektiboen taldeei laguntzen die. Antzerki forotik eta terapia sistemikotik talde horiei gizarte-eta hezkuntza-arloko esku-hartzeari buruzko ikuspegi berriak ematea lortu du.

Landutakoa

Tailerra hasteko eta izotzaldia urtzeko, parte-hartzaile bakoitzak sexualitatearekin eta autoezagutzarekin lotutako hitz bat idatzita duen txartelen dinamika bat egiten da. Giro lasaia sortzen dugu, barre-algara eta konfidentziekin. Horrela, hasieratik argi uzten dugu hau izango dela gure segurtasun-toki bat eta zaintza-metodologiaren arabera lan egingo dugula.

Metodologia honek beti parte-hartzaileen premiak eta tailer osoan zehar lehenetsita lan egiten du. Hori dela eta, beharrezkoa da txanda emozional batekin hastea. Gure izena, guri deitzeko erabili nahi dugun izenordaina eta egoera emozionalez hitz egingo dugu, begirada horretatik lan egin ahal izateko.

Izenen dinamikak gorputza eta tentsioak askatzen laguntzen du, eta barre, konfiantza eta lasaitasun giroa sortzen du. Horri esker, taldeak somaren lanaren garrantziaz hitz egiten du, bai eta sexualitateari heltzeko orduan zer dakarren ere.

Taldean sortzen ari den lana sexualitateari heltzen diogun espazio guztietan egon ohi den lotsa eta zailtasuna da, dituen konplexu fisiko eta emozional guztiekin. Baita konpartitu ahal izateko antzeko espazioak aurkitzeak dakarren zailtasunari ere heltzen diogu.

Saio osoan zehar egiten den lana parte-hartzailea, ludikoa eta dinamikoa da. Horretarako tailerrean parte hartzen duten pertsona guztiei gorputza eta ahotsa ematen zaie eta ideiak modu aske eta irekian azaltzen dituzte.

Ikuspegi inklusibotik hitz egiten dugu honako gai hauei buruz: hilekoa eta hori ikasgelan lantzea, gure bizi-garapenean izaten ditugun aldaketa fisiko eta hormonalak, bikotekideekin eta gure loturekin komunikatzeko sortzen zaizkigun zailtasunak. Elkar hobeto ezagutzeko eta gure beharrak komunikatzeko tresnak eskuratzen ditugu.

Elkarrizketarako tokia sortzen da, giro lasaia nabaritzen da eta kideek ikasgelan feminismoa, genero-desberdintasuna edo sexu-genero sistemako desberdintasuna bezalako gaiak lantzeko aurkitzen dituzten zailtasunei buruz hitz egiten dute. Betiere parte hartzen duten kideentzako eta ikasleentzako gertuko egingo zaien lagunarteko hizkera erabiltzen da.

Prestatzaile eta hezitzaile moduan, gidariak egunero ikasgeletan aurkitzen dituen galderak erabiltzen ditu, benetako egoerekin alderatzeko balio dezaten. Horrela, prestakuntzen barruan espazio eraikitzaile bat sortzen du.

Arbelarekin sexu genero sistemaren eraketa lantzen dugu, bulbak, zakilak, intersex pertsonak ikusten, binarioen genero desberdinak ezagutzen eta hizkerak ikasgelan duen garrantzia kontuan hartzen. Trans-ari buruz aritzeko, ikuspegi trans-feminista batetik egiten da. Eta benetako kasuak komentatzen ditugu, pertsona bakoitzaren premiak adinaren arabera kontuan hartuta.

Mugekin, autoezagutzarekin eta adostasunarekin lotutako egoerak bateratzearen bidez, aztertzen ditugu indarkeria edo erasoak ekar ditzaketen egoerei aurre egiteko orduan autoestimua eta lan terapeutikoak duen garrantzia. Gorputza mugetan eta adostasunean erabiltzeak ekar dezake egin beharreko lana lausotu dezaketen errealitateak irekitzea. Hori dela eta, arreta berezia jarri behar zaio pertsona bakoitzak taldean duen erantzunari eta bizi izandako egoerei.

Lantegian une oro lantzen dira ikuspegi interseksionala, biologikoa, psikologikoa eta soziala. Betiere gozamenari, desioari eta baimenari begiratzen dien sexualitatetik abiatuta lan egiteko, komunikazioa izendatzaile komuna izanik.

Azken ebaluaketaren dinamika gorputzetik egiten da, hitzez azalduta nola sentitu garen, tailerreko bidaietan gure emozioak zein izan diren eta zein helburu lortu ditugun banaka eta taldean.

Ebaluaketa horretan jasotako ildo orokorrak oso onak dira lantaldearen gehiengoarentzat. Nabarmentzekoak dira sortutako giro lasaia, landutako gaien kopurua, denboralizazioa eta tailer osoan zehar argitutako kontzeptuak kontuan hartuta.

SEXUEN HEZKUNTZA INTEGRALA AUTOEZAGUTZA ETA KONTSENTIMENTUA

SEXO
 Intersex: comparten características cromosómicas de ambos géneros.
 Pene
 Vulva

IDENTIDAD
 No se dice ni transgénero ni transexual porque son términos que les definen según cuánto hayan modificado su cuerpo para entrar en el binarismo.
 No binario
 Hombre
 Mujer
 Género fluido

ORIENTACIÓN
 La sexualidad es fluida pero las etiquetas son identidad y son necesarias porque hay desigualdades.
 L + M + M
 G + H + H
 T R A N S
 B I S E X U A L
 P A N S E X U A L
 Q U E E R
 A S E X U A L
 Otras comunidades como, por ejemplo, BEMISOCIALES (basadas en el debate intelectual previo).
 Personas que habita los márgenes y también sufren violencia por ello.

EXPRESIÓN DE GÉNERO
 Tu **MAPA DEL DESEO** está construido según lo que te van contando que tiene que ser.
 Término "afectivo-sexual" viene del franquismo. Dentro de lo sexual siempre está lo afectivo pero se sigue nombrando. Es un debate abierto.
 Se da por hecho que todo el mundo quiere tener relaciones sexuales.

Vivimos en un sistema ALOCISHETEROPATRIARCAL

COMPLEJOS
 Terapia de las yonguis del amor romántico
 Mis fuentes de información son mis amigas, las redes sociales e Internet

SÍNDROME DE LA IMPOSTORA

AMOR ROMÁNTICO
BDSM
VAGINA
SEXO GENITALES

NO BINARIA

FEM GARA BAT.

Me especialicé en sexualidad y drogodependencia por era lo "prohibido". Hago talleres porque no hay mucha formación al respecto.

No he dejado de estar feliz desde que he entrado
¡ja, ja, ja!
No hemos tenido una buena formación respecto al sexo y a las drogas
¡ja, ja, ja!
¡ja, ja, ja!
¡ja, ja, ja!
He venido a conocerme mejor. Ha saber decir que no.
Mis fuentes de información son mis amigas, las redes sociales e Internet
¡Disfruta, el resto es trabajar y pagar cosas!
¡ja, ja, ja!
 Luisa: ¿puedes coger una vagina?
 ¡Disfruta, el resto es trabajar y pagar cosas!



Ahizpatasuna eta autodefentsa feminista

Maidar Avaristo Iziar

Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoan graduatua, Gizarte Antropologian Graduatu, Sexu heziketa eta familia aholkularitzan begiralea eta Ikasketa Feministak eta Generokoak masterra. Egindako ikerketa lanak emakume etorkin eta arrazializatuen inguruan izan dira.

Landutakoa

Laburpena:

Saioaren aurkezpena eta nondik norakoak jorratu genituen. Denen artean saiora gerturatzeko arrazoiak komentatu eta elkarbanatu genituen.

Teoria dekolonialaren eta ahizpatasunaren inguruan zertzelada batzuk komentatu nituen.

Ahizpatasunaren inguruko bisualizazio bat egin genuen eta ondoren banan-banan bisualizaziotik eratorritako idatzi bat egin zuten.

Bisualizazioan esaldi bat: "pentsatu zuretzat eta zure bizitzan garrantzitsuak izan diren emakumeengan.... hilda dauden emakumeak izan daitezke, edota egun oraindik bizirik daudenak... bizitza osoan gure alboan egon direnak edota momentu puntual batetan agertu direnak..."

Modu honetan gure ahizpatasuna ez da bakarrik kokatzen modu indibidualean. Ahizpatasunaren perspektiba kolektiboa izatea oso garrantzitsua da. Begirada aldaketa bat suposatzen du eta balioan jartzea gure inguruan dauden emakumeak.


Idatzitatik kontzeptu batzuk aterako ditugu eta "ahizpatasuna" jartzen duen kartulinetan gure kontzeptuak idatzi genituen. Norbanakoaren bizipen eta irakurketatik kolektiborako saltoa egin genuen horrela. Denak, bizipen pertsonaletatik kontzeptu batzuk jaso zituzten hitz kolektibo hori definitzekotan.

Amaieran taldeka banatu ziren denak. Bertan, egoera zehatzak elkarbanatu zituzten eta hezkidetzatik ahizpatasuna lantzeko estrategia ideal bat praktikan jartzeko lehen pausoak diseinatu zituzten.

Tailerraren bukaeran ilustratzaileak egindako irudia elkarbanatu zuen taldean laburpen bat emanez eta amaieran balorazio erronda egin genuen.

Landutako gakoak:

- Ahizpatasuna kontzeptuaren definizio saiakera bat.
- Identitatearen aniztasuna eta interseksionalitatea.
- Errealitatea analizatzeko tresnak: antiarrazismoaren beharra.
- Hezkidetzeta eta eskolatan ematen diren gatazken inguruan hitz egiteko espazioen beharra.





Egongela bat plazan

Juntura

Juntura kooperatiba bat da eta “arkitektura , espazioak eta prozesuak” lantzen dituzte. Arkitektura ekosistema gisa ulertzen dute eta prozesuaren erdigunean erabiltzaileak eta komunitateak kokatzea klabe ikusten dute.

Horrela, euren lanen artean hiri, komunitateak eta feminismoarekin zerikusia duten hainbat proiektu eraman dituzte aurrera, tartean hiri espazioen eraldatze prozesuak, baita espazio domestikoena ere: eraberritze eta birgaitzeak, etxebizitza komunitarioak sortzeko diseinu partehartzaile prozesuak, hezkuntza komunitatearekin lanketa ezberdinak...

Landutakoa

Lantegiaren helburua hezkidetzarako espazioak irudikatzerakoan izaten ditugun inertziak lehertzea izan da, hausnarketa pertsonal eta taldekoaren bidez.

Horretarako, lehenik eta behin egunerokotasunean garrantzitsuak izan daitezkeen eta hezkidetzarako potentziala duten espazio ezberdinez eta euren arteko loturaz jabetzeko ariketa egin dugu. Honela, espazio ezberdinak atera dira: herri/hiri-espazioa, honen barnean plaza-espazioa, parke-espazioa, eskola-espazioa... Eskala txikienean ere, gehien bat eskola-espazio barneko espazioak atera dira: jangela, patioa, eskola sarrera...

Behin hauek identifikatuta, taldetan bildu gara interesaren arabera. Horrela, 4 talde sortu dira: Plaza, Parkea, Patioa eta Eskola Sarrera.

Ondorengo galderen inguruan hausnartzea eta eztabaidatzea zen helburua:

- Zein ekintza ematen dira espazio hauetan?
 - Nork egiten ditu? Zein adin, genero, jatorri...
 - Non ematen da ekintza bakoitza?
 - Zenbat espazio hartzen du ekintza bakoitzak?
 - Ba al dago ekintzarik zentroa hartzen duena? Eta periferia?
- Zein ekipamendu/baliabide/elementu ditu?
 - Konfliktorik ba al dago? Ezinegonik?
 - Ba al dago plazerarekin lotutako espazio eta ekintzak? Norenak dira? Norenak ez dira?

Elementu ezberdinez lagundurik, parte hartzaileak jarri ditugu espazio bakoitzean ematen diren dinamikei buruz hitz egiten.



Lehen ariketaren emaitza batzuk: eskola sarrera eta parkea.


Ondoren, guztiok batera hausnartu dugu talde bakoitzean ateratzen ziren arazo eta joeren inguruan.

Aurkezpen-txandarako erabili ditugun irudien inguruan hitz egin dugu ondoren, ikusteko nola ez den (soilik) diseinua aldatu behar espazio baretan ematen diren ekintza eta logikak iraultzeko, hemendik lantegiaren izena, "Egongela bat plazan".

Ondoren, identifikatutako egoerei "buelta" emateko ariketa egin dugu, horretarako lagungarriak izan zitezkeen galderak botaz:


- Zeintzuk izango dira aldaketaren helburuak?
- Zein aldaketa fisiko egin dira, zer eragin izan dute?
- Zein aldaketa sozial eta funtzional egon dira horretarako? Eta horren ondorioz?
- Falta ziren plazerak non daude?

Proposamen/hausnarketa hauek, aurreko ariketan osatutako maketa/taulen gainean egin ditugu.



Bigarren ariketaren emaitza batzuk: patioa eta plaza.

Lantegiaren helburua galderak nola egin arakatzea zen, zein tresnaren bidez hitz egin daiteke askotan deskribatzea kostatzen zigun horren inguruan, baita horren bidez ireki daitezkeen aukerak esploratzea ere.



Saretze txokoak

Hezkidetzaren baitan pertsonak, erakundeak eta esperientziak ezagutu eta elkartu ditugu. Helburua da gure gaitasunak, baliabideak eta tresnak sendotzea, gure jarduera hezkidetzaileria izan dadin eraldatzailea, sinergikoa, erantzunkidea eta mobilizatzailea. Betiere, kongresuan jorratuko diren tokikoak eta globalak diren erronka eta gaietatik abiatuta.


Udal agenda hezkidetzaileria

Erronka nagusierna hezkidetzaileria plangintza integralak sustatzea eta martxan jartzea da:

- Interseksionalitatea kontuan hartuz.
- Zaintza erdigunean jartzeko.
- Komunitatearen ardura dela ikusarazteko.
- Kohesio soziala indartzeko.
- Saretzea bultzatzeko.
- Indarkeria tasak handitzen ari direlako.
- Ez-ohiko leku-kolektiboetara iristeko.

Estrategiak:

- Diagnostiko parte-hartzaileak aurrera eraman. Zeinetan...
 - Hezkidetzaren kontzeptu bateratua sortzen den.
 - Eragile ezberdinek parte-hartuko duten: hezkuntza formala, hezkuntza ez-formala...
 - Modu edo bide berriak martxan jartzen diren: artea, bizipena, emozioa...
 - Ilusioa eragiten duten.
- Legea erabili, hau da, beharrezkoa den guztietan tresna juridikoak erabili.
 - Baliabideak bideratu.



Patioak eta eskolako espazioaren erabilera

Titularra:

Eskolako espazioen banaketak/distribuzioak garrantzi handia hartzen du ikasleen heziketan zein hauen arteko harremanak izateko moduetan. Horregatik, espazio hauen diseinu zein kokapen egokia egitearen behar handia azpimarratu da, esku artean dauzkagun muga, aukera, behar zein indarrak aztertuz. Gainera, irakasleek askotan, formakuntza falta somatzen dute eta honen aurrean hezitzaileen arteko saretzearen ezinbestekotasuna nabarmendu da.

Zirrarak edota motibazioak:

Saretze txoko honetan 25 pertsonen parte hartu zuten bi txandatan banatuak. Profil oso anitzak (irakasleak -HH, LH, DBH, FP-, MENA zentroetako hezitzaileak, gaztelekuetako hezitzaileak, ikasleak,

berritzeguneko langile ohiak, jolastokiak eraldatzen lan egiten duten elkarte desberdinetako kideak..) eta nagusiki, ondorengo zirrarak eraginda iritsi ziren bertara:

- Patioaren erabileran ez dute ikasle guztiek modu berdinean parte hartzen, eta hauetako askorentzat jolastokia ez da espazio segurua:
 - Botere harremanak
 - Periferian gelditzen diren ikasleen eskubide/oztopoak
 - Gatazkak
 - Material/jolasak
- Eskolako espazioen banaketak/distribuzioak garrantzi handia hartzen du ikasleen heziketan eta espazio hauen diseinu zein kokapen egokia egitearen beharra somatzen da.
- Hala ere, biluzik gaude jolastokiaren espazioaren kudeaketaren kontuari dagokionez eta geroz eta gatazka gehiago sortzen dira espazio horretan. Nola kudeatu hauek? Zer egin kontu honekin?
 - Irakasleon/hezitzaileen polizia paperaren inguruko kezka.
 - Espazioaren eraldaketa eta bertan ematen diren harremanak izateko moduen inguruko hausnarketa egiteko zein hau eraldatzeko aurkitzen dituzten mugak.
 - Futbolaren kontua (espazioaren okupazioa, diskriminazioa...).


Zirrar horiek biltzen dituzten erronkak eta martxan ipini daitezkeen estrategiak ondorengoak izan daitezke:

| ERRONKAK | ESTRATEGIAK |
|--|--|
| Espazioak birmoldatzeko akordioak bai irakasleriaren zein ikasleen artean, kontuan izanik, ikasle askok ez dutela jolastokia espazio seguru gisa sentitzen. | <ul style="list-style-type: none"> * Eraldaketa burutzeko dauden mugak aztertu (sozioekonomikoak, botere harremanak, nahiak...). * Berdinen arteko ikaskuntza sustatzea. * Emozioen mapa bat egitea. * Behaketa (bai espazioaren erabilerari dagokionez zein irakasleriaren arteko botere harremanei dagokienez). * Irakasleriaren nahiak jasotzea. * Formazioa eta sentsibilizazioa. * Harreman osasuntsuak eta praktika onak sustatzea. |
| Hezitzailearen rola inguruko hausnarketa bat burutu; polizia izatetik, beraiekin jolastera. | <ul style="list-style-type: none"> * Irakasleen eta irakasleen arteko konfiantza landu. * Esperientzien saretzea (komunikazioa). |
| Materialen erabilera: <ul style="list-style-type: none"> • Material berriak txertatu eta hauen erabilera sustatzea. • Materialen zaintzan lan egitea. • Futbolarekin zer? | <ul style="list-style-type: none"> * Behaketa (non jolasten duten eta non ez, ze txoko sentitzen duten espazio seguru gisa eta zein ez). * Ikasle guztiak gustura egoteko txoko desberdinak sortzea jolastokian. |
| Patioari ematen diogun erabileraren inguruan hausnartzea, hau ez baita soilik aisiarako, askoz erabilera gehiago eman diezaioke ikastetxearen aldetik. | <ul style="list-style-type: none"> * Klaseak emateko zein bertan lasai egoteko txokoak sortzea. |
| Ikasle kopurua jolastokian eta ikastetxeak espazio horretan ematen diren gatazkei aurre egiteko dituzten baliabide urriak. | |

Hezkidetzaren diagnostikoa eta planak

Titularrak:

- Diagnostikoa eta planak laguntza tresna bihurtzea.
- Irakasleen ongizatea bermatzea.
- Egiten dena aitortzea eta bisibilizatzea.
- Motibatu. ilusioa egin. Eta hemen sortu den esperantza kalera eraman.
- Beste kongresu bat behar dugu.



Zirrarak edota motibazioak:

- Hezkidetzan nire papera/parte hartzearen inguruan hausnartzea.
- Korapiloa.
- Modu planifikatu, ordenatu, koordinatuan lan egiteko aukera.
- Ikasleekin "diagnostiko"-ekintzak proposatzeko aukera.
- Beste aldean: arriskua.
- Ez da zirimiria.
- Intentzionalitate handiko proposamena da.
- Gai emergenteak irakurtze beharra ikusten dut.
- Testuinguruak irakurri egunerokoan.
- Planak sortzeko diagnostikoa behar ditugula.
- Ardura - Hezkidetzaren gaitza.
- ¿Datuak? Ez/Bai.
- Gizonekin, mutilekin nola? Nola iritsi? Asmatzen ari gara?
- Ezetzaren aurrean nola jokatu. Pribilegioa landu. Nola landu?
- Beharrak.
- Laguntzeko gogoak.
- Berritzeak.
- Eguneratzea.
- Sexologia eta komunikazioa.
- Giza heskubideak.
- Feminismoa (Ziprztindu).
- Ardurasuna. Ardura eta urduritasuna.
- Konplizitateak.
- Sexu Hezkuntza integrala: Aztertu, Landu, Eragin.
- Eraldaketa.
- Beste errealitate ezberdinekin kontaktua izatea.

Identifikatutako erroreak:

- Benetako errealitatea nola ikusi/bizi.
- Eskuin muturrearekin eta haren mugimenduetarekin zer egin? Maskulinitateekin lotuta.
- Sexu heziketa integrala.
- Irakasleen ongizatea bermatu eta haien motibazioa kitzikatu, eragin.
- Apustu politikoa.
- Lanbiderako sarbidea.
- Begirada ikuspuntu globala nola landu.
- Maskulinitatea planetan nola islatu.
- Planen ebaluazioa.
- Planak ziklora zabaltzea.
- Erresistentziak.
- Eragileen arteko koordinazioa.

Estrategiak ez ziren komentatu.

Sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiatikoko jazarpenaren aurkako protokoloa

Titularra:

hezkuntza-esku-hartze formal eta ez-formalean, sistema zisheteropatriarkala egitura-sistema bezala azaldu behar da. Baina aldi berean jazarpenetan kontuan hartu beharreko hainbat ezaugarri (adina, tokia, indarra...) kokatu eta definitu behar dira.

Zirrarak edota motibazioak:

- Protokoloa barneratzeko estrategiak ezagutzeko eta aplikatzeaz noiz amaitzen den jakiteko beharra.
- Protokoloak noiz hasi behar diren aplikatzen hausnartzea.
- Eguneroko egoerei aurre egiteko erantzunak nola bildu daitezkeen protokolo batean jakiteko beharra.
- Protokoloak baliagarriak direla sentitzea.
- Protokoloek duten ikuspegi punitibista gainditzea.
- Protokoloak ze perspektibatik eraikitzen diren hausnartzea.
- Kirolean eta aisialdi espazioetan ere protokoloak bultzatzea.
- Hausnartu nola aurre egin biolentziaren normalizazioari protokoloen bitartez.
- Enpresetan aplikatzen diren protokolo asko gizonek sortzearen inguruan pentsatzeko beharra.
- Protokoloetan dauden hutsuneei aurre egitea.
- Horrelako tresnak beharrezkoak bilakatzea.
- Udaletxeetan txertatzeko beharra.
- Protokoloa aplikatzeko momentuan ematen diren arazoak plazaratzea.
- Protokoloen inguruko ezjakintasunari aurre egitea, baita hauetan dauden ezagutzen inguruan ikasteko ere.
- Protokoloetan sexologia eta feminismoa uztartzearen beharraren inguruan hausnartzea.
- Protokoloak garatzen ikastea.

Ondorioztatutako erronkak eta estrategiak:

- Protokoloek marko orokor bat marraztu beharko lukete zeina sistema zisheteropatriarkalaren erroa eta interseksionalitatea tresna bezala barne-biltzen duten.
- Protokoloek, markoaz gain, lurreratze/egokitze prozesu bat behar dute. Horretarako hainbat ezaugarri kontuan hartu beharko dute:
 - Adina
 - Lekua
 - Izaera
 - Intentsitatea
 - Maiztasuna
- Hezkuntza-sisteman protokoloak txertatzeko erronka handia dago oraindik. Horiei aurre egiteko estrategia batzuk:
 - Irakasleriarentzat aurrez aurreko formakuntza eta derrigorrezkoa.
 - Protokoloak derrigorrez eduki behar izatea.
 - Zentroaren profesional guztiek protokoloa barneratzea, hots, kolektibotasunetik protokoloa jabetu.
 - Protokolo malguak sortzea, hau da, hobetzeko eta eraldatzeko gaitasuna dutenak.
 - Punitibismoaren ikuspegia gainditu beharko litzateke. Horretarako:
 - Irakasleak formatu behar dira.
 - Ardura hezkuntza-komunitate guztian jarri behar da.
- Protokoloetara iritsi aurretik, sentsibilizazioa bultzatzea komeni da. Horretarako, berdinaren arteko hezkuntza oso estrategia eraginkorra da.

Gazteak, kaleak eta aisialdia

Titularra:

Gazteak protagonistak izanda espazioak eraiki behar dira, betiere aniztasuna eta elkarbizitza bermatuz.

Zirrarak edota motibazioak:

- Gazteekin lan egiteko orduan indibidualtasuna ikusten da haiengan, eta egonezinak daude horientzat suertatzen diren aisialdi espazioekin (edo suertatzen ez direnekin). Aisialdia gazteen kolektibizatzeari zuzendua egotea horientzat aukera izan daitekeela uste da, hau da, haiek "bakardadetik" ateratzeko aukera izan da (aurten birritan aktibatu behar izan dute suizidio prebentziorako protokoloa).
- Formalismoetatik urrundu beharra gazteekin lana artikulatzeko orduan.
- Gazteek kalearen ze nolako erabilpena egiten dute? Ze aukera dituzte aisialdian? Kirolez gain zer eskaintzen zaie giro osasuntsu baten "markoan"? (identifikatzen da mutilentzat kirola egiteko aukerak eskaintzen direla, baina neskak askotan bankuetan eserita daude, beste zereginik gabe).
- Aurreko joera modu argiangoan ematen da herri txikietan, non aisialdi proposamena oso mugatua geratzen da, frontoiak eta futbol/saskibaloi zelaietatik behin ateratzen garenean.


- Sexualitatean izugarritzko desinformazioa dagoela ikusten da eta horren baita identifikatzen dira gazteen praktika arriskutsuak.
- Ikerketaren beharra: hutsuneak, zailtasunak identifikatzeko begirada interseksional batetik abiatuta.
- Komunikazio kanalak zabaldu behar dira, eta botere harremanak berrikusi. Ezin da eman norabide bakarrean (irakasleria/hezitzaileetatik gazteei, kontrako buelta eman behar da ere).
- Gazteak eta espazio publikoaren erabilerari dagokionez (eta gorputz disidentee horren ze erabilpen egiten duten/egin dezaketen), indarkeria sexistak ematen dira, nola adieraz ditzakete haien gorputzak heteroarauetik ateratzen direnak? Militantzia egiteko espazioen beharra.
- Hiria gazteen ikuspegitik pentsatu eta eraiki beharra, hori izan beharko luke hirigintzaren ardatza, horientzako espazioak pentsatzen direnean. Nola inplikatu gazteak haien espazioak eraikitze horretan.
- Nabaritzen da partehartzean hutsune bat: Zergatik gazteek ez dute gure proposamenetan parte hartzen? Zerikusia dauka horrek aipatutako komunikazioan (goitik beherakoa dena, eta ez zaie galdetzen zertan gustatuko litzaieken parte hartzea). Gazteen ahotsak entzuteko beharra, interbentziorik egin gabe eta botere harremanak doitzen saiatu beharko genuke.
- Kale berriak agertu dira: ez dira fisikoak baizik eta birtualak, eta gazteak kale horietan daude; sare sozialak hain zuzen ere. Ze nolako dinamika ematen dira kale berri horietan? Ez ginateke horietan "agertu" beharko eta horien erabilpena ona sustatu? Horretarako horien ezagutza behar dugu, eta modu kritikoan horien erabilpen hori "curriculum-era pasatu".
- Hainbat kolektibok espazio seguruak behar dituzte (ohiko kaleetan eta "kale berrietan"). Kezkak: LGBTIQ+ kolektiboak eta gazteak.

Identifikatutako erronkak:

- Espazio seguruak eraiki: kaleetan, ikastetxeetan, sare sozialetan... Eta irisgarritasunean lan egin.
- Botere harremanak arrakalatu, identifikatu, hautsi... Modu nabarian hautematen dira adinkeria eta normatibitatea (normatibitate horretatik kanpo dauden gorputz disidentee eskubide guztiak izan ditzatela).
- Indibidualtasun dinamikak kolektibotasunerantz zuzendu... Komunitarioa baloreen jarri eta sustatu.
- Gazteekin lanean dihardugunok elkarbanatze espazioak behar ditugu, horretarako beharra ikusten da.

Ondorioztatutako estrategiak:

- Taldeetan identifikatuko azken erronkari erantzuna emateko estrategia moduan ulertzen da ere. Ez dira soilik espazioak behar, baizik eta baliabideak, kalitatezko denborak...
- Gazteen ahotsa entzun eta kontutan izan. Ez du balio parte-hartze prozesuak sustatzea gero horiei kasurik egiten ez bazaie.
- Gazteen saretzea sustatu eta erraztu, elkarlaguntza sareak bultzatu eta erraztu.
- Proposamenak interseksionalitetik abiatu: kulturartekotasuna, belaunaldien artekoa, genero ta sexu dibertsitatea, aniztasun funtzionala.



Eskolako materialak berriz pentsatzen, sortzen eta partekatzen

Titularra:

Eskolan, maila guztietan erabiltzen diren materialak ikuspegi hezkidetzaille batekin eguneratzeko behar handia dago. Irakasleek ordu asko ematen dituzte honetan eta lan ikaragarri horri etekina ateratzeko, hezitzaileen arteko saretzea eragitea oso garrantzitsua da (ikastetxe barnean eta ikastetxeen artean ere).

Zirrarak edota motibazioak:

Gure saretze txokoan 21 pertsonen parte hartu zuten bi txandatan banatuak (irakasleak gehienak -HHn, LHn, DBHn, Batxin eta unibertsitatean- pare bat elkartetan diharduten bi hezitzaile, Eskolako bi arduradun eta Berritzeguneko langile ohi bat izan ezik) eta nagusiki, ondorengo zirrarak eraginda iritsi ziren bertara:

- Eskolako materialak oso garrantzitsuak dira ikaskuntza testuinguru esanguratsuak islatzeko euskarriak direlako.
- Gaur egungo eskolako materialen metodologiak/dinamikak zaharkituak daude.
- Maila eta esparru guztietan txertatuak egon beharko liratekeen materialak ezaugarri hauek izan beharko lituzkete gutxienez:
 - Ikuspegi feminista
 - Euskaldunak
 - Artearen erabilera egiten dutenak
 - Lanketan gorputza barnebiltzen dutenak
- Dagoen material kopurua izugarria da (jende askok dauka kezka hori eta jende asko dago lan berdina egiten baina askotan gure Drivean gelditzen da). Zer egin horrekin guztiarekin? Nola kudeatu daiteke?
- Erantzunak, partekatzean/saretzean/trukatzean egon behar du, honek gainera aurreztea eta aberastea esan nahi du! Baina zein da hori egiteko modu baliagarria? (adibide bikain bat Agorako filosofiako irakasleek egiten dutena izan daiteke)

Zirrara horiek biltzen dituzten erronkak eta martxan ipini daitezkeen estrategiak ondorengoak izan daitezke:

| ERRONKAK | ESTRATEGIAK |
|--|---|
| Material berriak sortzeko beharra: <ul style="list-style-type: none"> • Emozioen lanketa egingo dutenak. • Metodologia berriak erabiliko dituztenak: gorputza, artea, manipulatioak. • Euskaldunak. • Eredu eta eduki anitzak izango dituztenak. • Hezkidetzeta edo feminismoa, zeharkako modura, zirimiria balitz bezala landuko dutenak. • Jakintzak/informazioa era interesgarri eta barneratzeko erosoan emango dutenak. | *Berdinen arteko ikaskuntza sustatuz (ikasleek ikasleei, alegia). *Ikastetxeetan material batzordeak osatuz. *Hezkidetzaillea ez den material bat erabiltzera derrigortua zaudenean, ikuspegi kritikoz egin ;) |
| Nola egin materialak partekatzeko? (Norberak bere materialak sortzea oso neketsua baina positiboa dela jakinik eta proposamen didaktiko bat bere horretan osorik ezin dela partekatu kontuan izanik, irakasleen arteko oinarri amankomun bat izan eta konpartitzea primeran legoke). | *Klaustroan praktika onak partekatzeko saioak antolatu. *Jaurlaritzak ikastetxeen arteko topaketak antolatzea helburu honekin, besteak beste *Ikastetxe barnean, irakasle batzuk besteen klasetara sartzea. *Gunetuz (psikologia fakultateko irakasle batek ¹ , beraiek duten atari honetan materialak partekatzeko gune bat sortzearen eskaintza egiten du). |
| Gainerako irakasleen artean sortu daitezkeen erresistentzien aurrean zer egin? | Klaustroa sentsibilizatzeko ekintzak. |
| Norberak bere buruaren lanketa egitea. | |
| Kurrikulum ezkutuaren lanketa nola egin? | Honetarako formazioa eta sentsibilizazioa derrigorrezkoak dira. |
| | Ikastetxearen eta herriko beste eragileen arteko guneak partekatzea beti da positiboa. |

¹ luixa.reizabal@ehu.eus

Eskola-kirola hezkidetzalea

Rolaren arabera oso ezberdin esku-hartu behar da gai hau, hots, guraso, gorputz-hezkuntza irakaslea, PT-ak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.

Eremu bakoitzean esku-hartzeko moduak eta estrategiak ezberdinak izan behar dira, erronkak ezberdinak direlako. Adibidez talde misto edo ez mistoen gaiaren kasuan segun espazioa abantailak batzuk izango dira edo beste batzuk. Hori dela eta, hausnarketa espazioaren arabera egin da:

- Eskola kirol eremuan (eskolaz kanpoko jardueretan): aukera eman beharko litzake kirola modu misto edo ez mistoan egiteko. Betiere genero disidentzia identitatea duten ume-nerabeek eta neskek eroso sentitzen diren baldintzak bermatzen badira. Baldintzak onuragarriak ez badira, talde ez-mistoak bultzatu beharko lirateke

baina identitate gutxitu eta nesken ahalduntzea bultzatzen duten espazioak sustatuz, adibidez; hain lehiakorrak ez diren kirolak erabili, lehiari garrantzia kendu (hezkuntza guneak baitira)... Zentzu honetan, kirol alternatiboak sustatzea ere estrategia egokia izan daiteke ikasleago berdintasun baldintzetan hezteko, hots, abiapuntu berdinetik has daitezen.

- Hezkuntza-formalean: gorputz, mugimendu-gaitasun eta genero identitate guztiak parte-hartu dezaketen espazio seguruak sortu beharko lirateke (batzuetan ez daudenak gorputz-hezkuntza irakasgaien edo patioetan). Gurasoek eta hezitzaileek indarkeria maila altua duten espazioak bezala identifikatu dituzte. Erronka handia dago espazio horiek bizigarriagoak bihurtzeko.
- Kirol-arautu hegemonikoen dinamikarekin apurtzea gomendagarria litzake eta lehiakortasuna bultzatzen ez duten kirolak sustatu: mendi irteerak...

Ekintzak: M8, E28, A25...

Zirrara/k edota motibazioa/k:

- Ezagutzeko.
- Ekintza gehiago egiteko asmoz.
- Ekintza “berezien” inguruko ideia berriak jasotzeko asmoz.
- Eskolek programazio berezietarako baliabideak eskatzen digutelako.
- Azken urte hauetan mobilizazioek (grebak) planak zapuztu dizkigute.
 - Akordioak?
 - Beste noizbaiterako utzi?
- Ekintza bereziak HH.ako etapan nola aurrera eraman daitezkeen ideiak hartzeko eta hauetan irakasleen inplikazioa zein edo nora artekoa izan behar den jakiteko.
- Ekintza feministen inguruko galdera batzuk:
 - Zein da hauen helburua?
 - Noraino iritsi nahi dugu?
 - Nola baloratuko dira?
 - Errespetu faltan aurrean nola jokatu?
 - Nola jasotzen dira egun hauek?

Erronkak eta estrategiak:

- Egun hauen helburua/k zein/zeintzuk diren ongi zehaztu eta azaldu behar dela/direla aipatu da lantaldean.
- Irakasleen (klaustro guztia) inplikazioa eta babesa ez da errealitatea hezkuntza zentro askotan. Honen aurrean estrategia ideia desberdinak aipatu dira:
 - Ikastetxeen artean ereduak/esperientziak partekatzeko sareak (Google Drive bitartez, adibidez)
 - Komunikazio-sareak sortzea hezkuntza zentro ezberdinetako hezkidetzak taldeen artean.
- Egun berezi hauek (batzuetan “derrigorrezko” sentitzen dituztenak eta direnak) ikasle guztiak ez dira prest egoten lanketarako. Interesgarria litzateke ikasleen arteko ikasketa baten bitartez hurbiltzea gai/ekintza hauetara, eta haien jakin-min eta interesetatik abiatzea egunaren lanketa bera.
 - Horretarako, zenbait ikastetxeetan jada ikasleen hezkidetzak taldeak sortu izan dira.
- Motibaziorako beste estrategia bat egunean zehar antolatutakoak eta egindakoak txalotzea da.

Komunikazio feminista

Emozio(ak) eta/edo motibazio(ak):

Pertsonen toki berdinzaleagoak (adibidez, ikastetxeetan) sustatu beharko lituzketen egoera ezberdinetan aurkitzen diren erresistentziak eta irakasleek berek hezkidetzako jarduerak edo estrategiak babesten ez dituzten toki horietan sortzen da kezka hau: nola egin boterearen bitartekotza?

Hortik abiatuta, gogoeta egiten da: nola desikasi, softwarea nola eguneratu, zergatik komunikatzen duguna ez da soilik diskurtsoa, sentitzea, pentsatzea, bizipenak dira, orduan ez da nahikoa ideala zer izango litzatekeen jakitea, baizik eta norberaren oztupoak haustea eta empatia eta asertibitatea ahalbidetzea. Uste da orduan hizkera erabili daitekeela tresna garrantzitsu moduan.

Erronkak:

Esanahi-leku komun bat eraikitzeke planteamendua hartzen da abiapuntutzat. Izan ere, pertsona batzuek uste badute gaia ez dagoela haiekin lotuta, oso zaila izango da partaide izatea. Horretarako, zenbait gako identifikatzen dira: nola iragazi probokazioak, ez ahuldu mesfidati daudenak konbentzitzen, baizik eta konbentzitzen eta zalantzakoen artean indarra sortzen, arreta ahaleginetan eta balioespenetan egon dadin, eta ez polemiketan. Gainera, horrek zarata kentzen laguntzen du.

Proposatutako beste estrategia bat izenik gabe limurtzea da, lantzeko modu gizatiarrago batekin. Despertsonalizatu daiteke, deserosotasuna eta itxaropenak kudeatu, espazio seguruak eragin eta konplizitatea sortu.


Begirada gaitasun sozioemozionalen garapenean jartzeko beharra identifikatzen da. Komunikazioa aliatua da.

Estrategiak:

Arteaz, umoreaz eta emozioaz hitz egin zen, komunikazioan sakontzeko tresna posible moduan. Ez modu instrumentalean, topaketarako eta ikaskuntza integralerako aukeratik baizik.

Aurrekoarekin lotuta, hizkuntza ikuspegi zabalago batetik erabiltzeko aukera, asertibitate eta koherentziatik, formak balio handia izanik:

- Bizikidetzak-akordioak erabakiguneetan, adibidez, hitzaren erabilera kudeatzeko. Marrazkiak, idazketa, lan-talde txikiak erabiltzea. Bertan, esku-hartzea gorputzezkoagoa izanik.



Gazte-talde feministak

Titularra:


Gazte-taldeak trans-feminismotik eraiki behar dira, denek beren lekua topatu eta parte senti dezaten.

Zirrarak:

- Momentu honetan ez dago talde gazte feministarik aktibo herrian. Nola aktibatu?
- Gauza berriak ikasteko irrika.
- Herrian Gazte talde feminista bat sortzeko helburu eta zirikatze ideiak, proposamenak.
- Espazio seguruak/Lanketa feminista/Talde kohesioa/ Erreferentzialtasuna.
- Ikastetxeetan, nola izan gazteen bidelagun aktibo?
- Ikastetxean ikasle talde feminista bat bide-laguntzako erronka daukat.
- Ikasleen inplikazioa ezinbestekoa da haien eragin/ ahalduntzeko eta eraldaketa sortzeko.
- Oso lagungarria izan daitekeelako.
- Talde feministen funtzionamendua ezagutu militatzeko edo bat sortzeko helburuarekin.
- Kuriositatea/Nire herrian ez dago gazte talde feministarik (estrategiak).
- Beste talde feministen menpekotasunetik nola atera.
- Gaur egungo gazte mugimenduen aldarrikapenen kezka eta zalantzak.
- Herri mugimenduen arteko talka (GKS, Ernai, LGTBIQA+).


Erronkak:

- Erreferente gazteak.
 - Eskoletan askotan ez dituzte gazte talde erreferenteak.
 - Herri askotan dituzten erreferenteak dira, talde feminista gazteak izan zirenak (gaur egun 30 urte dituztenak), eta talde horien mendekotasunetik autonomiara pasatzea da erronka.
- Gazte talde feminista egiteko, zenbat pertsona behar dira? Bi ikuspegi plazaratzen dira:
 - 7 gazte oso gutxi dira segituan nekatzeko eta erretzeko aukera dago.
 - 7 lagun badaude aurrera, lehenengo pausuak emateko hobe gutxi badira, eta pixkanaka beste gazteak gehituko dira.
- Gazte mugimendua nora doa? Oraintxe bertan gazte mugimendu desberdinak daude eta indarra hartzen ari dena ez da oso feminista. Erronka talde feminista hauek beste aukera eta gogoeta espazioak izatea da.
- Talde feministetako kideen profil aniztasuna. Normalean D ereduko gazteak osatzen dituzte talde feministak, interseksionalitatea mezuan egoten da baina ez praktikan (normalean txuriak eta euskaldunak izaten baitira).
- Nola/non sustatu talde gazte trans-feministak? Lantzeko espazioak eta aukerak ikusten dira gaztelekutan, kale hezitzaileen bidez eta aisialdiko espazioetan.



Estrategiak:

- Espazio seguruak sortu. Gazteak nahi eta behar dute espazio/leku bat non lasai, seguru eta aske sentitzen diren. Berdin du nola deitzen den: talde feminista, hezkidetza taldea... Izena egokitu behar da taldearen egoerara eta momentura. Espazioak feminista hitza ez izan arren, taldeko erak eta moduak feministak izan behar dira pixkanaka feminismoa bizipenetatik barneratzeko. Gazteei, gonbidapen zuzena egin behar zaie, bazterretan dauden parte izan eta sentitzeko eta pixkanaka talde giroan komunitatea sortzeko.
- Espazio estrukturalak. Talde feminista eskola, aisialdi, zerbitzu desberdinen espazio estruktura batean baitan egoteak, taldearen egonkortasuna eta jasangarritasuna errazteko.
- Topatzeko lekua eskuragarria egon behar da, gazteen parte hartzea errazteko.
- Taldea sortzea lehenengo estrategia da, hasi eta pixkanaka martxan jarri taldearen nahiak eta beharrak lantzen.
- Taldearen funtzionamendua feminista izatea ezinbestekoa izango da: hausnartu nola egin, eraiki, harremanak izan, antolatu eta abar. Modu honetan taldearen izaera feminista bermatuko da.
- Talde feminista bere baitan jabeakuntza-prozesua da. Taldearen osaketa, rola, funtzionamendua, korapiloak, arrakastak... ahalduntze prozesua da, bai modu indibidualean baita taldean ere.
- Talde gazte trans-feministak. Estrategia eta ikuspegi desberdinak plazaratu dira, talde feminista bakoitza helburu edo momento desberdinetan egon daitezkelako. Hala ere, itxieran, emakume gazte trans-feministak lehenetsi dira, gazte guztiak parte-hartzeko eta izateko aukera izateko eta denen errealitatea, ikuspegi, gogoeta eta egoerak lantzeko helburuarekin.



Ondorioak

Honako ondorioak dokumentuaren indar-ideia orokorrak dira. Beraz:

- 1. Bazterketa eta desberdintasunak diskriminazio egitura-ardatzak dira** eta elkar berrelikatzen dute. Ez dira oinarritzen banaka egiten diren ahaleginetan, ezta merituetan ere.
- 2. Ikuspegi orokor batetik** ezinbestekoa da **hezkidetzaren interseksionala izatea**. Besteak beste, arrazializatutako emakumeak (negatiboki) askoz pobregoa dira eta ondasun materialak eskuratzeko aukera gutxiago dituzte.
- 3. Inflexio-une batean** gaude, inguruko errealitateak ikusarazten ari direlako eta aliantzen eta **esparruen malgutasunaren** bidez ahalduntzen ari direlako. Era berean, **aldaketarekiko erresistentziak** bezalako gai garrantzitsuak erdigunera ekartzen ari dira.
- Pedagogia feministen funtsa gure jokoaren **zertarakoaz sakon hausnartzea** da. Era berean, honako hauek dira edozein ekimeni ekin aurretik egin beharreko oinarritzko galdera batzuk:
 - a.** Nola laguntzen digu edo interpelatzen gaitu proposamen honek subjektu edo taldeko(ak) bezala zerbait berrikusteko?
 - b.** Nola aktibatzen gaitu esperimentazio-prozesu bat irekitzeko?
 - c.** Diseinatutako jarduerak non kokatzen ditu gorputzak prozesuan zehar?

- Pedagogia feministek **azterketa kritikoa** ahalbidetzen dute, hala nola:
 - a.** Pornografia kasuetan, kontsumoaren alarmismotik urrundu eta sexu-hezkuntza osoaren alde erabili.
 - b.** Horri esker uler dezakegu lodifobia ez dela argaltasunaren erotizazioan oinarritzen, emakumeak argaltasunaren kontrol kulturalaren mende egoteko borondatean baizik.
 - c.** Une zail honetan, gizon gazteekin erabili beharreko estrategiak, jarrerak, diskurtsoak eta metodologiak birpentsatzea errazten digute, erasotzaile moduan adierazteko ikuspegiari buelta emanda eta lana harreman osasungarrietan ardaztuta.
 - d.** Testuinguruek arautik ateratzeko beldurra sortzen dutela ulertzea, hori berez indarkeria(k) jasatearekin lotzen baita.
- Ondorioztatzen da beharrezkoa dela **baliabideekin, borondate politikoarekin, osoarekin, zeharkakoekin, interseksionalekin eta prozesudunekin** heltzea.
- Hezkuntza feminista izan behar da modu **integralean**¹, aldizka gauza feministak egiteak salbuespenaren ideia pizten duelako eta araua ("normalena") matxismoa dela berresten duelako.

¹ Etengabe bustitzen duen zirimirri bat jakitun izan gabe.

Helburua da **salbuespenezko begirada hori saihestea**, egokiena **pedagogia feministak arau bihurtzea**² da.

Horretarako, oinarritzkoa izango da lelo feministetatik aldentzea eta feminismoaren pedagogia egitea, hau da, feminismoan hezte. Gomendagarria izango da diskurtso borrokarietatik aldentzea eta ez bakarrik nazioarteko egunetako aldizkako ospakizunetan (8M, 28J, 25N...) egitea.

Modu integral, esparru barnean eta artikulatuan heltzeak "ekintza txanpiñoiak" saihestuko ditu eta inpaktu handiagoko atmosferak sortuko ditu.

- Prozesuen ikuspegia ziurtatzeko **denbora, baliabide materialak eta dedikazioa ezinbesteko alderdiak bihurtzen dira**. Espazio seguruak posible egiten dituzte eta hezkidetzaren pedagogia feministak kalitatezkoak eta osoak izatea ahalbidetzen dute. Horrela, ez dira gaiak lehenetsi behar eta ez dira alde batera utzi behar prebentziozko edo epe luzeko gaiak, adibidez: ertzetako erotikak, iruditeriak, sinbologiak, erreferentziak...

Ikuspegi hori funtsezkoa da helburua sexualitate askeak bizitzea bada, **sexu-hezkuntzari alderdi eraikitzaileetatik ere heltzea ahalbidetzen baitu** (desira, plazera, sexu-praktikak, harreman osasungarriak...), eta ez beti indarkerietatik.

² Kontzeptua egunerokotasunaren ohitura bat bezala ulertu behar da eta ez beharrezko ezarpen bezala.

- Estrategiei dagokienez, **pedagogia feministak maila emozionalatik eta gorputzekoetatik hartzea** funtsezkoa da, eta ez horrenbeste arrazoizkotik eta diskurtsoarenetik.

Era berean, **ludifikazioa eta sormena** estrategia interesgarri bezala aurkezten dira. Norberaren edo besteen iritzitik aldentzea ahalbidetzen dute eta gorputzaren eta nortasunaren eraikuntza aberasten duten esperientzia eta ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte.

Era berean, azpimarratu behar da irakaskuntza-ikaskuntza prozesu horiek guztiek **ikaskuntza** askoz **esanguratsuagoak** sortzen dituztela.

- Denek** eta bereziki gorputz eta lurralde pribilegiatuek, eta baita hezten dugunok ere, **barrurantz begiratzeko ardura dugu, gure iruditeriak eta jarrerak eraldatzeko**. Horrela, gure inguruan tratatu onetan, autoezagutzan eta akordioetan oinarritutako eraldaketa feministak eta interseksionalak sustatu ahal izango ditugu, eroso, egokia eta legitimoa den horretatik aldentzearekin batera.

Aliantzei eta sare-lanari dagokienez, pedagogia feministen **funtsezko elementutzat** hartzen dira, taldearen indarra, berotasuna eta babesa funtsezko bihurtzen baitira. Horri dagokionez:

- a.** Adibidez, gorputz-aniztasunen eta sexu- eta genero-disidentzien arteko aliantza, Queer-Crip aliantzak edo lodiaktibismoaren eta gorputz argalen arteko aliantzak deitzen direnak.

- b. Hezkidetzako herri-ekimenean, aliantzak eta sarea oinarrizko eta beharrezko estrategiak dira eta proiektuen balioekin lerrotzen dira. Garrantzitsutzat jotzen dira tokiko edo munduko gizarte-mugimenduekin egindako aliantzak. Oinarrizkotzat jotzen dira hezkidetzaren ikuspegitik hezten dutenen arteko aliantzak eta sareak, bizi diren gatazkak partekatu ahal izateko. Baita ikuspegi horretatik garatzen diren eskola-materialak ere (bakoitzak materialak eguneratzen denbora asko eman ez dezan).
- c. Aliantza eta sareko lan horiek ikuspegi trans-feminista izan beharko lukete.
11. Hona hemen **pedagogia feministak sortzeko** jarraibide batzuk:
- Parte-hartzaileen izenen, izenordainen eta egoera emozionalaren protagonismoa.
 - Hizkera hurbila eta ulergarria.
 - Galderak erabiltzea metodologia interpelatzaile edo gogoetatsu moduan.
 - Parte-hartzaileen motibazioak eta itxaropenak aztertzea.
 - Barneratutako inertziak haustea.
1. Pedagogia feministentzat, **espazioen antolaketa oinarrizkoa da**. Horien eraketak zehaztuko ditu hezteko izango ditugun mugak, gabeziak, aukerak eta indarguneak. Espazio horiek izan daitezke adibidez: plazak, eskola-kirolean, jolastokiak eta korridoreak...

12. Argi dago **erreferentzien garrantzia**: gorputzak, sexualitateak, harremanak, bizipenak, baliabideak...
- Anitzak eta gertukoak.
 - Praktikoak, kokatuak eta hizkuntza sortzaileen bidez.
 - Gazteen benetako ahotsekin, hau da, helduen ahotsetatik haratago.
13. Komeni da **komunikazio feminista** ez zarata piztean oinarritzea eta ez dezala ahuldu. **Indarra eta sinergiak sor ditzala dagoeneko konbentzita daudenen eta zalantzan daudenen artean**. Egiturazko gatazkei eta erronkei konplizitatetik eta erakargarritasunetik helduko zaie, umorearen, artearen eta emozioaren bidez.
14. **Diagnosiek eta hezkidetzaren planek** irakasleen ongizatea ziurtatzen duten, eragiten duten eta ilusioa pizten duten **laguntza-tresnak** izan behar dute. Era berean, oinarrizkoa da egindako lana aitortzea eta ikusaraztea.
15. **Sexu- eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloek**, hezkuntza-arloko esku-hartze formalean eta ez-formalean, sistema zisheteropatriarkala zehaztu behar dute egitura-sistema bezala. Baina, aldi berean, jazarpenetan **kontuan hartu** beharreko zenbait ezaugarri zehaztu behar dituzte (adina, lekua, indarra...). Gainera, nahitaezkoak izan beharko lukete, prestakuntza eta **zigorretik urruntzea** eta erantzukizuna hezkuntza-komunitate osoan jartzea.

16. **Hezkidetzako udalerriek** onartzen dute pertsonak interdependenteak garela eta zaintzak³ gizarte-gaia direla, ez pribatua. Horregatik, hori sustatzea **hainbat arlotan** (hezkuntza, osasuna, enplegua...) **zainketak zeharkakotasunez** egitean eta **gizabanako eta eragile guztiak barne egotean** oinarritzen da, gizonak, gazteak eta erosteko ahalmen handia duten pertsonak barne. Horrek agerian uzten du komunitateak horren inguruan duen erantzukidetasuna, eta gizarte-kohesiorako mekanismo bezala balio du.

Komunitatearen parte-hartzearen eta konpromisoaren bidez denon ongizatea sortzeak dakar **adina edo generoa bezalako alderdiak zailtasunak ez izatea, baizik eta aukera bat izatea**. Baita sareko lanari balioa ematea eta eragileek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea ere.

Era berean, lehen azaldu den bezala, pedagogia feminista komunitarioetan ere ezinbestekoa izango da prozesu luzearen, denboraren eta baliabide egokien ikuspegia.

17. **Hezkidetzako herri-ekimenean** kasuan, teoria gainditu eta maila praktikora iristen diren bizipenak dira. Horretarako, funtsezkoa da pentsatzea, hausnartzea eta autokudeaketari ekitea parte-hartzaile guztien artean, elkarrekin.

Autokudeaketak eraldaketa sakonak (norbanakoarenak eta taldekoak) **ahalbidetuko ditu**, baina ariketa korapilatsua da eta hauek denak eskatzen ditu: denbora, esfortzua, gogoia, pazientzia, mimoa, zaintza eta pertsonen arteko konfiantza. Lortzen direnean parte-hartzaileak harrotasunez, plazerez eta ahalduz betetzen ditu. ahalduz betetzen ditu.

Laburbilduz, pedagogia feministek izan behar dute ikuspegi intersektionala eta trans-feminista-ez binarioa. Egiturazko desberdintasun- eta bazterkeria-ardatzen azterketa kritikoa egitea eta alternatiba eraldatzaileak proposatuko dituzte. Gainera, zertarako galderari argi eta garbi erantzun beharko diote. Gorputzetik eta emoziotik abiatuta eraiki beharko dira, horrela plazera eta umorea jarriko baititugu erdigunean. Horren guztiaren oinarria sormena eta ludifikazioa izango dira. Eta pedagogia horiek kalitatezkoak izan daitezten, zeharkakoak, integralak, baliabidedunak (denbora eta materialak), borondate politikodunak, aliantzetan oinarrituak izan beharko dira eta prozesuen logika izan beharko dute.

³ Kontzeptu zabalak da eta testuinguru geografiko eta historikoaren arabera definitzen da. Gerturatzeko esan daiteke harreman-ekintzak direla, bizitzaren sostengu duina ziurtatzeko eginak. Ekintza horiek etengabe gertatzen dira, baina indarra aldatu egiten da.



pedagogiafeministak.sorginlore.eus

Talde eragilea:

Sorginlore, Ikertze, Emagin, Arremanitz, Imaginá eta Alboan.

Aholkularitza taldea:

Donostiako Udala (Lankidetz, Gazteria, Hezkuntza eta Berdintasuna), Biltzen, Hiruki Larroxa, TBK Hezkuntza - Artaziak, Hezkuntza EJ- Iruneko Berritzegunea, EHU-HEFA, Candere EHU Ikerketa taldea eta Eskura.

Antolatzaileak



Babesleak

